ingurune
segurua

# INGURUNE SEGURUAREN SISTEMAREN ESKULIBURUA

**Adingabe eta heldu zaurgarriak (AHZ) babestu Espainiako Probintziako Jesusen Lagundiko obretan**

Jesuitak

AHZk babesteko prestakuntza taldeak egina 2018ko abenduan

**«Sinesten duten txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak, hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute.» (Mk 9,42)**

**“Horrela, egia ezagutuko duzue, eta egiak aske egingo zaituzte.” (Jn 8,32)**


# AURKEZPENA 5

# KONPROMISO INSTITUZIONALA 8
Frantzisko aita santuaren, aita jeneralaren eta aita probintzialaren gutunak 9

# INGURUNE SEGURUAREN SISTEMA (ISS) 18
**Eta zer da Ingurune Segurua?** 19
**Ingurune Seguruaren Sistemaren misioa** 19
**Ingurune Seguruaren Sistemaren helburuak** 19
**Ingurune Seguruaren Sistemako elementuak** 20
**Taldea** 25
**Baliabideak** 25
**Tresnak** 25
**Ezarpen-eremua** 25
**Zerbitzu gardena eta kalitatezkoa** 27

# 0. HASTEKO, GEURE BURUA SENTSIBILIZATU BIKTIMEI ENTZUN 28

# 1. ZERTAZ ARI GAREN JAKIN 41
**1.1 Definizioak** 41
1.1.1 AHZei egindako sexu-abusuen definizioak 41
1.1.2 AHZei egindako sexu-abusuen adibide batzuk 43
1.1.3 Errealitateko datuak 44
**1.2 Abusuaren prozesua** 46

# 2. AURREA HARTU 48
**2.1 Arrisku-faktoreak identifikatu 49**
**2.2 Babesteko faktoreak identifikatu 51**
**2.3 Tratu Onaren kultura 53**
2.3.1 Sustatu beharreko jokabideak, saihestu beharreko jokabideak eta onartu gabeko jokabideak 54

**2.4 Aurrea hartzeko jokaerak** 58
2.4.1 Pertsonekiko prebentzioa. Prebentzio-mailak 58
2.4.2 Prebentzioa ezarpen alorrean. Ekintzak eta espazioak 59
2.4.2.1 Arriskuaren mapak 60
2.4.2.2 Ezohiko ekintza guztietan kontuan izateko gaiak 61

# 3. ESKU HARTU 64
**3.1. Hautematen jakin eta interpretatzen jakin Sexu-abusuaren ikurrak eta adierazleak 64**
**3.2 NOLA JOKATU jakin: Harrera egiten jakin, informazioa biltzen jakin, jokatzen jakin 68**
**3.3 Sexu-abusu egoera baten berri izandakoan jokatzeko gomendioak 68**

3.3.1 Jokatzeko irizpide orokorrak 68
3.3.1.1 Entzun 69
3.3.1.2 Erregistratu 71
3.3.1.3 Jakinarazi 71
3.3.1.4 Babestu 72
3.3.1.5 Dokumentatu 72
**3.4 Jarduera nagusiak** **76**
3.4.1 Prozesuaren hasiera 77
3.4.1.1 Akusatutako pertsonarekin jarduera 77
3.4.2 Kontuan izan beharreko beste elementuak 78
3.4.3 Epeak 78

**4. HEDAPENA** **80**
**4.1. Barne-hedapena** **81**
**4.2. Kanpoko hedapena** **81**

**5. EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA** 80
**5.1. Obra bakoitzean** 81
**5.2. Jesusen Lagundiaren Espainiako Probintzian** 81

**ERANSKINAK** **85**
**1. eranskina.** Mitoak eta errealitateak 86
**2. eranskina.** Tratu onerako praktika onak 88
**3. eranskina.** Irudien erabilera eta IKT 90
**4. eranskina.** Educsi sektorean ezarri 92
**5. eranskina.** Nola egin arriskuaren mapak 102
**6. eranskina.** Balizko abusu egoerak nola hauteman 110
**7. eranskina.** AHZekin izandako elkarrizketetan kontuan izateko orientazioak 111
**8. eranskina.** Datuen babesarekin (DBLO) zerikusia duten eta kontuan izan behar diren alderdiak 112
**9. eranskina.** Bigarren mailako biktimei buruzko hausnarketak 113
**10. eranskina.** Glosarioa 116
**11. eranskina.** Ingurune Seguruaren Sistema ezagutzeko eta bat egiteko konpromisoa 116
**12. eranskina.** Adingabeekin eta heldu zaurgarriekin jarduerak egiten dituzten Espainiako Probintziako Jesusen Lagundiaren beraren obrak edo atxikitakoak. 120
**13. eranskina.** Erreferentziazko araudia 121
**14. eranskina.** Intereseko bibliografia, agiriak eta materialak 127
**15. eranskina.** Kartela 130

# AURKEZPENA

Azken urteotan ikusi nahi izan ez den errealitate baten kontzientzia argiagoa izaten hasi gara. Baina errealitateak bere bidea egin du eta begiak ireki behar izan dira; era berean, min baten ondorioen kargu ere egin behar izan gara, min horrek ez baitu soilik biktimengan eragina, haiek izan arren gure arreta-guneak, baizik eta biktimen inguruetan ere eragina izan du. Nahiz Frantzisko aita santuak nahiz aita jeneralak eta probintzialak premiatu dute errealitate honekiko erreakzio irmoagoa izatera eta erantzukizunez aurre egitera. Hori dela eta, Espainiako Jesusen Lagundiak planteatu du adingabeen eta pertsona zaurgarrien abusuen errealitate delikatu eta gogorrari modu askoz serioagoan eta sakonago heldu behar zaiola bere obra guztietan, zentroetan eta hezkuntza, pastoral edo sozial arloko jarduera guztietan.

Probintzian egiten ari den jarduera hauetako bat Ingurune Seguruaren Sistema sortzea izan da. Zergatik izen hau? Egia da hartzen ari garen neurri hauen sustatzaile nagusiak azken hamarkadetan argitara emandako abusu-egoerak izan direla; egoera horiek argi utzi dute Elizaren barruan eta kanpoan arlo sozial eta kulturalean erabat albo batera utzi dela babesik gabe edo egoera zaurgarrian daudenen babesa. Baina zorionez taldeko min honen eta biktimen zauri sakonen ondorioz baimentzen jarraitu ezin duguna argitara emateko aukera dugu eta gure kultura, gure jarrerak eta gure ekintzak aldatzeko eta jokabide mingarri hauek gure inguruan gehiago ez gertatzeko aukera ere bai. Hori dela eta, erreaktiboa ez den sistema bat nahi dugu, proaktiboa izango dena, Tratu Onaren kultura erraztu eta sustatuko duena eta harreman onak eta ingurune seguruak bermatuko dituena. Eskuetan duzun Eskuliburu hau kultura-aldaketa hori errazteko tresna izatea nahi genuke eta zuretzat lagungarria izatea nahi genuke bi gauza ikus ditzazun: batetik, zure jarduerekin nahi ez diren jokabide horiek saihesten lagun dezakezula eta, bestetik, Espainiako Jesusen Lagundiko obra, zentro edo jarduera guztietan denok nahi dugun ingurune segurua sortzen lagun dezakezula. Are gehiago, eskuliburu hau eta Ingurune Seguruaren Sistema honen ondorioz hartzen ari diren gainerako neurriak lagungarriak izatea nahi dugu, gainerako Elizarekin eta gure inguruko gizartearekin lankidetzan/eragiten jarrai dezagun, egiazko ebanjelizatzaileak izan gaitezen eta Jesusen jarraitzaile garen heinean gure mezua eta misioa eraman gure obretatik harago, eta horren ondorioz, gure inguruan maitasunaren erreinua eraiki.

Ikus dezakezunez, konpromiso eta erronka instituzionala oso sendoak dira, baina zure laguntzarik eta lankidetzarik gabe ez lirateke nahikoa. Hori dela eta, zure jarduera guztietan ingurune seguruak eraikitzeko jarrera izan behar duzu, jarrera horrekin irakurri behar duzu agiri hau. Ez dugu nahi soilik nola jokatu behar duzun jakiteko irakurtzea; material hau erabiltzerakoan bertan iradokitzen den oro ezartzeko konpromisoa hartzea nahi dugu; ez dugu interes hutsa nahi, baizik eta Sistema honen zati izateko egiazko asmoa nahi dugu, zuk jarriko duzun horri esker zure ingurukoak egiaz seguru senti daitezen osotasunean garatzeko. Mila esker Ingurune Seguruak eraikitzen laguntzeagatik.





## HASI AURRETIK
# ZENBAIT OHARTARAZPEN: SENTSIBILITATEA

Sexu-abusuaren eta prebentzioaren gaia edozein erakundetan aipatzea erronka izan daiteke eta garrantzitsua da mesfidantza eta izua sortu gabe egitea. Erakundeko jendea mehatxatuta sentitu daiteke abusuen gaiarekin edo dagokien lanerako ez dela garrantzitsua pentsa dezakete. Adingabe eta heldu zaurgarrien babesari buruzko eztabaidetan funtsezkoa da sentsibilizazioa, partaideak (helduak eta adingabeak) abusuzko esperientziak jasandakoak izan baitaitezke eta gaiak larritasuna sortu. Garrantzitsua da babesteko gaien inguruan jendeak izandako esperientzia motak bereiztea. Adibidez, erakundeko pertsona batzuek beraien bizitzan jasan ahal izan dituzte abusuzko esperientzia pertsonalak eta sentsibilitate handiarekin tratatu behar dira. Dena dela, pertsona batzuek erakunde batean hirugarren baten abusua esperimentatu ahal izan dute (adibidez, abusu baten lekuko izan dira edo akusazio bat tratatu behar izan dute zuzendaritzako karguren batean zirela, etab.) eta hori baliagarria izan daiteke etorkizuneko eztabaidetarako eta ikasteko ere bai.
Adi egon behar gara zer sortzen den ikusteko. Gure buruari "erasaten" utzi behar diogu, gaiari irmo eta beldurrik gabe heltzeko, baina sentsibilitate eta zuhurtzia handiz ibiltzeko.



# KONPROMISO INSTITUZIONALA

EGOITZA SANTUA

# FRANTZISKO AITA SANTUAREN GUTUNA JAINKOAREN HERRIARI

«Atal batek min duenean, min dute atal guztiek berarekin» (*1 Ko* 12,26). San Pauloren hitz hauek durundi egiten dute nire bihotzean beste behin ere egiaztatzean elizgizon eta sagaratutako pertsona kopuru nabarmenak egindako sexu-abusuen, botere-abusuen eta kontzientzia-abusuen ondorioz adingabe askok zenbateko sufrimendua bizi izan duten. Krimen honek zauri sakonak egiten ditu; minak eta ezinak eragindako zauriak dira. Biktimei egiten zaizkie zauriak, baina baita haien familiei eta komunitate osoari ere, izan sinestun ala ez. Atzera begiratuz gero, inoiz ez da nahikoa egingo barkamena eskatu eta eragindako mina konpontzeko. Aurrera begiratuz gero, horrelako egoerak saihesteko gai izango den kultura sortzeko egiten den guztia ona izango da eta kultura horretan ez da tokirik egongo egoera hauek estaltzeko eta betikotzeko. Biktimen eta familien mina gure mina ere bada, horregatik behin eta berriro esan behar dugu adingabe eta heldu zaurgarrien babesa bermatzeko konpromisoa dugula.

1. *Atal batek min duenean*

Azken egunetan txosten baten berri eman da; txosten horretan hirurogeita hamar urte inguruz apaizek emandako sexu-abusuak, botere-abusuak eta kontzientzia-abusuak jasandako gutxienez mila biktimaren lekukotza zehatza jaso da. Kasurik gehienak iraganekoak diren arren, denbora igaro ahala biktima askoren minaren berri izan dugu eta argi daukagu zauriak ez direla inoiz ixten eta irmo kondenatu behar ditugula ikaragarrikeria hauek, era berean, gure ahaleginek bat egin behar dute heriotzaren kultura hau errotik kentzeko; zauriak "inoiz ez dira preskribatzen". Biktimen mina auhen onartezina da, arimara iristen da eta denbora luzez baztertua, isildua edo isilarazia izan da. Oihu edo auhen horiek, ordea, isilarazten saiatu ziren neurri guztiak baino indartsuagoak izan ziren; arazoa konpondu nahian hartu ziren erabaki batzuek arazoa areagotu egin zuten eta konplizitatea egon zen ondorioz, bada, horiek baino are indartsuagoak izan ziren oihuak. Jaunak entzun egin zuen garrasi hura eta berriro ere argi utzi digu noren ondoan egon nahi duen. Mariaren otoitza zuzena da eta historian zehar xuxurlatu da Jaunak gogoan baitu gure arbasoei agindutakoa: «Bere indar guztiaz jokatu du: buru-harroak suntsitu ditu, ahaltsuak goi-postuetatik bota eta ezerezak gora jaso, ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak» (*Lk*, 1,51-53) eta lotsatu egiten gara gure bizi-estiloa eta ahoz errezitatzen duguna ez datozela bat ikusten dugunean, lehen ere ez zetozen bat eta orain ere ez datoz.

Eliza-komunitate gisa lotsaz eta damututa onartzen dugu ez ginela egon behar genuen tokian, ez ginela garaiz jardun hainbeste bizitzatan eragiten ari zen kaltearen neurri ikaragarriak eta larritasuna onartzean. Txikiak albo batera utzi ditugu eta ez ditugu zaindu. Neure egiten ditut garai hartan kardinala zen Ratzingerren hitzak 2005eko Ostiral Santurako idatzitako *Gurutze Bidean*, hainbat biktimaren oihu mingarriarekin bat egin eta ahienez beteta hau esan zuenean: «Zenbat zikinkeria Elizan eta apaiz direlako era-

bat Elizari emanda bizi behar luketenen artean! Zenbateko harrokeria, zenbatekoa asebetekeria! [...] Dizipuluen traizioa, bere Gorputza eta Odola duintasunik gabe hartzea da, zalantzarik gabe, Salbatzailearen nahigaberik handiena, bihotza gurutzatzen diona. Arimaren barren-barrenetik oihu hau egin beharra daukagu: *Kyrie, eleison* – Jauna, salba gaitzazu (cf. *Mt* 8,25)» (Bederatzigarren Egonaldia).

2. *Min dute atal guztiek berarekin*

Gertakarien neurri eta larritasun ikaragarriaren ondorioz, globalean eta komunitatean geure egin beharra daukagu. Garrantzitsua eta beharrezkoa den arren konbertsioko bide guztietan gertatutakoa ezagutzea, ez da nahikoa. Gaur egun Jainkoaren Herri gisa erronka bat dugu: geure egin behar dugu haragia eta espiritua zauritu zaien senideen mina. Iraganean utzikeria izan bazen erantzuna, gaur egun elkartasuna nahi dugu bere sakoneko zentzuan, oraingo eta etorkizuneko gure historia elkartasunean egin nahi dugu; gatazkek, tentsioek eta, batez ere, abusu mota ororen biktimek babesteko eta minetik berreskuratzeko esku bat aurkitu ahal izan dezaten (cf. Exhort. ap. *Evangelii gaudium*, 228). Elkartasun horrek berak eskatzen digu edozein pertsonaren integritatea arriskuan jar dezakeen oro salatzeko. Elkartasun horrek eskatzen du ustelkeria mota ororen aurka borrokatzeko, batez ere espiritualaren aurka «itsukeria erosoa eta handiustea baita, dena legezkoa dela uste izaten duena: iruzurra, kalumnia, egoismoa eta autoerreferentzialitatearen hainbat forma sotil, izan ere "Satanasek berak argizko aingeru-itxurak hartzen ditu (*2 Ko* 11,14)"» (Exhort. ap. *Gaudete et exsultate*, 165). San Paulok sufritzen duenarekin sufritzeko deia egin zigun eta hori da, hain zuzen ere, Kainen hitzak gure artean ez errepikatzeko antidotorik hoberena: «Anaiaren zaintzaile ote naiz, bada, ni?» (*Has* 4,9).

Ohartzen naiz munduko hainbat tokitan zenbat ahalegin eta lan egiten den haurren eta heldu zaurgarrien osotasuna babesteko eta segurtasuna eman eta bermatzeko, baita "zero tolerantzia" ezartzeko eta delitu horiek egiten edo estaltzen dituzten denek kontuak emateko ere. Beharrezko ekintza eta zigor horiek ezartzen berandutu egin gara, baina orain eta etorkizunean zaintzaren kultura handiagoa bermatzeko lagungarriak izango direla uste dut erabat.

Ahalegin hauez gain, bataiatutako bakoitza buru-belarri sartu behar da hain beharrezkoa dugun eliza eta gizarte arloko eraldaketan. Eraldaketa horrek konbertsio pertsonala eta komunitate mailakoa eskatzen du, eta Jaunak begiratzen duen norabide berdinean begiratu behar dugu. Hau esatea gustatzen zitzaion Joan Paulo II.a aita santuari: «Egiaz Kristoren kontenplaziotik abiatu bagara, Berak bere burua identifikatu nahi izan duen haien aurpegietan aurkitzen jakin behar dugu, batez ere» (Gutun ap. *Novo millennio ineunte*, 49). Jaunak begiratzen duen tokira begiratzen ikasi, Jaunak gu egotea nahiko lukeen tokian egoten ikasi, bere presentzian bihotza konbertitzen ikasi. Otoitzak eta penitentziak lagunduko dizute horretan. Jaunari leial zaion herri santu osoa gonbidatu nahi dut *otoitzaren eta barauaren penitentzia* egitera, Jaunaren aginduari jarraituz [1], zaintzaren kulturarekin ditugun kontzientzia, elkartasuna eta konpromisoa esna ditzan eta abusu mota eta forma orori "inoiz gehiago ez" esan diezaiogun.

Ezinezkoa da elizaren ekintzen konbertsioa irudikatzea, Jainkoaren Herriko partaide guztien parte hartze aktiborik gabe. Are gehiago, Jainkoaren Herria ordezkatu, isilarazi, arbuiatu eta elite txikietara murriztu nahi izan dugun bakoitzean, sustrairik, memoriarik, aurpegirik, gorputzik eta azken finean, bizitzarik gabeko komunitateak, planak, areagotze teologikoak, espiritualitateak eta egiturak eraikitzen ditugu[2]. Hau argi nabarmentzen da Elizaren autoritatea ulertzeko modu anomaloan -sexu-, botere- eta kontzientzia-abusuak egon diren komunitateetan oso ohikoa-, hau da, klerikalismoan, jarrera horrek «kristauen nortasuna ezeztatzeaz gain, Espiritu Santuak gure jendearen bihotzean jarri zuen bataioko grazia txikitu eta balioa kentzeko joera baitu»[3]. Klerikalismoa nahiz apaizek nahiz laikoek sustatu dute eta elizaren gorputzean banaketa dakar, gaur salatzen ditugun kalte asko betikotzen laguntzeaz gain. Abusuari ezetz esatea, klerikalismoaren forma orori ezetz esatea da.

Beti komeni da gogoratzea Jaunak «salbazioaren historian herri bat salbatu duela. Ez dago erabateko nortasunik, herri bateko kide ez bazara. Inor ez da bakarrik salbatzen, isolatutako banako gisa, baizik eta Jainkoak erakarri egiten gaitu giza komunitatean pertsonen artean ezartzen den harreman-sare konplexua kontuan izanda: Jainkoak herri-dinamika batean sartu nahi izan zuen, herri baten dinamikan» (Exhort. ap. *Gaudete et exsultate*, 6). Beraz, hainbeste bizitza bereganatu dituen gaitz honi erantzuteko dugun modu bakarra da Jainkoaren Herri gisa denoi dagokigun eta denok bere baitan hartzen gaituen zeregin gisa hartzea. Herri baten eta baterako historia baten kide sentitzearen kontzientzia horri esker aitortuko ditugu gure iraganeko bekatuak eta akatsak, barrutik berritzeko gai den penitentziazko irekiera gisa. Gure komunitateetatik abusuaren kultura errotik kentzeko zereginak ez ditu eraldaketa egokia eta errealista lortzeko beharrezko dinamikak sortuko, Elizaren kide guztien parte hartze aktiborik gabe. Barauaren eta otoitzaren penitentzia-dimentsioak lagundu egingo digu Jainkoaren Herri gisa Jaunaren eta zauritutako senideen aurrean jartzen, barkamena eskatzen duten bekatari legez, lotsaren eta konbertsioaren grazia eskatzen duten bekatari legez, eta horrela baino ezingo dira egin Ebanjelioarekin sintonian dauden dinamismoak. Izan ere «iturrira itzuli eta Ebanjelioaren freskotasuna berreskuratzen saiatzen garen bakoitzean, bide berriak, metodo sortzaileak, adierazteko modu berriak, ikur argiagoak eta egun mundurako beste esanahi bat duten hitza sortzen dira» (Exhort. ap. *Evangelii gaudium*, 11).

Ezinbestekoa da Eliza gisa minez eta lotsaz aitortzea eta kondenatzea sagaratutako pertsonek, elizgizonek eta zaurgarrienak zaindu eta artatzeko misioa zuten haiek guztiek egindako izugarrikeriak. Eska dezagun barkamena geure eta besteen bekatuengatik. Bekatuaren kontzientzia lagungarria zaigu iraganean egindako akatsak, delituak eta zauriak aitortzeko eta orainera ireki gaitezke eta konpromiso handiagoa hartu berritutako konbertsioaren bidean.

Era berean, penitentzia eta otoitza lagungarriak ditugu gure begiak eta bihotzak sentsibilizatzeko besteren sufrimenduekin eta kalte horien sustraian askotan egoten diren menderatzeko eta edukitzeko nahia garaitzeko ere bai. Barauak eta otoitzak gure belarriak esna ditzala haur, gazte eta ezgaituei isildutako minaren aurrean. Barauak justiziaren gosea eta egarria ekar diezagula eta egian ibiltzera sustatu, beharrezko bitartekari judizial guztietan babestuz. Barauak astin gaitzala eta egiatik eta karitatetik borondate oneko gizon guztiekin eta gizartearekin oro har konprometitzera eraman gaitzala sexu-, botere- eta kontzientzia-abusu mota ororen aurka borrokatzeko.

Gure bokazioa garden bihurtuko da horrela, «Jainkoarekiko batasunaren eta giza genero

osoaren elkartasunaren ikur eta tresna» izateko deituak izan baikara (Kontz. Ekum. Vat. II, Const. dogm. *Lumen gentium*, 1).

«Atal batek min duenean, min dute atal guztiek berarekin» esan zigun San Paulok. Otoitzaren eta penitentziaren bidez exhortazio honekin sintonia pertsonal eta komunitarioan jar gaitezke gure artean errukiaren, justiziaren, prebentzioaren eta ordaintzaren dohaina hazi dadin. Mariak bere Semearen gurutzearen oinetan egoten jakin zuen. Ez zen edonola egon, baizik eta zutik eta bere ondoan egon zen. Jarrera horrekin bizitzan zuen egoteko moduaren berri eman zigun. Elizako zauri hauek eragiten diguten nahigabea esperimentatzen dugunean, ongi etorriko zaigu Mariarekin «otoitz gehiago egitea» (Loiolako Ignazio santua, *Gogojardunak*, 319) Elizarekiko maitasunean eta leialtasunean gehiago hazteko. Maria izan zen lehenengo ikaslea eta ikasle guztioi erakusten digu errugabearen sufrimenduaren aurrean nola geratu behar garen, saihesterik eta koldarkeriarik gabe. Mariari begiratzea da Kristoren ikaslea non eta nola egon behar den jakiten ikastea.

Espiritu Santuak konbertsioaren eta barne oliaduraren grazia eman diezazkigula abusuzko krimen hauen aurrean gure damua adierazteko eta ausardiaz borrokatzeko hartu dugun erabakiaren berri emateko.

*Vatikanoa, 2018ko abuztuak 20*

**Frantzisko**



CURIA GENERALIZIA

# ABUSUEN BIKTIMEN SUFRIMENDUA PARTEKATU ETA BABESAREN KULTURA SUSTATU

LAGUNDI OSOARI, MISIOKO KIDEEI

Adiskide maiteok:

Frantzisko aita santua Jainkoaren Herri osoari zuzendu zaio (misio horretako laguntzaileak gara gu ere) eta hainbeste adingaberen eta pertsona zaurgarriren sufrimendua partekatzeko gonbita egin du sexu-, botere- eta kontzientzia-abusuen biktima izan baitira elizgizon eta sagaratutako pertsona ugarik egin dituztelako abusu horiek eta gure Lagundiko kideak ere egin dituzte -lotsaz eta minez aitortzen dugu-.

Frantzisko aita santuak 2018ko abuztuaren 20an Jaunaren Herriari zuzendutako eskutitzak 36. Kongregazio Nagusiaren agindua berresten du, hau da, Lagundiko maila guztietan lanean jarraitu behar dugula adingabeen eta heldu zaurgarrien babesa eta segurtasuna bermatuko duen kulturaren sustapenean. Agindua berresteaz gain, Aita Santuak aitortu du barkamena eskatzeko egingo dugun oro gutxi izango dela beti, urte hauetan ikasitakotik harago joatera gonbidatu gaitu, "tolerantzia zero" politikez harago joatera, kasuak artatzeko protokoloez, konpontzeko ahaleginez eta prebentzio programez harago joatera. Etorkizunari begiratzeko gonbita egin digu eta sortutako zaurien zergatien ulermenean sakontzeko gonbita, horietan izan dugun parte hartzea edo omisioa aitortzeko eta horiek guztiak eragiten dituzten gizarte egiturak aldatzeko bitartekoak bilatzeko gonbita ere bai. Konbertsio pertsonala, komunitarioa eta instituzionala egitera gonbidatu gaitu, gure bizi-koherentzia zaintzera eta kultura sortzera gonbidatu gaitu, Eliza barruan eta kanpoan gure ekintza apostolikoen iparra izango den kultura sortzera, hain zuzen ere, abusu egoerak errepikatzea saihesteko gai izango den kultura eta gizaki guztien bizitza osasuntsua bermatuko duena.

Aldaketa sakonen prozesua sustatu eta babesaren kultura bultzatzeko, Jesusen ohartarazpen hau hartu du abiapuntutzat Aita Santuak: Gisa honetako deabruak botatzeko bide bakarra otoitza eta baraua da (Mt 17,21). Nahasmena, desilusioa, amorrua, inpotentzia sentsazioa eta nahigabe espirituala ari da sortzen egoera hau Jainkoaren Herriko kide askorengan eta mundu osoko beste hainbat pertsonengan; gure fedea berritu beharra dago, gaur egun ezinezkoa iruditzen zaigunari ateak irekitzeko. Beraz, beharrezkoa da Gogojardunetako lehenengo asteko espirituen dizernimendurako seigarren arauan inspiratzea: Lehen hartutako erabakiak lehorraldian aldatu behar ez ditugun bezala, on da aitzitik norbera bortizki aldatzea lehorraldiaren beraren aurka; on da, halaber, otoitz gehiago egitea, gehiago hausnartzea, sarri aztertzea eta modu egokian penitentziak luzatzea [319]. Has dezagun bide hau Gogojardunetako lehenengo asteko jarrerekin; otoitzaren eta penitentziaren ondorioz

Kristogatik zer egin dezakegun galdetuko diogu geure buruari [53], abusuen biktima izan diren hainbeste adingaberengan eta heldurengan berriro zauritu den bere gorputzaren alde zer egin dezakegun.

Lagundi osoari eta misioko kide guztiei dei egiten diet Frantzisko aita santuaren deiari erantzun nahi dion Jainko Herriarekin identifikatu gaitezen. Gure egiteko moduak Aita Santuarekin modu berezian lotzen gaitu Eliza hobeto zerbitzatzeko. Jar dezagun gure aldetik ahal dugun guztia Elizako egoera hau sendatzen laguntzeko. Aita Santuak bere gutunean gogorarazi digu: Barauaren eta otoitzaren penitentzia-dimentsioak lagundu egingo digu Jainkoaren Herri gisa Jaunaren eta zauritutako senideen aurrean jartzen, barkamena eskatzen duten bekatari legez, lotsaren eta konbertsioaren grazia eskatzen duten bekatari legez, eta horrela baino ezingo dira egin Ebanjelioarekin sintonian dauden dinamismoak.

Jainkoaren Herriaren zati gisa otoitzerako eta penitentziarako egin zaigun gonbita irekitasunez eta sormenez hartu behar dugu: barauak eta otoitzak esna ditzatela gure belarriak haur, gazte eta ezinduengan isildutako minaren aurrean. Barauak justiziaren gosea eta egarria ekar diezagula eta egian ibiltzera sustatu, beharrezko bitartekari judizial guztietan babestuz. Barauak astin gaitzala eta egiatik eta karitatetik borondate oneko gizon guztiekin eta gizartearekin oro har konprometitzera eraman gaitzala sexu-, botere- eta kontzientzia-abusu mota ororen aurka borrokatzeko.

Nagusi gorenei, komunitateetako nagusiei eta obra apostolikoetako zuzendariei eskatzen diet ekimenak sustatzeko bizi ditugun egoera eta testuinguru anitzetan otoitzerako eta penitentziarako estiloa egia bihurtu dadin eta horrek gure bihotzetako eta konpromiso apostolikoetako ateak ireki ditzala adingabeak eta pertsona zaurgarriak babestuko dituen kultura sustatzera dimentsio konplexu guztietan, aita Adolfo Nicolásek 2015eko maiatzaren 18ko gutunean adierazi zigun bezala. Lagundiaren gorputz apostolikoan eta Jainkoaren Herriko beste gorputzetan eta gaitz hau errotik kentzeko hitza emanda dauden borondate oneko gainerako pertsonek hasiko dituzten ekimenak eta ekintzak partekatzera sustatu nahi zaituztet. Elkarrengandik ikasiko dugu horrela eta bultzatu nahi dugun aldaketa kulturalaren prozesua eraginkorragoa izango da horrela.

Estradako Andre Mariaren bitartez “minez eta lotsaz hazitako” Jainkoari erregutzen diogu hainbeste abusuk sortutako sufrimenduagatik eta lagun egin diezagula konbertsio pertsonal eta instituzionalaren egiazko prozesuan eta lagun diezagula ez huts egiten bizitzaren kultura berri bat sustatzeko ahaleginean, non gizaki guztiok babesa, justizia eta bizitza duin baterako baldintzak aurkituko ditugun.

Agur senidekorra Kristogan

**Arturo Sosa, S.I. Nagusi Jenerala**
**Erroma, 2018ko abuztuak 24**
(Jatorrizkoa: gaztelaniaz)





PE 2018/200 – 2018 urriak 23

## ADINGABEEN ETA PERTSONA ZAURGARRIEN BABESARI ETA ZAINTZARI BURUZ

Kide eta adiskide maiteok:

Denok kezkatzen gaituen gai mingarri bat gure bizitzan eta misioan presenteago izateko nahiarekin idazten dizuet oraingoan: abusu mota desberdinen biktima izan diren pertsonen sufrimenduaz ari naiz eta, ondorioz, gure obretan, komunitateetan eta apostolatuetan zerbitzatzen ditugunei eskaini behar diegun nahitaezko babesaz eta laguntzaz.

Gaia oso garrantzitsua da, eta garrantzi hau ez dator fenomeno mediatikoagatik edo denborarekin pasako den modaren baten ondorioz, ezta azaltzen prestatutako jazarpen bat balitz bezala ere; oso ekintza larriez ari naiz -orain ezagunak dira eta asko egiazkoak direla ikusi da- eta gure sentsibilitate handiagoa eskatzen dute ekintza horiek, adingabeak eta pertsona zaurgarriak hobeto zaindu eta babestu ditzagula eta arreta berezia eskain diezaiegula biktimei eta familiei.

Hori dela eta, Frantzisko aita santuak eta Aita Jeneralak duela gutxi gogorarazi digute Elizari eta Jesusen Lagundiari egoera hauei irmo eta Ebanjelioko jarreretatik aurre egin beharra daukagula.

Frantzisko aita santuak abuztuaren 20an Jainkoaren Herriari egindako gutunean eskatu zigun gertaera larri hauei fedetik eta behar adinako buru argitasunarekin egin behar diegula aurre. Fede eta argitasun horrek bultza behar gaituzte biktimen mina aitortzeko prozesuan aurrera egitera; horren ondoriozko erantzukizun pertsonal, instituzional eta eklesialak geure egitera; eta Jainkoak deitzen gaituen eta gonbidatzen gaituen erabateko adiskidantzarako bidean jartzera. Jesusen Lagundi gisa geure buruari gezurra esaten arituko ginateke jokabide deitoragarri hauek Lagundian ez direla egon uste izango bagenu edo gure jarduerak eta instituzioak erabat libre daudela usteko bagenu.

Bestalde, Aita Santuaren gutunetik lau egunera Aita Jenerala Jesusen Lagundi osoari zuzendu zitzaion eta eskatu zien *Nagusi gorenei, komunitateetako nagusiei eta obra apostolikoetako zuzendariei ekimenak sustatzeko bizi ditugun egoera eta testuinguru anitzetan otoitzerako eta penitentziarako estiloa egia bihurtu dadin eta horrek gure bihotzetako eta konpromiso apostolikoetako ateak ireki ditzan adingabeak eta pertsona zaurgarriak babestuko dituen kultura sustatzera dimentsio konplexu guztietan, aita Adolfo Nicolásek 2015eko maiatzaren 18ko gutunean adierazi zigun bezala.*

Bi gutunak irakurtzea lagungarria izan dezakegu arazoaren larritasuna sakonago eta argiago hautemateko. Gure inguruan azaleratu daitezkeen abusu kasuei dagokienez, biktimen sufrimendua kontuan izan eta gure elkartasuna adierazi behar diegu, hori izan behar du gure lehenengo erreakzioa; aldi berean, gutako baten bidez eragin ahal izan dugun mina aitortu eta geure egin beharko dugu. Eta ezinbestekoa da gure esku dauden bitarteko eta tresna guztiak erabiltzea gure komunitateak, obrak eta ministerioak denentzako gune seguruak eta babestuak

izan daitezen, batez ere adingabeentzat eta pertsona zaurgarrientzat.

Eta hala egingo ez bagenu, ez ginateke biktimekin errukiorrak izango eta abusatzaileekin arduratsuak eta irmoak ere ez. Era berean, ezingo ginateke Ebanjelioaren lekuko izan gure bizitzen eta obren bidez, sinesgarritasun osoa galduko baikenuke eta gure ingurukoengan erabateko gaitzustea eragingo genuke.

Espainiako Probintziak urrats batzuk eman ditu orain arte eta neurri batzuk hartu ere bai adingabeen eta pertsona zaurgarrien babes eta zaintza arloan. 2013an, esaterako, hiru agiri egin genituen misioa ongi betetzeko arauzko jarraibide batzuekin: *Jokabide kodea*, *Pastoral ministerioan aritzeko jarraibideak* eta *Adingabeekin jokatzeko modua, jokabide desegokiak saihesteko*. Era berean, Probintzian badugu *Adingabeekin eta pertsona zaurgarriekin sexu-abusuak dauden kasuetako esku-hartzeko protokoloa* (agiri hauek esteka honetan kontsultatu eta deskargatu daitezke: https://jesuitas.es/es/documentos/category/10-documentos-provincia-de-espana).

Gai konplexu hauetarako aita Miguel Camporen aholkularitza kanonikoa dugu eta aita Manuel Gallegok koordinatzen duen Jokabide Onaren *Behaketa Batzordearen* laguntza ere bai. Sektore apostoliko batzuetan urteak daramatzagu (batez ere sektore sozialean eta hezkuntzakoan) prebentzioari eta adingabeen eta pertsona zaurgarrien babesari buruzko trebakuntza ematen. Trebakuntza prozesuko jesuitentzat topaketak eta hitzaldiak antolatu dira gaiari buruz, eta gure espiritualitatearen ikuspegitik barneratu beharko dira. Aurreko ikasturte hasieratik talde espezializatu bat ari da Probintzian arauz bete beharreko (*compliance*) sistemak diseinatzen eta ezartzen komunitateetan eta obretan, delituei aurrea hartzeko eta delituak daudenerako protokoloak izateko. Eta amaitzeko, Probintzian -2019ko Katalogoan agertuko da - *Adingabeak eta pertsona zaurgarriak babestu eta zaintzeko batzordea* sortu da hausnartzeko, aholkatzeko eta egiten dugun bidea ebaluatzeko.

Ohartzen naiz sentsibilitate desberdinak daudela Frantzisko aita santuak eta Aita Jeneralak otoitz egitera hertsatzen gaituenaz eta praktikan jartzera premiatzen gaituenaz. Dena dela, uste dut denok aitortuko dugula abian jarri diren ekimenak eta eman diren urratsak asko eta esanguratsuak izan diren arren ez direla nahikoa, 36. Kongregazio Nagusiak eta 2015. urtetik aita Nicolásek eskatzen diguten bezala gure xedea adingabeak eta pertsona zaurgarriak babestu eta zainduko dituen kultura eraginkorrean bizitzea baldin bada.

Zentzu horretan, Frantzisko aita santuak hau gogorarazi zigun: *Atzera begiratuz gero, inoiz ez da nahikoa egingo barkamena eskatu eta eragindako mina konpontzeko. Aurrera begiratuz gero, horrelako egoerak saihesteko gai izango den kultura sortzeko egiten den guztia ona izango da eta kultura horretan ez da tokirik egongo egoera hauek estaltzeko eta betikotzeko.*

Bestalde, Aita Jeneralak, joan den hilean Bartzelonan izandako Europako Nagusi Gorenen bileran azpimarratu zuen zaintzaren kulturari buruzko hausnarketan sakontzea eta hausnarketa hori haztea oso garrantzitsua dela, eta hor sartzen dira nahiz biktimei entzutea eta laguntzea nahiz adiskidetzea eta barkamena. Hori dela eta, aita John Guiney izendatu du *Adingabeak babestu eta segurtasunerako proiektuaren koordinatzaile* (Aita Jeneralaren gutuna, 2018/18). Aita Guineyk adituen laguntza izango du arau eta prozedura orokorren ebaluazioa egiteko, egungo egoera-mapa egiteko eta babesa areagotzeko jokabide etiko, pastoral, profesional... arloko ildo berrien bidez, gure obra apostolikoak eta komunitateak denentzako ingurune seguruak izan daitezen.



Beharbada askorentzat gehiegizkoa izango da zirkular honetan adingabeak eta pertsona zaurgarriak babestearen beharra behin eta berriro aipatzea, baina ebanjelikoki prestatuta egon behar gara biktimen aurrean erantzuteko eta hainbesteko mina eragiten duten jokabideak saihesteko.

Ez dugu beldurra bide-erakusle, baizik eta ziurtasun bat dugu gidari: bidegabekeria jasaten dutenekin egonez gero, Jainkoak munduan duen minetik gertuago gaudela eta Jesukristok agintzen digun misioa egiten ari garela. “Atal batek sufritzen badu, denek sufritzen dute” (1 Ko 12, 26). Jainkoari eska diezaiogun indarrez eta konfiantzaz bere graziaren bidez lagun diezagula biktimek, Elizak eta Jesusen Lagundiak deitutako zeregin hau egiten.

Besarkada bat eta zuentzat denontzako nire otoitza,



**Antonio J. España Sánchez SJ**
**Espainiako Probintziala**



# INGURUNE SEGURUAREN SISTEMA

## ZER DA INGURUNE SEGURUA?

- Gune seguru bat pertsonek parte hartzeko, garatzeko eta hazteko.
- Eskubideen ikuspegitik eraiki da eta bertan parte hartzen dutenen egiazko beharrei erantzuna eman nahi zaie, dibertsitatearekiko arreta dimentsio guztietan geure eginez.
- Bertako pertsona guztiak ohartzen dira beraien lanaz eta egiazko zaintzarekin eta elkar zaintzearekin duten konpromisoaz.
- Pertsona guztien eskubideak bermatzen dira.
- Eta prebentzio eraginkorra egiten da eta pertsonen integritate fisiko, psikologiko, emozional edo sozialarentzako egiazko edo balizko arriskuzko egoera oro hautematen da, jakinarazten da eta ekin egiten da.
- Barneko eta kanpoko arriskuen azterketa ebaluatzen eta eguneratzen da ingurune honetan eta horiek prebenitzeko, errotik kentzeko, neutralizatzeko edota murrizteko neurriak diseinatzen dira. Proposatutako neurrien eraginkortasuna ebaluagarria izan behar da.
- Babesteko testuingurua baino gehiago izan nahi du gune honek, pertsonen duintasuna sustatu nahi du eta tratu onaren bidez ahaldundu.

Eta komunitatean oinarritutako prebentzio-estrategien dinamizatzaile rola hartzen du, erakundearen jarduteko eremuetatik harago, testuinguru guztia sartuz bere misio babeslean.

## INGURUNE SEGURUAREN SISTEMAREN MISIOA

- Haurrak, nerabeak eta egoera zaurgarrian dauden pertsonak indarkeria mota orotatik babesteko laguntza eraginkorra eskaintzea;
- Eta tratu ona sustatzea pertsona talde hauen guztien artean.

entorno seguro

## INGURUNE SEGURUAREN SISTEMAREN HELBURUAK

- Adingabeei eta pertsona zaurgarriei tratu onaren sustapena eta babesaren kultura sustatzea.
- Espainiako Probintziako Jesusen Lagundiko edozein obratan barneko babes-sistema eraginkorrak ezartzeko eredu bat garatzea.
- Eragile giltzarri guztiak inplikatzea, baita kanpoko erakundeak ere.
- Babesaren eta tratu onaren kulturan aldaketa indartzea.

## INGURUNE SEGURUAREN SISTEMA IZATEKO ELEMENTUAK

- Taldea eta koordinazioa
- Tresnak eta baliabideak
- Prestakuntza
- Komunikazioa
- Hedapena
- Jarraipena, Ebaluazioa eta Hobekuntza (Auditoria)
- Akreditazioa




### A. Ingurune Seguruaren Sistemaren egitura

Espainiako Jesusen Lagundiko obretan Ingurune Seguruaren Sistema ezartzeko, arduradunekin eta koordinatzaileekin maila desberdinetan koordinatu eta elkarri lotutako funtzio batzuk ezarri beharra dago. Sistema horretako giza baliabideen arduradunak hauek izango dira:

**Probintzian**

● Aita Probintziala. Jesusen Lagundiko Espainiako Probintziako arduradun gorena da eta, beraz, Ingurune Seguruaren Sistema abian jartzearen arduradun nagusia ere bai.

● Ingurune Seguruaren probintziako arduraduna. Ingurune Seguruaren Sistemako kudeaketa globalaz arduratzen da Probintzian, nahiz prebentzio alorrean nahiz esku-hartzekoan;

● Ingurune Seguruaren Kontseilua. Jesusen Lagundikoa ez den profesional talde bat izango da Probintzialari eta ISSren Probintziako arduradunari laguntza eskainiko diena zenbait babes-arlotan: juridikoan, kanonikoan, teologiko-pastoralean, segurtasun alorrean, psikologikoan, etab.

● Gainera, babeserako talde batzuk egongo dira, esaterako, prestakuntza taldea, bereziki prestatutako eta trebatutako pertsonekin, Lagundiko obra guztietako langileen eta boluntarioen prestakuntzan lankidetzan aritu ahal izateko. Jesusen Lagundiaren barruko pertsonen diziplinarteko talde bat ere lagungarria izan da, ISSren inguruko alderdi batzuei buruz orientazioa eskaintzeko (komunikazioa, betetzea, administrazioa...).



**Obra bakoitzean**

● Obrako zuzendaria. Ingurune Seguruaren Sistema bere obran ezarri eta eragilea izateaz arduratuko da;

● Ingurune Seguruaren obrako koordinatzailea. Obra bakoitzean Ingurune Seguruaren Sistemaz arduratuko den pertsona da.

● Obrako ISS taldea. Obrako ISSko zuzendariari eta koordinatzaileari lagunduko dio talde honek babes eta zaintza gaiak kudeatzeko (bere neurrien edo ezaugarrien ondorioz egoki iritzitako obretan eratuko da talde hau).

● Ingurune Seguruaren azpikoordinatzaileak langile edota boluntario askoko instituzioetan (adibidez ikastetxeetan eta GKEetan), egoitza desberdinetan instalazioak dituztenetan edota gune desberdinetan jarduerak egiten dituztenetan (adibidez, kanpalekuak), egokia izan daiteke ISSko azpikoordinatzaileak izendatzea gune bakoitzerako, arlo funtzional bakoitzerako (adibidez, zikloko zuzendariak ikastetxeetan) eta jardueretarako (adibidez, bat kanpaleku bakoitzeko) eta horiek izango dira Ingurune Seguruaren Sistema kudeatuko dutenak dagozkien guneetan edo jardueretan eta erreferentziazkoak izango dira balizko susmoak edo komunikazioak jakinarazteko. ISSko azpikoordinatzaileak identifikatuta egongo dira, ISSko koordinatzailea bezala, komunikazio guztietan.

**B. Probintziako Ingurune Seguruaren Sistemako (ISS) arduraduna** Probintzialak izendatuko du eta funtzio hauek izango ditu:

● ISSren kudeaketa ezarriko du probintzian:

>Probintziako gobernuaren izenean ziurtatuko du ISS funtzionatzen ariko dela Lagundiaren Probintziako obra guztietan;

>Funtzionamendu horren ikusgarritasuna bermatuko du Probintziaren (instituzioaren webgunea eta hedatzeko beste jarduerak);

● AHZ babesteko gaiak garatzen lagunduko du nazio eta nazioarte mailan, Probintziak bere obretan zaintza eta praktika hobeak izan ditzan.

>Obretako ISSren koordinatzaile taldearen koordinazioa.

-sistemak probintzian duen funtzionamenduari buruz urteko txosten bat egitea koordinatuko du, obretatik jasotako informazioa oinarri hartuta;

-Urteko topaketak egitea koordinatuko du obretako ISSen koordinatzaileekin partekatzeko eta ebaluatzeko, ebaluazioaren eta hobekuntza jarraituaren logikan;

-Obretan babesari (*safeguarding*) lotutako trebakuntzak aldiro egiten direla ziurtatuko du, eta obrako langile eta boluntario iritsi berrientzako hasierako trebakuntzak egingo dira aldiro.

● ISSko koordinatzaileei babesa emango die eta susmoen eta salaketen tratamenduan lagun egingo die.

>Arduradunei eta koordinatzaileei lagun egin eta babestu egingo ditu, behar izanez gero, obretan susmoak eta salaketak egonez gero; nahitaezkoa da Probintziako Arduradunari jakinaraztea gorabehera larriak edo jesuitek zerikusia dutenak baldin badaude.

>Obren eta Probintziako komunikabideen taldearen arteko lotura izango da, barneko edo kanpoko komunikazio gaietarako laguntza behar izanez gero;

>Gizarte komunikazioa landu behar den bakoitzean, ISSeko koordinatzailearekin eta Probintziako komunikazio-arduradunekin batera egingo du.

- Besteak

Beharrezkoa izanez gero, Aita Probintzialari lagunduko dio jesuitek zerikusia duten egoerak konpontzen, agintari zibilei, tokiko gotzainei eta Erromako Curia Orokorrari beharrezko jakinarazpenak eginaz.

**C.** Obra bakoitzeko **ISSren koordinatzailea edo arduraduna** zuzendariak izendatuko du. Komenigarria da instituzioaren bizitzan gutxieneko esperientzia duenen bat izatea, gehienek zuhurtzia eta aginterako berezko gaitasuna aitortzen dizkiotena eta onuradunekin gertuko harremana duena. Zenbaitetan (adibidez, instituzio txikiagoetan), logikoa izan daiteke ISSko koordinatzailea zuzendaria bera izatea. Kontratatutako langileak dituzten erakundeetan, printzipioz hobe litzateke boluntarioetako bat ez izatea.

1. Pertsona hau, koordinatzailea edo arduraduna esango zaio bere sektorearen arabera, izango da zentroko, obrako edo jarduerako ERREFERENTZIA familientzat, ikasleentzat, langileentzat edo boluntarioentzat balizko sexu-abusuei buruzko edozein kontsulta, susmo edo informazio egiteko.

2. Zentroko edo instituzioko nagusiarekin edo zuzendariarekin koordinatuko da edo jardueraren arduradunarekin. Probintziako Ingurune Seguruko arduradunarekin ere koordinatu beharko da. Probintziako zentroetako edo obretako arduradun edo koordinatzaile guztien urteko koordinazio-bileran parte hartuko du.

3. Jarduteko eta prebenitzeko protokolo guztiak ezagutu beharko ditu, baita ISSren Eskuliburu hau ere.

4. Zuzendaritzari lagunduko dio kasuren bat egonez gero, zentro edo obra bakoitzeko zuzendaritzak antolatutako duen taldearekin batera, dela talde iraunkorrarekin dela egoera bakoitzari erantzuna ematekoarekin.

5. Zentroko edo obrako zuzendaritzari, nagusiari edo arduradunari proposatu ahal izango dio Abusuen eta ISS arloan urtero trebakuntza egiteko, Probintziako Ingurune Seguruko arduradunarekin koordinazioan eta bere instituzioko Sektoreko erantzuleekin edo ordezkariekin batera.

6. Gorabeheren erregistro bat eramango du ISSn Probintziako Ingurune Seguruko arduradunari igortzeko.

7. Bere trebakuntza eguneratuko du abusuei eta ISSei buruz.

Sektore, obra, zentro edo instituzio bakoitzak funtzioak gehiago zehaztuko ditu garatzen dituen jardueren berezko ezaugarrien arabera.

- ISSko Probintziako Arduradunarekin harremana izango du

> Probintziako arduradunarekin harremanetan jarriko da, gorabehera larriak daudelako beharrezkoa den bakoitzean, kudeatzen eta komunikatzen laguntzeko.





> Probintziako arduradunari instituzioko urteko txostenak eta ebaluazioak bidaliko dizkio.

> Probintziako arduradunarekin eta beste obretako arduradunekin bat egingo du eta ISS Eskuliburua ebaluatu eta hobetzeko urteko topaketetan parte hartuko du eta egoki iritzitako trebakuntzak prestatzen ere bai.

- Besteak

> Egoki iritzitako bakoitzean, prestakuntza espezializatuetara joango da sarri.

### D. Langileak eta boluntarioak

Funtsezkoa da instituzioetako ohiko edo noiz behinkako langileek eta boluntarioek ISS Eskuliburua jasotzea eta horren berri izatea, Hasierako Trebakuntzara joatea eta Ingurune Seguruaren Sistema (ISS) ezagutzeko eta bat egiteko konpromisoa sinatzea. Hasierako Trebakuntzan parte hartu beharko dute guztiek eta instituzioak antolatuko dituen trebakuntza jarraituetara joateko prest egon beharko dute. AHZk errespetatzea eta ISS arloan jokabideen kodea betetzea beraien zeregin profesionalaren ebaluazioetan sartu beharko da.

Dakigunez, nahitaezkoa da AHZkin ohiko harremana duten langile eta boluntario guztiek *sexu-delituetatik libre egotearen ziurtagiria aurkeztea obrari*, behar diren zereginetarako egokiak diren ebaluatu ahal izateko. Instituzio bakoitzeko zuzendariaren erantzukizuna da nahitaezko baldintza hau betetzea.

**a) ISSri buruzko jakinarazpenak kontratazioan (boluntarioekin ere ezarri daiteke).**

- Hautagaiekin egingo diren aurre-elkarrizketetan sexu-abusuen gaiari buruz galdetuko zaie modu batera ala bestera. Adibidez, zer egingo luketen norbaitek abusuak jasan dituela edo jasaten ari dela esango balie; edo AHZ baten mezuak jasoz gero. AHZk babestearen gaiari hautagaiak aurre nola egiten dion kontuan izan behar da. Horregatik da garrantzitsua AHZkin lantzea kosta zaion esperientziei buruzko informazioa izatea.

- Legeak hala eskatzen duenez, sexu-deliturik ez duela egin adierazten duen ziurtagiria eskatu behar zaio.

- Jesusen Lagundiko obretako langile eta boluntarioentzako jokabidezko kodea ezagutzen eta onartzen dutela eskatu behar zaie, eta bereziki Ingurune Seguruaren Sistema honen eskuliburu hau.

**b) Ingurune Seguruaren Sistemarako prestakuntza**

***Hasierako prestakuntza***

AHZk babestea gai berria da obretako arduradun, langile eta boluntario gehienentzat eta funtsezkoa izango da Ingurune Seguruaren Sistemari buruzko hasierako prestakuntza-modulu bat izatea. Moduluak zazpi orduko iraupena izango duela aurreikusten da ingurune seguruaren koordinatzaileentzat edo arduradunentzat eta egoki iritzitako iraupena izango du gainerakoentzat. Zati batean azalpenak emango dira eta bestean adibide praktikoak; Ingurune Seguruaren Sistemarekin zerikusia duten pertsonek emango dute modulua.

Langile eta boluntario guztiek prestakuntza hauetan parte hartzeko aukera izatea nahi da. Obra bakoitzak bere langileen eta boluntarioen zerrenda bat izango du, parte hartu duten prestakuntzekin. Urtero Hasierako Prestakuntzaren

edizio berriren bat egotea nahi da, oraindik horrelakorik egin ez dutenak artatzeko eta obran sartu berri diren langile eta boluntario berriek ere egin ahal izateko.

***Prestakuntza jarraitua***

Hasierako prestakuntza eman ondoren. Eskuliburua eta pertsonen prestakuntza aberastuz joango dira egon daitezkeen gorabeheren irtenbideei buruz obra bakoitzean jasoko diren praxiarekin.

Aldi berean, babesari eta zaintzari buruzko alderdiak ikuspegi berrietatik eta gizartean sortutako behar berrietatik tratatzeko beharra dagoen ikusiko da.



## BALIABIDEAK

- Betetze-batzordea
- Prebentzioa: Prestakuntza-taldea
- Esku-hartzea:
  Entzute-batzordeak
  Babes juridikoa (zibil-penala) eta kanonikoa
  Arretarako postontziak
  Komunikazio-taldea
- Dimentsio teologiko-espirituala

## TRESNAK

- Jokabide-kodea
- Protokoloak: jarduteko prozedurak eta jokabidearen gida
- Ingurune Seguruaren Sistemako eskuliburua
- Arriskuen mapak
- Prestakuntza-plan jarraitua
- Barne- eta kanpo-komunikazio plana
- Hedapen- eta sentsibilizazio-materialak

# EZARPEN-EREMUA

**Eskuliburu honen "zergatia"**

Eskuliburu hau ez da tiraderan sartu eta ahazteko. "Bizirik" dagoen materiala da, bertan proposatzen dena ezartzen duzun heinean. Eta "bizirik" dago aldiro berraztertuko baita beharrezkoak direla ikusten ditugun alderdiak hobetzeko, izan ere, gure gizartea etengabe aldatzen ari da eta aldaketa horietara egokituz joan beharko gara.

Ez dugu arau edo muga multzo bat izatea nahi, baizik eta kultura-aldaketa hori erraztuko diguten praktikarik hoberenen erreferentzia, kultura-aldaketa horren ondorioz gure zentro, obra edo jardueretan ingurune seguruak bermatzeko.

Hori dela eta, Espainiako Jesusen Lagundiko zentro, egoitza, obra, instituzio edo jarduera orotan adingabeekin edo pertsona zaurgarriekin harremanak dituen edonork du orrialde hauek arakatzeko gonbita, bertako edukia bizi bihurtzeko.

**Eskuliburu hau "zertarako"**

- Gure inguruko adingabe eta pertsona zaurgarriengana gerturatzeko modua aldatzeko.

- Ingurune Seguruak berma ditzakeen Sistema baten zati sentitzeko.
- Tratu Onaren kultura zehatz eta argi sustatzeko nola jokatu jakiteko.
- Jarrera batzuen ondorioz hainbeste pertsonak jasan dituzten ondorio larriak ahal dela saihesteko edo minimizatzeko.

**NORENTZAKO**

- Zuzendari, nagusi eta Espainiako Jesuitetako arduradunentzako Ingurune Seguruaren koordinatzaileentzako
- Adingabeekin eta pertsona zaurgarriekin lanean aritzen diren Jesuiten zentro eta erakundeentzako
- Ingurune Seguruekin sentsibilizatutako pertsonentzako

**ZERTARAKO**

- Sentzibilizatzeko, sistema sakon ezagutzeko eta jokatzen jakiteko
- Arriskuak identifikatu eta minimizatzeko. Ingurune Segurua indartzeko. Tratu Ona sustatzeko.
- Jasotako prestakuntzari laguntzeko. Kontsultako materiala izateko.



# Zerbitzu gardena eta kalitatezkoa

ngurune Seguruaren Sistema honen helburuetako bat da Espainiako Jesusen Lagundiko zentro, obra edo jarduera orotan egingo den jarduera guztietan erabateko gardentasuna eskaintzea. Hori dela eta, eskuliburua lagungarria da gardentasun hori nola lortu ikusteko.

Baina hori ez da helburu bakarra, baizik eta gure inguruetan kalitatea ere ziurtatu nahi da eta horren ondorioz Tratu Ona izango da ingurune seguru horietako kalitatearen bermea.

Hau guztia horrela izango dela bermatzeko, bi neurri beteko ditugu: Ingurune Seguru ziurtagiria lortu; eta etengabeko barne-ebaluazioaren ondorioz 2022. urtean kanpoko Auditoria bat egiteko prest egon.



# GU GEU SENTSIBILIZATU

## LEHENENGO, GU GEU SENTZIBILIZATU

Zergatik da hain garrantzitsua sentsibilizazioa?

Sentsibilizazioa esatean, estimulu bat aurkeztu hutsaren ondorioz hari erantzuteko prozesuan egoten den hazkundeaz ari gara. Hau da, gero eta aktibazio handiagoko egoerara iritsi, estimulu motaren bat jasotzean.

Hori dela eta, prebentzioaz edo jarduteaz hitz egin baino lehen, gaiaren kontzientzia izatea beharrezkoa da. Kasu honetan are arrazoi gehiago ditugu horretarako, prozesu eta hautemate hauek nekez ulertuko baitira sentsibilizaziorik gabe.

Horretarako, lekukotzak jasoko dira eta biktimaren pertzepziora gerturatuko gaituzten bizipen pertsonaletan sartuko gara.

**2019KO OTSAILEAN MUNDU OSOKO ELIZA KATOLIKOKO ARDURADUNENTZAKO AITA SANTUAK DEITUTAKO BILERAN VATIKANOAN AURKEZTU ZIREN LEKUKOTZA BATZUEN ZATIAK**

Pertsona katoliko batentzat sexu-abusuez hitz egitea da zailena, baina behin kontatzera ausartzen zarenean, nik adibidez, zera pentsatu nuen ezer baino lehen: Eliza Ama Santura joango naiz, han entzun eta errespetatu egingo naute. Lehenengo gezurtia nintzela esan zidaten, atzea eman zidaten eta ni eta besteak Elizaren etsaiak ginela esan ziguten.



Nik badakit zertaz ari diren hizketan han: nola amaitu eta berriro nola hasi eta kalte hau guztia nola konpondu. Lehenengo, gezurrezko barkamenek, behartutako barkamenek ez dute balio. Biktimei sinetsi egin behar zaie, errespetatu, zaindu eta konpondu egin behar dira. Biktimak konpondu egin behar dira, beraiekin egon, sinetsi, lagun egin behar zaie. Zuek arimaren sendagileak zarete, baina salbuespenetan arimaren hiltzaile bihurtu zarete, fedearen hiltzaile. Kontraesan beldurgarria da hori. Jesusek zer pentsatzen ote duen galdetzen diot neure burua, Mariak zer pentsatzen ote duen, bere artzainak ardiak traizionatzen ikusten dituenean. Arren eskatzen dizuet justiziarekin lankidetzan aritzeko, biktimekin kontu berezia izateko.

Izebergaren muturra ari gara ikusten egunero, hau bukatu zela esan nahi du Elizak, baina kasu gehiago ari dira agertzen, zergatik? Minbiziarekin gertatzen dena gertatzen delako; norbaitek minbizia duenean, minbizia osorik tratatu behar da, ez tumorea kendu bakarrik, kimioterapia egin behar da, erradioterapia, tratamenduak egin behar dira. Ez da nahikoa tumorea kentzea. Aita Santuak egin nahi duena entzuteko eskatzen dizuet, ez egin buruarekin baietz eta gero beste modu batera jokatu; eskatzen dizuedan bakarra da, eta Espiritu Santuari eskatzen diot, Elizarengan konfiantza berrezartzen lagun dezazuela, Espiritu Santuari entzun nahi ez diotenak eta hau estaltzen jarraitu nahi dutenak Elizatik joan daitezela, Eliza berria nahi dugunoi tokia uzteko, Eliza berritua eta inolako sexu-abusurik gabeko Eliza nahi dugunoi.



Hamabost urte nituenetik sexu-harremanak nituen apaiz batekin. Hamahiru urtez iraun zuen honek. Hirutan geratu nintzen haurdun, eta berak abortatzera behartu ninduen hiruretan. Berak ez zuelako preserbatiborik edo metodo antisorgailurik nahi. Hasieran erabateko konfiantza nuen berarengan, ez nuen uste ni abusatzeko gai zenik. Bere beldur nintzen. Eta harremanak izateari uko egiten nion bakoitzean, jo egiten ninduen. Berak jo egiten ninduen. Eta ekonomikoki erabat bere mende nengoenez, bere umiliazio guztiak jasan nituen. Eta harreman hauek guztiak nahiz bere herriko etxean nahiz elizbarrutiaren harrera-zentroan izaten genituen. Eta harreman horretan ez nuen senargai bat izateko eskubiderik. Mutilen batekin hasi eta berak jakiten zuen bakoitzean, jo egiten ninduen. Eta hori zen berak niri ekonomikoki laguntzeko baldintza. Nik nahi nuen guztia ematen zidan, nik harreman sexualak onartzen nituenean. Hala ez bazen, jo egiten ninduen.



**53 urte ditut** eta apaiz erlijiosoa naiz. Aurten dira apaiz egin nintzela 25 urte. Jainkoari eskerrak ematen dizkiot. Zerk zauritu nau? Apaiz bat ezagutzeak zauritu ninduen. Nerabea nintzela, konbertsioaren ondoren, apaizarengana joaten nintzen Meza garaian Idatziak irakurtzen ikasteko eta ukitu intimoak egiten zizkidan. Gau bat bere ohean igaro nuen. Horrek zauri sakona egin zidan. Beste gauza batek ere zauritu ninduen, handik urte askora, jada heldua nintzela, gertatu zitzaidanaz hitz egin nion gotzainak zauritu ninduen. Berarekin joan nintzen probintzialarekin batera.

Lehenengo eskutitz bat idatzi nion gotzainari, apaizarekin elkarrizketa izan eta sei hilabetera. Gotzainak ez zidan erantzun eta sei hilabetera nuntzioari idatzi nion. Nuntzioak ulermena eskaini zidan. Gotzainarekin topo egin nuen eta eraso egin ninduen, ni ulertzen saiatu gabe, eta horrek zauritu egin ninduen. Batetik, apaiza eta bestetik, gotzain hau... Zer sentitzen dudan? Gaizki sentitzen naiz, apaiz horrek eta gotzainak ez baitituzte nire eskutitzak erantzun, eta zortzi urte igaro dira jada, eta berak ere ez dit erantzun. Zer esan nahiko niekeen gotzainei? Pertsona hauei entzuteko, hitz egiten duten pertsonei entzuten ikasteko. Norbaitek niri entzutea nahi nuen, gizon hori, apaiz hori nor den eta zer egiten duen jakin zedila.

Bihotz-bihotzez barkatzen diet apaiz horri eta gotzain horri. Jainkoari eskerrak ematen dizkiot Elizagatik, esker onekoa naiz Elizan nagoelako. Lagundu didaten apaiz lagun asko dut.



Sexu-jazarpena jasan dut denbora luzez, ehun aldiz baino gehiago, eta sexu-jazarpen horrek traumak eta oroitzapenak sortu dizkit nire bizitzan. Zaila da bizitza bizitzea, jendearekin egotea, jendearekin konektatzea. Jarrera hau izan dut nire familian, nire lagunekin eta Jainkoarekin ere bai.

Beste lekukotza batzuk:

“Okerra eta izua bereizten hasteko gai nintzen, gertatu zena harreman desegoki bat izan ordez abusuzko harremana zela jakiteko gai, oinazetzen ninduena ez zirela eskrupulu faltsuak ulertzeko gai nintzen, nire oinazearen iturburua nazka zela ulertzeko gai; ni berarentzat izan nendin nire gorputza gaizki tratatzen zuenak sortzen zidan nazka alegia. Derrigortzeko erabiltzen zuen indarkeriaren oroitzapenak, jasanarazten zidan xantaia emozionalarenak, ni presionatzeko erabiltzen zuen sotiltasunarenak, erabiltzen zuen ahots iradokitzailearen oroitzapenak, uko egiten dionean ordaintzean izaten zuen mesprezuarenak, bere indarkeriarenak eta lau haizeetara zabaltzeko arriskurik ezaren ondorioz hartzen zituen arriskuen oroitzapenak konbentzitu ninduten gertatutako guztia kontatzeko beharraz."

*Víctimas de la Iglesia: relato de un camino de sanación* liburuko pasartea.



## FAMILIA GIROKO ABUSUEN BIKTIMEN LEKUKOTZA BATZUEN ZATIAK



«Nik familia barruan jasan nituen abusuak 5 urtetik 17 urtera arte, hari buruz umorea egiteko gai izan nintzenean hasi nintzen gainditzen». **Vicki Bernadet** bere drama pertsonalaz hitz egiten hasi zen 34 urte zituela, baina oihartzuna beste erantzunik ez zuen izan. «Oso haserretu nintzen, abusuak ez baitziren ulertzen, eta erabateko bakardadea sentitzen nuen. Psikologo batek aurrera begiratzeko esan zidan, baina... nola egiten da hori, aurrekoa gainditu ez baduzu?». "**Geratu eta begiratu haur baten begietara**, ikusi helduari nola begiratzen dion, ez dio porrot egin nahi bere gustukoena dela esan dion pertsona horri, beste inorekin egin ez dituen gauzak egingo dizkiola esan dionari. Haurrak berezia dela sentitu nahi du».

Handik denbora batera, «nik egin nuen bezala 9 urtetik 17ra, eginarazten dizuten hori ez zaizula gustatzen ohartzen zara, baina ez dakizu nola esan».

"Badakit ez nituela hiru edo lau urte baino gehiago. Eta mundua nire oinetan nuen. Guraso apur bat arraroen seme bakarra nintzen, eta beraien maitasun-harremana haizea bezala ibiltzen zen batera bestera. Batzuetan elkarrekin, besteetan bananduta. Nire aita etxean bizi zen batzuetan...

Nire ama bakarrik zegoenean, aita ez zegoenean, aitona-amonen etxera joaten ginen bizitzera. Landan bizi ziren aitona-amonak. Toki zoragarria zen, nahi nuen bezala ibil nintekeen eta dena magikoa zen.

Baina beti egon zen zerbait, nahiz eta oso hondoan egon eta tokia magikoa izan, zerbait ez zela ongi egon esaten zidan. Nire barnean zerbait iluna zegoen uste sendoarekin hazi nintzen, nire barnean munstro bat zegoela ziur nekien.

Nire aitona ohitura xumeekiko gizona zen, polizia lanbidez, auzoko guztiek maite eta miresten zuten. Denek esaten zidate bere bilobarik kuttunena nintzela... askoz gehiago ere bazituen arren. Handitan ohartu nintzen zein kuttuna izan nintzen berarentzat.

Bizi osoan desberdina sentitu naiz, inork ez ninduela ulertzen sentitzen nuen... Bizi osoan izan dut beste bat nintzela adierazteko behar



hori. Nire burua "nintzen bezala" erakutsiz gero, mundu osoak ihes egingo zuen ideia nuen beti. Horrela joan nintzen neure sarean katigatzen, mundu guztiaren atseginekoa izan nahian, gauza guztiei baietz esan behar, umoreko egon beti, adiskideen adiskide eta mendeko. Eta barrutik nire arima estaltzen ari zen zikinkeria. Eta begirik itxi gabeko gauak, eta ezer ere ez egiteko gogoa... Osotasuna ez zegoen nire neurrira eginda; hori seguru nekien. Zergatik? Zikina nintzelako, ezertarako balio ez nuelako, porrot hutsa nintzelako. Ikasle bikaina izan nintzen, besteekin harremanak izateko ez nuen itxuraz arazorik izan... baina hala ere, porrota edo frustrazioa

ohikoak zirela sentitu nuen nire bizitza osoan. Zoriontsua, ikaragarria, aintzazkoa... nintzen itxurak egiten nituen. Are gehiago, oso tipo gustukoa nintzen nire bizitzako alor guztietan. Denek nire lagun izan nahi zuten, nigandik gertu egon. Denek maite ninduten... Denek maite ninduten? Ez, ez horixe. Kartoizko Marcelo maite zuten denek, karikatura bat, nik eskaintzen nien irudia maite zuten, zer zen ez nekien nire zerbait hori ezkutatu nahi izaten bainuen. Baina barneko munstroa gero eta sendoagoa zen. Apatiak arima hartu zidan eta nire zuntzik ezkutukoenak jaten ari zen. Gogoan dut okerrena gauak izaten zirela. Jainkoa... nolako beldurra nien gauei eta bakardadeari! Orduan agertzen zen egiazko Marcelo. Larritasunaren krisia, neure buruarekiko gorrotoa... seguru bainago gorrotoa zela. Neure burua gorroto nuen. Ispiluak saihesten nituen, neure burua ez ikusteko. Zinta autoitsaskor batekin estali nuen ispilua nire begien parean, bizarra egiterakoan neure begirada ezin nuelako jasan. Oso bakarrik sentitzen nintzen, erabat noraezean, errudun... eta berriro ere galdera bera. Zeren errudun? Zerena!? Ia kasualitatez (nahiz eta kasualitaterik ez egon) terapiara joaten hasi nintzen. Ia nahi gabe hasi nintzen nire beldurrak, minak, alderik ilunenak, antzinako erruak... aitortzen. Eta bat-batean irudi bat eta izua agertu ziren! Saio hura gaur izan balitz bezala gogoratzen dut. Beste zerbaitez hitz egiten ari nintzela (nahiz eta terapiaren testuinguruan "beste zerbait" ez dagoela jakin), esku bat etorri zitzaidan gogora, oso irudi argia zen. Gerturatzen ari zen eskua zen, min egin behar zidan eskua. Azazkal moztu berriak ikusten nizkion eskuari, bere ahurreko tolestura bakoitza... Eta ez nuen ezer gehiago gogoratu nahi izan. Izuak hartu ninduen, eta medikatu egin behar izan ninduten... Denbora batez ez nuen eskuari buruz pentsatu nahi izan. Ez nuen ezer gehiago gogoratu nahi.



Ez nuen nahi... baina orduan nire amesgaiztoetan agertzen hasi zen. Are okerrago, are egiazkoago egiten zuten beste sentsazio batzuekin batera agertzen hasi zen. Eukaliptoen usaina... kamioi baten zarata... ezin nuen esku hura burutik kendu, nahi arren. Ezin nuen ezikusiarena egin... erotzera nindoan. Erabat. Zeharo erotzera. Baina ez. Berriro ere terapian hasi behar izan nintzen eskuaz hitz egiten, denbora osoan buruan bainuen eskua, eta gainerako sentsazioez ere bai. Orduan jakin nuen terapian sexu-abusuak jasandakoa nintzela. Lazturaren kontzientzia osoa izan nuen. Nork? Nola? Noiz? Eta batez ere... Zergatik? Nire erasotzailearen nortasunaz jabetzeko denbora behar izan nuen. Nire buruak defendatu egiten zuen; ez nuen nire helduaroko begiradaren parez pare jarri nahi. Ez nuen jakin nahi konfiantzarik handiena neukan pertsonetako bat izan zela nire bizitza osoan kalterik handiena egin zidana. Baina hala izan zen. Pixkanaka eskua norena izan zitekeen ohartzen hasi nintzen, aitona-amonen landako eukaliptoen usaina, aitonaren kamioia, aitonaren eskuko eraztuna... Nekez azaldu daiteke nire abusatzailearen nortasuna agerian utzi nuenean nire arimak zuen nahigabea... hura zen desilusioa, hura zen dezepzioa, nire bihotza suntsitu egin zen. Ez dut esku hori baino askoz gehiago gogoratzen. Ez dut egiaz egin zidanaren kontzientziarik. Ezta zenbat iraun zuen ere. Gutxi gorabehera nik hiru urte nituela hasi zen eta zortzi nituela amaitu. Oso zaila da onartzen hastea zu zaindu behar zaituen pertsona hori bera dela bere perbertsioa asetzeko zu erabiltzen zaituena eta sufrikariozko bizitzara kondenatzen zaituena. Oso nekez ulertzen da errua ez dela zurea... Eta behin eta berriro errepikatu beharra duzu. Errua ez da zurea, ez da zurea... eta saiatu arren, erru guztia zuregain erortzen dela sentitzen duzu barne-barnetik. Hain da nekeza zeure burua maitatzea... onartzea... Nolatan maiteko nuen neure burua "argi baitzegoen" ez nuela inoren maitasunik merezi. Hain da zaila sentitzea etorkizuna desberdina izan daitekeela. Hain da zaila ulertzea beste modu bateko bizitza egin daitekeela, beste etorkizun bat izan, zeure zerumuga bat izan. Hain da zaila ulertzea zure bizitza ez dagoela erabat eta erremediorik gabe zapuztuta. Norabidea aldatu, kartak nahastu eta berriro ematea zure esku dagoela ulertzea. Min handiegia da. Gehiegizkoa. Pilatutako nahigabe gehiegi dago. Isilean eta bakardadean igarotako urte gehiegi. Beldur gehiegi izan ziren nire bizitzako gidariak. Besteren erru gehiegi. Laztura handiegia. Gehiegi ez dela erabakitzen duzun arte. Biziraute hutsagatik berriro ere zutik jartzen saiatzen zaren arte. Eta gauzek argiagoak dirudite, ikuspegiak zabalagoa. Eta hemen nago. Zuen artean. Historia hau eta min hau bizkarrean hartuta. Eta nire aurrean dudan bizitza osoarekin. Eta inoiz izan ez nuen itxaropen osoarekin. Jada ez baitut beldurra gidari. Ontzi honen lema hartu



eta neure buruaren kapitaina, lemazaina eta bidaiaria bainaiz.

"32 urte ditut. Ospitale bateko erizaina naiz. **Haurtzaroan sexu-abusuak jasan nituen eta oso zauri sakona** egiteaz gain, nire garapena zaildu dute pertsona legez. Bizipen oso traumatikoak izan dira. 9 urte eta erdi nituenetik 12 urte pasatxora arte **amaren bikotekideak nitaz abusatu zuen**. Iturgin hau aita hil ondoren etorri zen etxera; aita oso gazte zela hil zen eta ama bakarrik geratu zen 6 seme-alabarekin. **Gure konfiantza eskuratu zuen.** Nire amarekiko interesa erakusten zuen

arren, egiaz nire ahizpak eta ni ginen bere interesekoak. **Ordezkaezina bihurtu zen eta familian bere tokia egin zuen.**

Gehienetan honela izaten zen. Amak ohera eraman eta ondo lo egiteko esan ondoren **bera etortzen zen eta erritual moduko bat egiten zuen: ohean nengoela sartzen zen logelan**, kamisoiaren azpitik sartzen zidan eskua bizkarrera eta kilimak egiten zizkidan eta masajea eman bizkarrean, haur guztiei gustatzen zaien zerbait.



Gero ukitzen hasten zen. Gauero berdina izaten zen. **Une horretan gertatzen ziren gauza batzuez oso ongi gogoratzen naiz. Beste batzuez ez horrenbeste, lauso moduko bat dut.** Berak egiten zidanaren eta berari eginarazten zizkidanaren oroitzapen lausoa dut. Harrigarria iruditzen zait eta batzuetan sinetsi ere ezin dut egin, **zalantzan jarri ere egiten dut hura guztia gertatu ote zen.**

**Eskaintzen zidan arreta horien artean bainatzea zegoen.** Izugarri gustatzen zitzaion, eta nirekin bakarrik geratzeko zela uste dut. Amaitzen zenean, bainuontzitik atera, eskuoihalean bildu maitasun handiz eta ohera eramaten ninduen lepoan.

Une haietako oroitzapen argirik ez dut eta **noizbait nirekin bainuontzian sartu eta bortxatu egin ninduela uste dut, susmo hori dut.** Etxean bakarrik geundenen batean izango zen. **Oroitzapen bakarrak daukat, sotoan gertatu zenaren oroitzapenarekin batera.** Oroitzapen guztiak ukituei buruzkoak dira.

Oso nahasita sentitzen nintzen, emozionalki egonkortasunik gabe eta **ez nuen ulertzen abusuak irauten zuen bitarteko bere jokabidea eta ondorengoa ere ez.** Hura guztia gauez egiten zidan berak, egunez ohiko familia baten itxura genuen, heziketa idealista zuena. **Bi bizimodu zeudela zirudien: bata ilunpean eta bestea Eguzkiaren argitan.**

Berak manipulatu egiten ninduen, **pixkanaka bere konplize bihurtzeko. Horrela gordetzen zuen "gure sekretua".** Beste inork ez zekien, berak eta nik bakarrik.

**Gertatzen zen guztia ezabatzen saiatzen nintzen, hurrengo egunean normala izan nendin.** Ahalegin handia egiten nuen, nire ezer ere ez antzemateko. Ikasle ona nintzen eta eskolan ongi nenbilen. Nire gelara ia gauero etorri zen bi urtez eta **bat-batean etortzeari eta nigatik inolako interesa izateari utzi zion. Pubertaroan sartzen hasi nintzenean gertatu zen. Horrek nahasi egin ninduen** eta psikologikoki jota utzi ninduen.

Nire zati batek oroitzapen hauek egia ez izatea nahiko luke. **Lehen ez nintzen oroitzapen horietaz ohartzen. Oso oldarkorrak eta traumatikoak izan ziren eta ezabatu egin nituen.** Abusuetatik urte batzuetara **insomnioa** izaten hasi nintzen; egia esan, inoiz ez nuen ongi lo egin, ez haurtzaroan ez gaztaroan. Mutilekin sexu-harremanak izaten hasi nintzenean, **gizonekin eta sexualitatearekin harremanetan jarri nintzenean, itzal harekin** eta zauri handiarekin **konektatu nuen**. Nire aurka eta nire bizitzaren aurka **jokabide suntsikorra izaten hasi nintzen**. Drogak hartzen nituen eta nire gorputzetik are gehiago deskonektatzen nintzen.





**Baina abusurik okerrena geratzen zaizun erru sentimendua da**: zikina sentitzen nintzen, nire gorputzak nazka ematen zidan, gauza guztien errua botatzen nion. Eta horrela erraza zen nire bizitzako egoera askotan azkenean ni izatea erruduna. **Ez nuen nire burua baloratzen eta ez ninduten baloratzen.** Horrek markatu ditu nire bizitzako egoera asko. Askotan sentitu dut **ez ikusia izatearen sentimendua ere.**

**Asko lagundu dit begiratu, sentitu eta gertatua ordenatzeak**, eta gauza bakoitza bere tokian jartzeak **eta bakoitzari zegokion erantzukizuna emateak**: nire amari dagokiona emateak, nitaz abusatu zuen gizonari emateak, neuri emateak eta nire inguruko pertsonei dagokiena emateak ere bai, esaterako, nire irakasleei zegokiena emateak, inoiz ez baitzidaten galdetu zer gertatzen zen.

Zuhaitz batek argirik ez badu, okertu egiten da argia aurkitu eta bizirauteko, **nire garapenak ere zuzen eboluzionatzeari utzi zion** abusuaren esperientzia traumatikora egokitzeko. **Hori zuzendu egin behar izan nuen.**

**Oraindik ere baditut besteekiko harremanetan sendatu beharreko alderdiak.** Beldur naiz eta ez dakit irekitzeko gai naizen. Zauri bat irekita dut eta horren arduraduna ni naiz, dena dela, konfiantza izan ahal izateko pertsona bat aurkitu beharra daukat, nire haurtzaro traumatikoa nolakoa izan zen kontatzen diodanean ihes egingo ez didan norbait. **Gaur egun, nire beldurrik handiena neure burua babesten ez jakitea da.**




# ZERTAZ ARI GAREN JAKIN

Egoera hauetan gauzak nola egin jakiteko, lehenengo zeri aurre egin behar diogun eta zertaz hitz egiten ari garen jakin behar dugu. Hori dela eta, termino batzuk definituko ditugu eta kategoria batzuk zehaztu ere bai.

## 1.1 DEFINIZIOAK ETA AHZEI EGINDAKO SEXU-ABUSUEN ADIBIDE BATZUK

### 1.1.1 DEFINIZIOAK

Jarraian agiri honetako funtsezko kontzeptuen definizioak daude. Hasteko, AHZ esatean zeini buruz ari garen zehaztuko dugu. Eskuliburuaren lehenengo edizio honetan adingabeek eta pertsona zaurgarriek jasandako sexu-abusuak izango dira ardatz, ingurune seguruak sortzeko behar dugun kultura-aldaketarako lagungarria izango dela uste baitugu errealitate horretan zentratzea une honetan. Beste mota bateko tratu txarrek beraien protokoloak dituzte indarrean zentroetan.

**Adingabeak edo heldu zaurgarriak (AHZ)**

AHZ siglak "*adingabeak edo heldu zaurgarriak*" esan nahi du. Kolektibo horri buruz ari garenean, sigla horiek erabili ditugu gehienetan eskuliburu honetan.

Adingabea 18 urtez azpiko haurra edo nerabea da. Ezgaitasun kognitiboak dituen pertsona ere adingabetzat hartzen da.

"Zaurgarria" kontzeptua pertsona helduei buruz ari garenean erabiliz gero, fisikoki, psikikoki, espiritualki edo psikologikoki erraz zauritu edo kaltetu daitekeela esan nahi du. Pertsonak egoera zaurgarrian egoteko hainbat faktorek dute eragina, hala nola adinak, desgaitasunak, bitartekorik ez izateak, gizartetik kanpo edo desberdin bizitzeak, edo abusuak izateko arriskua egoteak; horien ondorioz, pertsonak ezin du bere burua zaindu eta ezin da kaltetik edo esplotaziotik babestu. Zaintza medikoak edo terapeutikoak behar dituen pertsona ere "*zaurgarria*" dela esaten da; era berean, bizitzako hainbat faktoreren ondorioz pertsona errazago manipulatu edo erabili daiteke edo abusatu egin daiteke (abusatzailearekiko mendekotasun fisikoa, emozionala edo ekonomikoa; botere egoera abusatzaileak, ageriko desberdinkeria; biktimaren "porrot bital" egoera, "mendekotasun" harremana...).

**Sexu-abusua**

Sexu-abusuaren barruan kategoria hauek bereizten dira:

>*Sexu-abusua.* Edozein motako elkarrekintza pertsonala, haragizkoa edo gabea, harreman fisikoarekin eta gabe, indarkeriarik edo intimidaziorik gabe egina eta baimenik gabea. Hauek izan daitezke: sarketa baginala, ahokoa eta uzkikoa, behatzak sartzea, laztanak edo ahozko proposizio esplizituak.

>*Haurren sexu-abusua. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 2001ean* emandako definizioaren arabera "haurren sexu-abusua (HSA)

da adingabe bat erabat ulertzen ez dituen sexu jardueretan sartzea, jarduera horiei buruzko baimen informatua emateko baldintzetan ez dagoenean edo jarduera horietarako oraindik behar adina helduta ez dagoenean eta baimena emateko ere ez edo legeez edo gizarteko mugez haragoko sexu-jardueretan sartzea. Haurren sexu-abusua adingabe baten eta heldu baten edo adingabe baten eta bere adinagatik edo garapenagatik erantzukizun, konfiantza edo botere egoeran dagoen pertsona baten arteko jardueretan gertatzen da. Jarduera hauen xedea bestearen beharrak asetzea da edo besteari atsegin ematea eta honakoak izan daitezke, besteak beste: AHZ bat legez kanpoko eta edozein motako jarduera sexualetan sartzera bultzatu, AHZ esplotatu prostituzioaren bidez edo legez kanpoko beste sexu praktiken bidez eta AHZ esplotatu material eta erakusketa pornografikoak egiteko".

>*Sexu-agresioa*. Edozein modutako harreman fisikoa, haragizkoa edo gabea, indarkeriarekin edo larderiarekin eta baimenik gabe.

>*Exhibizionismoa*. Harreman fisikorik gabeko sexu-abusu mota bat da. Harreman fisikorik gabe organo sexualak edo jokabide sexualak erakustea.

>*Haurren sexu-esplotazioa*. Haurren sexu-abusuaren mailetako bat da eta abusatzaileak onura ekonomikoa nahi izaten du; haurren prostituzioa eta pornografia hemen sartzen dira. Haurren sexu-esplotazioan kontuan izan beharreko mota bat baino gehiago daude, ezaugarri eta eragin desberdinak baitituzte: haurren sexu-trafikoa, haurren turismo sexuala, haur-prostituzioa eta haur-pornografia.

Definizioan adierazten den bezala, adingabeen eta heldu zaurgarrien sexu-abusua hiru mailako abusua da: sexu-, botere- eta konfiantza-abusua da.

>Adingabe bati egiten zaion *sexu-abusua* pertsona heldu baten eta adingabeko baten arteko sexu-elkarreragina da. Dena dela, nerabe batek ere egin ditzake sexu-abusuak adingabeekin (biktimaren eta abusatzailearen artean bost urteko aldea). Sexu-indarkeria hau kontaktuarekin edo gabe gerta daiteke. "Kontaktuarekiko" elkarrekintza sexuala esatean ukitzeko modu guztiez ari gara, adibidez, gorputzeko zati intimoak ukitzea, sarketa, masturbazioa. "Kontakturik gabeko" elkarrekintza sexuala adingabea ukitu gabe egiten den abusua da, adibidez, pornografia ikustera derrigortu, voyeurismoa edo exhibizionismoa.

>*Konfiantza-abusua* sexu-abusuari lotuta dago, izan ere biktima ezagutzen duten pertsonek egiten dute edo adingabeak edo heldu zaurgarriak konfiantza duen pertsonek. Abusu hau sexu-abusuaren aurretik edo aldi berean gertatzen da.

>*Botere-abusua* ("egoera menderatzailean egoteagatik abusua") egoten da pertsona batek bere botere-egoera erabiltzen duenean AHZ bat menderatzeko edo AHZren borondatearen aurka sexu arloko mesederen bat lortzeko. Bi irizpide izan behar dira kontuan hemen:

- *Hertsadura*. Erasotzaileak bere botere-egoera ("egoera menderatzailea") erabiltzen du adingabearekin edo heldu zaurgarriarekin elkarrekintza sexualean aritzeko.
- *Adin-asimetria*. Erasotzailea biktima baino askoz nagusiagoa da, eta litekeena da biktima adinez nagusia ez izatea. Funtsezkoa da sexu-abusua soilik pertsonaren sexualitateari dagokion gai bat bezala ez hartzea, baizik eta asimetria horrek eragindako botere-abusuaren ondorioa. Pertsona batek bestearen gain boterea du honek nahi ez duen zerbait eginarazten badio hark, bitarteko bat edo bestea erabiliz: mehatxua, indar fisikoa, xantaia, manipulazioa... Boterea duena biktimaren gainetik dago eta honek ezin du bere askatasuna erabili eta askatasun horretaz gozatu. Garrantzitsua da ulertzea "botere" hori beti ez duela adin-tarteak ematen, baizik eta beste faktore batzuk egon daitezke. Berdinen arteko sexu-abusua ere egoten da eta errealitate horri ezin dizkiogu begiak itxi. Horrelakoetan mehatxuak edo sedukzioa dagoela gertatzen da hertsadura, baina adin-tartea oso txikia izan daiteke edo adin berekoak izan daitezke. Asimetria hori garapenaren arlokoa izan daiteke, hau da biktimaren eta erasotzaileren arteko garapen fisikoan eta heldutasun, kognizio eta sexu arloko garapenean asimetria egon daiteke eta horrek autonomia eta askatasuna kendu AHZren erabakitzeko gaitasunari. Dena dela, sexu-abusua litzateke.

## 1.1.2 AHZei EGINDAKO SEXU-ABUSUEN ADIBIDE BATZUK

Harremanik gabeko sexu-abusuak izan daitezke:

- Bere genitalak erakustera behartzea.
- Beraiei erakustea:
  - Gorputz biluzi bat.
  - Beste norbait masturbatzen, sexualki kitzikatzeko.
  - Material pornografikoa.
  - Beste AHZ, haur edo nerabe bat sexualki abusatzen.
  - Beste pertsonen sexu-ekintzak....

Harremanarekiko sexu-abusuen adibideak izan daitezke:

- Baimenik gabe ukitzea, laztantzea (arroparekin edo gabe) edo musu ematea.
- Ahotik, baginatik edo uzkitik sartzea objektuak edo abusatzailearen sexu-organoak.
- Haien sexu-organoak ukitzea, estimulatzea edo erabiltzea.
- Abusatzailearen sexu-organoak ukitzera edo erabiltzera behartzea.

## 1.1.3 ERREALITATEKO DATUAK

Atal honetan datu batzuk aurkezteaz gain, 1. eranskina aipatuko dugu, Eranskin horretan sexu-abusuei buruz dauden mitoak baitaude eta errealitateko datu batzuekin alderatu dira, jarraian aurkeztuko duguna osatzeko. Haurren abusuari gehiago begiratuko diogu, gaur egun abusu horri buruzko informazio argiagoa baitugu, heldu zaurgarrien aldakortasuna handia delako.

**Haurren sexu-abusua** (HSA) kontzeptuak sexualitatearen abusuzko eta bidegabeko erabilera

izendatzen du. Haur baten eta pertsona heldu baten arteko sexu-harreman egokirik ez dagoela uste du eta horrelako ekintza baten erantzukizun osoa pertsona helduari egozten dio.

**Pertsona abusatua**: Kontsultatutako pertsona guztiak bat datoz puntu batean: profilak ez dira erabilgarriak eta ez dago profilik. Adingabe guztiek jasan dezakete abusuren bat, hori ez baitago haien mende, haien ezaugarri jakin edo berezitasun baten mende, inolako ezaugarri pertsonalen mende. Aurrerago ikusiko dugunez, arrisku-faktore batzuk egon daitezke adingabearen inguruan eta abusuak egotea erraztu dezakete, baina ez dira erabakigarriak -faktore horiek ez dute nahitaez abusura eramaten- eta ez dira banakoaren kualitate edo jokabide pribatiboen erantzunak inondik ere.

Haurtzaroan eta nerabezaroan abusuak jasateko behar den baldintza pertsonal bakarra adingabea izatea da, eta beraz, helduen munduarekiko mendekotasuna izatea. Abusuaren arduradun bakarra pertsona abusatzailea da.

**Pertsona abusatzailea**: Abusua egiten duenari dagokionez, profilek ezer gutxirako balio dutela esaten da. Ziur esan daitekeen bakarra da biktimario gehienak gizonezkoak direla, hau da, %90 edo gehiago dira gizonak.

Abusuak egiten dituzten pertsonak burutik gaixo daudela esatea, ez da egia. Egiten dutenaren erantzuleak dira, baita egiten ari diren kaltearen noziorik ez dutenean ere, dela inkontzientziagatik dela autojustifikatzeko beharra dutelako.

Ohikoa da, halaber, abusatzailea bera abusuen biktima izan zela pentsatzea ere. Kasu batzuetan gerta liteke hori, batez ere jokabide hau harremanetarako jarraibide gisa normalizatu denetan, baina ez da kausa-efektu lotura zehatzik egoten eta ez da ohiko jarraibidea izaten.







## 1.2 ABUSUAREN PROZESUA

Abusatzaileen eta biktimen profil argirik ez dagoen arren, badirudi abusuaren zikloa adierazten duten urrats batzuk ematen direla. Pertsona (AHZ) egoera desberdinen ondorioz, adingabea delako edo ezagutza eta botere txikiagoa duelako, ahul edo gutxiagotasun egoeran dagoelako, une zaurgarrian egon daiteke edo oraindik heldu gabeko ezaugarri pertsonal batzuk izan. Abusatzailea horretaz ohartu egiten da eta orduan jartzen du bere fokua balizko biktimarengan. Eta pixkanaka helburuarengana gerturatzen hasten da. Konfiantza lortzeko, lehenengo **limurtzeko fasea** egoten da, abusatzailea oso atsegina da, biktima bere kuttuna dela adierazi dezake, oso gertukoa eta abegitsua izan daiteke, mezu positiboak igorri eta biktima artatuta, maitatua eta onartua sentitu eta bien artean harreman oso handia lortu daiteke, orduan hasten da **loturaren fasea**. Biktimaren eta abusatzailearen arteko loturak areagotu egiten dira eta **mendekotasun emozionaleko fasea** egon daiteke, abusatzailearengan erabateko konfiantza egoten da (*nire irakaslea da, nire aitona, laguna, nire katekista da... niretzako erreferentziazko norbait da, maite nauen eta zerbait ona eskaintzen didan norbait*). Eskari "arraro" edo anbiguo batzuk egon daitezke, biktima nahasten dutenak, baina erabateko konfiantza duen pertsona horrengandik datozenak. Lehenengo fase hauek luzeak izan daitezke edo oso azkar igaro ere bai. Baina prozesuaren une honetan "dena prest egoten da" esplotazioa gertatzeko (**Abusuaren fasea**). Biktima, ordea, ez dago prest maite duen norbaiten abusua jasotzeko, norbait horrek baloratu eta maite duela sentitzen baitu. Beldurrak, zalantzak, justifikazioa, erruak... sortzen dira eta abusugileak mehatxatu egin dezake, xantaia egin, manipulatu, beldurtu, biktimari errua bota... gainera, isiltzeko deia egiten da, sekretuan gordetzekoa, abusugileari hala komeni baitzaio eta, zenbaitetan, biktimak erraz onartzen du, lotsari aurre egin beharrik ez baitu horrela, ulergaitzari aurre egin beharrik ez, besteek epaitzeari edo etiketatzeari aurre egin beharrik ez, edo beharbada blokeatuta dagoelako eta bizi duena adierazi ezin duelako isiltzen da. Horrek guztiak **izuaren fasera** eramaten du, biktimaren jokabidea aldatu egiten da, atzera egin eta bere munduan sartzen da edo suminkor bihurtu eta abusuzko joerak sustatzen ditu; litekeena da biziraun ahal izateko zati hori guztia ezkutatzea ere eta beste pertsona bat balitz bezala bizitzea, jasandako episodio horiek guztiak urteetan bananduz, kanpora inolako arrastorik utzi gabe. Aurrerago ikusiko dira biktimarengan horrek guztiak izandako ondorioak.



## ABUSUAREN PROZESUA






## AURREA HARTU

Zehaztu ditugun egoera mota horiei aurrea hartzeko, ingurune seguruak lortzeko eragin negatiboa eta positiboa izan dezaketen faktoreak identifikatu beharko ditugu ezer baino lehen.

Orain arte ikusitako guztia gogoan izanda, garrantzitsua da abusu-prozesu hau eragin dezaketen arrisku-faktore batzuei aurrea hartzea, ahal den heinean. AHZ batzuk (beraien bizi-baldintza batzuen ondorioz) abusuak jasateko arrisku handiagoan egoten dira. Beraz, abusuak saihesteko garrantzitsua da biktimen bizitzaren balorazio bat egitea eta arrisku-faktoreak identifikatzea. Hau da, erasotzaileak abusuak egiteko aprobetxatzen dituen faktoreak identifikatzea, sexu-abusu arriskua HAZTEN duten AHZren bizitzako dimentsio berezi horiek identifikatzea.

## ARRISKU FAKTOREAK

### Biktima

Neskatoa izatea
(8 eta 10 aldiz arrisku-faktore handiagoa)

13 eta 16 urte artean izatea

Autoestimu baxua, gizarte trebezietarako tresnarik ez izatea, ahultasun emozionaleko unea izatea, zailtasun kognitiboak edo buruko osasun arazoak izatea...

### Familia

Beharbada abusuak egin ditzaketen gertuko familiakoak daudenean edo tutoretzak ez duenean behar bezala jokatzen, arazo ekonomikoak daudenean edo familiako kideren batek osasun arazoak dituenean eta ondorioz AHZ okerrago artatuta egon daitekeenean, balizko abusugile baten zaintza "izun" edo iruzurtien mende erortzeko arrisku handiagoa egon daiteke.

## Gizarteko ingurua

**baliabiderik ez, gizarte-gatazkak, bazterkeria, mendekotasun fisikoa, ekonomikoa edo emozionala besteekiko. Patriarkatu handiko inguruneak, desberdintasunak sortzen dituztenak. Ingurune txarrak, jokabidean eragina duten alkohol edo drogen kontsumoa dagoenak edo pornografia erraz eskuratu daitekeenak...**

## Besteak

**ALKOHOLA ETA DROGAK**
**Alkohola ez den arren sexu-abusuak egiteko aitzakia, abusatzailearen inhibizioa murriztu egiten du eta abusuak egiteko "balorea" ematen dio.**

**PORNOGRAFIA**
**Adingabeei adin goiztiarrean irudi edo praktika sexualak Irakutsiz gero, hala nola masturbazioa, hipersexualitaterako joera garatzeko arrisku handiagoa izaten dute.**

**PANDILLA EDO BANDETAKO KIDE IZAN.**
**Batzuetan talde horietako kide izateko "hasierako errituren" bat egin behar izaten dute. Erritu horien artean dago neskak "pandillan" bortxatzea".**

## KULTURALAK

**"Kulturalak" izena jarri diegu, munduko toki guztietan berdin ulertzen ez direlako. Horietatik guztietatik bi kontuan izatea komeni da, zailtasun handiagoa baitute haurren sexu-abusuari aurre egiteko: kolonialismo intelektuala eta erlatibismo kulturala.**

**Adibide gisa gizarte bateko egitura patriarkala jar dezakegu. Ikertzaile askok salatu dute elementu hau adingabeen sexu-abusurako arrisku-faktore nagusienetako bat delako. Baina baieztapen hau kultura batzuetan onartzea zaila da, talde batzuek gizonezkoak gizartea babesteko faktore gisa baitituzte. Hori dela eta, faktore hau bereizteko saio oro kolonialismo intelektual bezala hartua izan daiteke edo politikoki sustatutako ikerketa bezala, kokapen pertsonala beste motibazioetatik libre dagoela uste izanda. Aurkako erreakzio handiak egon daitezke, batzuek pentsa baitezakete beraien kultura estigmatizatzen ari direla. Sistema patriarkala nagusi dela kultura batean edo bestean esatea eta kultura jakin horretako pertsona guztiek emakumeen eta neskatoen gain boterea izan nahi dutela esatea ez dira berdinak. Dena dela, ikerketa batzuk alde batera uztea soilik politikoki motibatuta egon daitezkeela uste delako tranpa bat da, erlatibismo kulturalaren forma bat delako.**



Dena dela, balizko arrisku-egoerak hauek egon arren, babesteko balizko faktoreak ere identifikatu behar dira, AHZk ingurune segurua izango duela bermatzeko. Gizarteak eta elizek AHZ guztien testuingurua eta ingurua artatu behar dituzte sexu-abusuetatik hobeto babesteko eta familiei, komunitateei, parrokiei eta elkarteei lagundu ingurune seguruak izaten. Babesteko faktore hauek AHZren bizitzako berariazko dimentsioak dira eta sexu-abusuak izateko arriskua murrizten dute.

AHZentzako ingurune seguruak sustatzen dituzten faktoreak dira.

# BABESTEKO FAKTOREAK

SUSTATU ETA GARATU

## AHZREKIN ZERIKUSIA DUTEN FAKTOREAK

**Autokontrolatzeko** gaitasuna, AHZri lagundu bere emozioak eta beharrak kudeatzeko eta aurre egiteko mekanismo osasungarriak garatzen.
Erlazionatzeko gaitasuna, AHZri lagundu bere atxikimendu-loturak eta **gizarteko gaitasun** osasungarriak garatzen bere autonomiaren eta kide izate harremanaren artean oreka lortzeko.
**Ebazteko** gaitasuna, AHZri lagundu eguneroko bizitzarako eskumenak garatzen berariazko gaitasunak lortzen, hala nola esploratzeko, elkarrizketak izateko, negoziatzeko, gatazkak ebazteko, erabakiak hartzeko... gaitasunak.
**Jarduera positiboetan hartu behar du parte**, hau da, AHZk parte har dezakeen eta bere trebakuntza, garapena, ongizatea eta gizarte-gaitasunak sustatuko dituen oro, esaterako, kirola, musika, sormen-guneak, etab.
Elementu hauei esker AHZk bere autoestimua garatuko du eta bizitzan xederen bat izatearen zentzua ere bai, bere buruarengan konfiantza handiagoa izango du eta beste gaitasun batzuk ere garatuko ditu. Faktore positiboak dira horiek guztiak, beren buruak baloratuta edo kontsolatuta sentitzeko arreta besteengan bilatzea saihesten dute eta ez dira hain zaurgarriak izaten.

## Relacionados con las familias

**AHZren inguruneko lanak seguruak izateko TRESNAK EMAN**

**Familiako kideei lagundu behar zaie HEZIKETA EGOKIA GARATZEN**

**Gurasoaren edo arduradunaren edo zaintzailearen ONGIZATEA**

**Oso garrantzitsua da arreta berezia eskaintzea AHZk bere parekoekin dituen harremanei eta gune positiboak eta osasungarriak sustatzea.**

**"AHZk BABESTEKO MODURIK HOBERENA AHALDUNTZEA DA, BERAIEN BURUAK BABES DITZATEN"**

## KOMUNITATE MAILAKO FAXKTOREAK

**BEHARREZKOA DA**

**ESKOLAKO INGURUNE POSITIBOA AHZei tresna intelektualak eman behar dizkie beraien izatea garatzeko.**

**KOMUNITATEKO INGURU POSITIBOA AHZek auzo osasungarria izan behar dute beraien eskubideak errespetatu eta sustatzeko.**

**BIZI-EGOERA EGONKORRA AHZk bizi diren herrialdearen eta zonaren egoera garrantzitsua da.**

### 2.3 TRATU ONAREN KULTURA

Sexu-abusuari aurrea hartzea lan konplexua da, profesionalak ez ezik komunitateko gizarte eragileen esku-hartzea ere behar da zeregin hori garatzeko. Ezinezkoa da abusuen eragina murriztea eta AHZengan dituzten ondorioak arintzea, traturako jarraibide egoki batzuk sustatzen ez baditugu. Hori dela eta, prebentziorako programa guztiak **tratu ona sustatzeko** ikuspegian sartu behar dira.

**Zer esan nahi dugu tratu ona esatean?**

Tratu ona harremanak izateko modu bat da. Bestearengana enpatiatik, ulermenetik, errespetutik, tolerantziatik gerturatzeko aukera da tratu ona eta lege, gizarte eta erlijio mailako berdintasuna bermatzea bizi-ohitura eta -aukera batetik eta ez betebehar edo gizarteko arau batetik. Agertoki hau eraikitzeko, komunitatea eraldatu behar da pixkanaka tratu onaren kulturara, honen ezaugarrietako bat baita bere praktiken kontzientzia hartzea.

Tratu onen abiapuntuan dago zaintza, babes, heziketa, errespetu, enpatia eta lotura afektiboaren arloko beharrei zuzen erantzutea.

Beraz, tratu onean sartzen dira ongizatea sustatzen duten eta bizi-kalitate ona ziurtatzen duten harremanetako eta jokabideko estilo guztiak.

Tratu ona garatu egiten da, ikasi egiten da eta haurtzaroan hasi behar den prozesua da. Adin goiztiarrean tratu onak jasotzea garrantzitsua da, garapen sozio-afektibo osasungarria eta etorkizuneko ikaskuntzak sustatzen baititu eta gainera, zenbait onura ditu arlo neurobiologikoan eta psikologikoan, ondorioz, baita garapen kognitiboan eta sozialean ere.

Batetik, pertsonen gaitasun bati buruz ari gara tratu onak esatean, hain zuzen ere pertsonek beren buruak zaindu eta behar pertsonalei aurre egiteko duten gaitasunari buruz eta bestetik, besteekin harreman afektiboak eta maitasunezkoak ezartzeko gaitasunari buruz. Profesionalen kasuan, azkenengo kontzeptu hau aldatu egin dezakegu eta bestearen, hurkoaren, interes gorena jarri.

AHZekin lana egiten duten pertsonek tratu onaren heziketako eta harremanetako ereduak honela garatzen dituzte:

• Harreman afektiboak ezarriz, baldintzarik gabe onartua izateko harremanak ezarriz, enpatiazkoak, babeserakoak eta errespetuzkoak.

• Harremanetarako eredu osasungarriak eskainiz, koherentzia hezitzailea dutenak, mugak ezartzen dituztenak eta, aldi berean, kritikak eta bat ez datozen jarrerak onartzen dituztenak.

• Babesa eta kontrola eskainiz, banako bakoitzaren aukeretan konfiantza izanaz, banakotasun desberdinekiko errespetua erakutsiz eta autokonfiantza sustatuz.

• Konfiantzazko harremanak sustatu behar dira, komunikazio irekiarekin eta min eman edo deseroso sentiaraz gaitzakeen kideen, hezitzaileen edo edozein helduren edozein jarrera, jokabide edo aipamen guri azaltzeko arazorik gabe.

• Jokabideak kontrolatu behar dira esku-hartze induktibo eta irmoen bidez eta jokabide desegokiak zuzendu behar dira metodo edo estrategia argiekin, arrazoizkoekin eta errespetuzkoekin.

• Heziketa formalaren eta ez formalaren alorrean jokabideak arautzen dituzten arauak erakutsi behar dira afektuzko harremanen markotik, eta modu naturalean eta ohikotasunez gogoratu eta indartu behar dira.

• Familiak eta inguruak jarraibide hezitzaileetara bideratu behar dira, norbere seme-alabak ezagutu eta onartzeko.

• Epe labur eta luzean egon daitezkeen balizko ondorioei buruz hausnartu eta pentsatzen erakutsi behar da eta horrela errealitatearen azterketatik irtenbideak aurkitu modu irekiagoan.

Tratu onaren kultura hau funtsezkoa da Ingurune Seguruak sortzeko, esaten dugun bezala; hori dela eta, atal hau zabaldu egin dugu eta 2. eranskinean praktika onen iradokizunak jarri ditugu.

### 2.3.1 Sustatu beharreko jokabideak, saihestu beharreko jokabideak eta onartu gabeko jokabideak

Ingurune Seguruaren Sistema honen xedea ez da AHZekiko harremanetan dimentsio pertsonal edo afektuzko dimentsio oro formalizatzea edo kentzea. Errespetuzko harrera egitea eta zaintzea funtsezkoa da adingabeen garapen eta hazkunderako eta horrelakorik gabe pertsonen arteko harremanean ez dago zaurgarrienaren edo bazterrean dagoenaren baloraziorik eta integraziorik. Dimisio hau are garrantzitsuagoa da Ebanjelioa baitu inspirazio-iturri eta Espainiako Probintziako Jesusen Lagundiko obrek iturri horri jarraitu nahi diote: hurkoaren zaintza xede duen "misio-zentzua" da, langileak sustatzen dituena eta beraien lana "enplegu" soil baino zerbait gehiago bihurtzen duena eta "misio zentzu" horrek berak animatzen ditu boluntarioak entrega eta "profesionaltasun" berdinarekin. Giza zaintza, harrera eta komunikazioa ezinezkoak dira "gertutasunik" eta "inplikaziorik" gabe. Eta hori da "kalitatearen marka", Espainiako Probintziako Jesusen Lagundiko hainbat instituzio, mugimendu eta jardueretan dagoeneko ikusten dena, eta ingurune seguruaren sistema honek hori elikatzen eta sustatzen jarraitu nahi du.

Ingurune seguruaren sustapenak praktika onak sustatzea eta areagotzea nahi du batetik, eta bestetik, praktika onak ez direnak identifikatu eta ezabatu nahi ditu. Hori dela eta, Sistema hau eta bere eskuliburua ez dira itxiak eta ez daude amaituta, San Ignazioren tradizio onari jarraituz. Obretan ezarriko da eta denon esperientziari esker hobetu egingo dugu, praktika eta egoera desegokiak hauteman, aurreikusi gabeko egoera berriak sartu, multzoan ebaluatu aldiro (obra bakoitzean eta JLEPn) eta irakaskuntza eta praktika berriak proposatu.

Amaitzeko, Sistema honi esker gardenagoa izango da AHZekin laguntzaileek eta boluntarioen duten esku-hartzea eta presentzia. Hitz eta jokabide batzuk, asmorik hoberenarekin egin arren, anbiguoak iruditu daitezke edo salaketa modura jaso. Ari direnek argi izan behar dute esaten eta egiten dutena ez dela haien ebatzi gabeko beharren ondorioa, baizik eta doako zerbitzu desinteresatua eskaintzeko nahiak bultzatuta ari direla. Lagundiaren tradizio sekularrak "zuhurtziaren arau" ospetsua aipatzen du; inork ez dezala egin giro diskretuago batean, denen bistan egin ezin denik[1]. Hala jokatuz gero, esamesak, susmoak edota praktika txarren salaketak eragin ditzaketen egoerak saihestuko dira, nahiz egiaz txarrak nahiz gaizki ulertutakoak, beti ere zaila baita "ez zela halakorik izan" frogatzea eta kalte handia egin dezakete pertsonen, obraren eta JLEPren izen onean, baita Elizarenean ere.

Praktika onak sustatzea, praktika txarrak saihestea eta AHZei eskaintzen zaien zerbitzua gardenago bihurtzea dira jarraian dauden jokabideen ildoa indartzen dutenak eta Ingurune Seguruaren Sistemaren zati dira, beraz, laguntzaile eta boluntario guztiek hitza eman beharra daukate. Jokabide hauek ez dute jokabide-kodearen edukirik kentzen eta obra bakoitzeko gainerako barne-araudietakorik ere ez, osagarritzat hartu behar dira.

#### 2.3.1.1 Obraren testuinguruan eta AHZekiko harremanetan hartu eta sustatu beharreko jokabideak ("jokabide eredu" bat sustatzeko)

**Zentzua duen bizitza sustatu:**

● Bizitzaren ikuspegi errealista, positiboa eta erantzulea.

● Bizi-ohitura osasungarriak, ongizate fisikoa eta mentala sustatuko dutenak.

**Harreman osasungarriak sustatu, integratzaileak eta komunitatea eraikiko dutenak:**

● Heziketa onaren printzipioak hartu (erantzukizuna, puntualtasuna, besteen iritziak eta ondasunak errespetatu, gizarteko elkarrekintzak errespetatu, etab.).

● Ezarritako legeak eta arauak bete, eta horiek betetzea sustatu ahalegin positiboaren eta bidezko zehapen neurriaren bidez; neurri hori lasai eta argi azalduko da.

**Lankidetza eta kiroltasuneko espiritua sustatu:**

● Denak integratu eta parte hartu, desberdintasunari harrera eginaz eta baloratuz.

● Gertutasuneko harreman osasungarriak, irekiak eta seguruak.

● Komunikazio-ohitura irekiak eta gardenak eta gatazkak modu baketsuan konpondu.

**AHZ eta Ingurune Segururen Programa bereziki artatzea sustatu:**

● AHZ bakoitza eta bakoitzaren duintasun pertsonal bortxaezina errespetatu, bere iritziak, interesak, espazio pertsonala, intimitatea, ondasunak eta informazio pertsonalak barne.

● AHZ guztien autonomia eta gaitasuna sustatu jokabidearen eta gaitzeko ekintzen bidez.

● AHZk kontzientziatzeko eta autobabesteko ohiturak sustatu, eta haien aholku- eta laguntza-eskariak artatzeko edota jarraitzeko prest egon.

● Arreta berezia behar bereziekiko AHZ guztiei (bereziki gabezia edo gaixotasun larria dutenei; errealitatea, sexualitatea eta indarkeria ulertzeko mugak dituztenei; komunikatzeko zailtasunak edo gabeziak dituztenei, etab.).

1 Cfr. "Oráculo manual y Arte de Prudencia", Baltasar Gracián, 297. araua: "Ikusiko bagintuzte bezala aritu beti".

● Kontuan izan zaintzaren ardura duen heldua askotan "jokabidearen eredu" dela AHZentzat eta ondorioz, hala jokatu.

● Ingurune Seguruaren Sistemak aldarrikatzen dituen babes eta zaintza arloko kultura, balioak eta neurriak praktikatu, laguntza eskatu zalantzak edo aholku beharra izanez gero, arduradunengana jo susmoak eta salaketak egonez gero eta denekin lankidetzan aritu obran, praktikan jarri eta defendatzeko.

#### 2.3.1.2 AHZekin saihestu beharreko jokabideak eta jarrerak ("desegokiak" izan daitezkeenak)[2]

Ohar orokorrak:

● Sexualki anbiguoak, oldarkorrak, umiliagarriak, mehatxagarriak, irainak edo baztertzaileak izan daitezkeen lengoaia erabiltzea eta elkarrizketak izatea.

● Anbiguotzat hartu daitezkeen keinuak eta jokabideak izatea.

● Harreman fisiko anbiguoa edota beharrik gabea (adibidez, derrigortutako besarkadak).

Berariazko jokabideei buruzko jarraibideak:

● AHZ batekin bakarrik egotea (obrak aurreikusi/baimendu duenetan izan ezik, hau da, babes psikologikoa edo pedagogikoa emateko, beraiek eskatutako elkarrizketak badira, jardueren programatutako prestakuntza bada, gaixo dagoelako lagun egiten bazaio, etab.).

● AHZ bat bakarrik eramatea (obrak aurreikusita/baimenduta ez badago).

● AHZ norbere etxera eraman edo haren etxera joan, batez ere hirugarrenik gabe (obrak aurreikusita/baimenduta ez badago).

● AHZen zona berdinean lo egitea (obrak aurreikusita/baimenduta ez badago).

● AHZekin beste egoera batzuetan jartzea eta egoera horiek susmagarriak izatea eta aipamen edota salaketa faltsuak eragitea (obrak aurreikusitako/baimendutako egoeretan izan ezik).

*Dena dela, obrak baimendutako edo aurreikusitako jarduera izan arren, neurriak hartuko dira; hala nola ateak ireki, beira duten guneak erabili, bi heldu egon, etab.*

*Gainera, **kontuan izango dira Espainiako Probintziako Jesusen Lagundiko Jokabide Kodean jasotako jarraibide guztiak eta adingabeekiko harremanetan izan beharreko jokabideez webgunean dauden agiriak**.*

**AHZekiko harremanei buruzko jarraibideak:**

● Obrak zerikusia duen ala ez zalantzan jartzen duten topaketak edo jarduerak (adibidez, AHZrekin jarduerak obratik kanpo, obrak baimendu gabe edo obrak jakin gabe, nahiz eta AHZk edo bere familiakoek edo legezko arduradunek baimendutakoa dela uste izan).

● AHZrekin lotura afektibo edo profesional baimendu gabeak instituzioaren esparrutik kanpo.

#### 2.3.1.3 AHZekin baimentzen ez diren jokabideak ("legez kanpoak" edo "erabat desegokiak" direlako)

**Ohar orokorrak:**

● Esamolde sexualizatuak, oldarkorrak, umiliagarriak, mehatxagarriak, iraintzaileak edota baztertzaileak izan daitezkeen lengoaia erabiltzea, sustatzea edo baimentzea elkarrizketetan.

● Keinu eta jokabide sexualizatuak, oldarkorrak, umiliagarriak, mehatxagarriak, iraintzaileak edota baztertzaileak erabiltzea, sustatzea edo baimentzea.

● Lehentasunezko harremanak edo keinu anbiguoak, esklusiboak, menderatzaileak edo besteetatik bereiztekoak izatea.

● Elkarrizketa eta eduki desegokiko gauzak ikustea (adibidez, izaera sexualekoak, indarkeriazkoak, iraingarriak edo baztertzaileak) dela bertatik bertara dela *Informazio eta Komunikazio Teknologien* (IKT) bidez.

● Harreman fisiko desegoki oro (sexu-harreman/erlazioak barne, baina horiek soilik ez).

Langile edo boluntario batek jokabide "desegokia" edo "baimendu gabea" baldin badu, "barne-intzidentzia" prozesua hasiko da, justifikatuz gero zehapen-prozesu bat edo egoki iritzitako beste bat hasteari kalterik egin gabe.

Irudien erabilerari eta IKTei buruzko jarraipen zehatzagoak 3. eranskinean daude. Egokia da, halaber, AHZek pornografia eskuratzeko modua izan dezaketelako eta horrek jokabide eta ohitura sexualetan izan ditzakeen ondorioengatik, 4. eranskinean garatu den gai horri denbora eskaintzea.

## 2.4 AURREA HARTZEKO JOKAERAK

### 2.4.1 Pertsonekiko prebentzioa. Prebentzio-mailak

Elkar zaintzeko eta denen dartean tratu ona izateko giltzarri batzuk eman ondoren, abusuaren eragina murrizteko esku-hartzeen artean prebentzioa hartuko dugu ardatz. Hainbat mailatako prebentzioak daude:

#### 2.4.1.1 Lehen mailako prebentzioa

Populazioaren oro har (aitak, amak, AHZ, profesionalak, etab.) egiten den esku-hartze oro da eta bere xedea da izateko eta erlazionatzeko modu positiboak sustatzea. Prebentzio-lanik eraginkorrena da, -arrakasta izanez gero- sexu-abusu kasuak murriztu egingo bailirateke. Esku-hartze horietako askotan hainbat programa ezarriko lirateke arrisku-faktoreak minimizatzeko eta lehen adierazitako faktore babesleak indartzeko. Programa horien adibide lirateke:

● Heziketa sozio-emozionaleko programak. Haurrei eta nerabeei lagun eginez gero heziketa sozio-emozionalaren bidez beraien autokontzeptuaren eta autoestimuaren garapenean, seguruago sentituko dira eta

2 "Desegokia" ekintza jakin bat gertatzen den testuinguruari erreferentzia egiten dion kontzeptua da. Jokabide bat "desegokia" izan daiteke pertsonen eta inguruabarren arabera. Adibidez, norbere seme-alabei musu ematea ohera joan aurretik jokabide egokia da, aldiz, kanpaleku batean parte hartzen ari diren AHZei ematea desegokitzat hartu daiteke printzipioz.

balizko sexu-abusuetatik babesten du segurtasun honek.

● Hazkunde pertsonaleko programak. Alderdi pertsonal batzuk indartu beharra daukaten pertsonekin lantzeko, egoera arriskutsuetan edo zaurgarrietan ez egoteko lagungarriak izango dituztenak.

● Sexu-abusuei aurrea hartzeko programak. AHZ bakoitzaren adinari eta eboluzio-mailari egokitutako informazioa eman behar zaie sexu-abusuei buruz; abusu horiei aurrea hartzeko elementu garrantzitsua da informazio hori.

● Heziketa afektibo-sozialeko programak. Kalitatezko heziketa afektiboa eta sexuala mesedegarria izango da norbere sexualitatearen onarpen positiborako, pertsonen arteko harreman orekatuak eta asebeteak sustatuko ditu, balizko sexu-abusuetatik babesteko faktoreak.

● Erabilera digital onak sustatzeko programak. Gaur egun mundu digitalak sexu-abusu mota berriak izateko arriskuak dituenez, erabilera kontzientean, arduratsuan eta seguruan hezi behar da.

● Gurasoen gaitasunak garatzeko programak. Gurasoei lagun egin seme-alabak zaintzen, seme-alabekin erlazionatzen eta seme-alaben hazkuntzan gidatzen lagunduko dieten gaitasunak garatzen. Era berean, prebentzio honetan familia-guneak duen garrantziaz sentsibilizatu behar da eta sexualitatearen ikuspegi osasungarri eta positiboa eskaintzea ahalbidetu.

**2.4.1.2 Bigarren mailako prebentzioa**

Alor honetan "arrisku-populazioa" esaten zaionarekin egiten da lan modu zehatzagoan eta berariaz. AHZ oro sexu-abusua jasateko arriskuan dago, baina egoera jakin batzuetako kolektiboetako adingabeen kasuan, arriskua areagotu egiten da. Hauei buruz ari gara:

● Instituzioetan dauden adingabeak.

● Ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat dutenak.

● Pobrezia edo baliabide gabezia egoeran daudenak, bereziki adingabeak.

● Familia desegituratuetan bizi diren adingabeak.

● Aurrez abusu esperientziak egondako familietan bizi diren adingabeak.

Biztanleria honek sexu-abusuak jasateko aukera gehiago izaten du. Zerrenda honekin nahi da horien egoera balizko abusu batekin ez larriagotzea, baina ez da egokia aurreko horretatik kausa-efektu harremana ondorioztatzea; kolektibo horietako bateko kide izateak ez du esan nahi abusua jasango denik nahitaez. Aurreko ikerketen ondoriozko aukerak dira.

**2.4.1.3 Hirugarren mailako prebentzioa.**

Abusua gertatu denean lantzen da, dela abusugilearekin, berriro egin ez dezan, dela biktimarekin, berriro jasan ez dezan; autodefentsarako jarraibideak eskaintzen zaizkio eta tratamendu eta errehabilitazio eraginkorra izateko aukera ere



bai. Zaila da zeregin honen eta tratamenduaren arteko muga ezartzea, baina askotan biak bat etortzen diren arren elkar osatu dezakete, helburu desberdinak baitituzte eta metodologia desberdinak erabiltzen dituzte.

**2.4.2 Prebentzioa ezarpen alorrean.**

**Ekintzak eta espazioak**

Prebentzioa eskaintzeko, AHZekin ditugun harremanetan eta jarraibidean aurrez adierazitako jarraibideak betetzeaz gain, garrantzitsua da kolektibo honekin egingo diren jardueren diseinua ere; baita jarduera horiek garatzeko gune egokiak kontuan izatea ere. Alderdi horiek guztiak kontuan izanez gero, gure jarduera guztiak ongi definituta egongo dira eta gardenak izango dira, ondorioz, arrisku txikiagoa izango da eta babesa hazi egingo da.

Hori dela eta, Jesusen Lagundiarekin zerikusia dutenekin batera (kontratatuak edo boluntarioak) AHZek ere parte hartzen duten jarduerak egiten diren obra, zentro eta gune guztietan neurri jakin batzuk hartuko dira, adibidez, beirazko ateak egongo dira edo gune irekiak erabiliko dira, besteak beste. Neurri horiek mota askotakoak izan daitezke jardueraren eta jarduera hori egiten den tokiaren arabera eta obra edo zentro bakoitzaren arabera; ondorioz, AHZekin egingo den jarduera bakoitzerako Ingurune Seguruko Arriskuen Mapa diseinatuko da eta Mapa horretan identifikatuko dira jarduera horren balizko arriskuak eta arrisku horiek txikitzeko edo saihesteko egin beharreko jarduerak, emaitzak ebaluatzeko neurri batez gain, hartutako neurriak behar bezala funtzionatzen duela ziurta dezagun.

**2.4.2.1 Arriskuaren mapak**

Ingurune Seguruko Arriskuen Mapa obra bakoitzarena da eta gure eguneroko zereginetako jardueretan egon daitezkeen sexu-abusu arriskuak identifikatu nahi ditu eta erantzuna eman nahi die. Obra bakoitzaren barneko dokumentua da Mapa eta Ingurune Seguraren Sistemaren hasierako ezarpenean egin beharko da, aldiro eguneratu beharko da (adibidez, sistemaren urteko ebaluazioan) eta hazi egingo da (hau da, aurreko azterketetan identifikatutako arriskuak ez dira kenduko).

Arriskuen Mapa egiteko modu bat baino gehiago daude eta Mapa egiteko eta eguneratzeko moduan esperientzia hartzen joango da obra bakoitza. Mapa hauek egitearen alderdirik garrantzitsuena da Mapak egindakoan arrisku-egoera larrienak edo zerbait gertatzeko arriskurik handieneko egoerak identifikatuta eta minimizatuta edo kenduta egotea, dagozkien neurriak hartu direlako.

Arriskua ebaluatzeko irizpide orokorretako batzuk hauek izan daitezke:

1. Jardueran bertan eta jarduera egiten den tokian egon daitezkeen arriskuak identifikatu.
2. Arriskuan nor dagoen, nor eta nola kaltetu daitekeen identifikatu. Talderik zaurgarrienei arreta berezia eskaini.
3. Kaltetzeko egon daitezkeen aukerak identifikatu.
4. Kaltearen ondorioak identifikatu (txikienetik larrienera edo erabatekora). Arriskurik larrienek premiazko arreta behar dute.

5. Arriskua mugatzeko edo murrizteko abian jarri beharreko kontrolak edo jarduerak identifikatu.

Irizpide orokor hauez gain, 4. eranskinean metodologiaren balizko eredu dago, egin ahal izateko.

Arriskuen Mapa aldiro berraztertu beharko da, batez ere jarduera aldatzen bada edo berria bada. Identifikatu diren arrisku-egoera berriak gehitu behar dira eta abian jarri beharreko babes-neurri berriak ere bai (eta behar izanez gero, identifikatutako neurriei buruzko egoerak eguneratu). Azterketan parte hartzeko zenbat eta pertsona gehiago gonbidatu, are eta osoagoa izango da emaitza, beraz, prozesuan parte hartu behar dute laguntzaileek, boluntarioek, AHZek eta hauen familiakoek edo legezko arduradunek. Argi dagoenez, ez zaie arrisku guztiei aurrea hartuko eta denak kendu ere ez dira egingo, baina Arriskuen Mapa egitea eta eguneratzea lagungarria izango dela espero da obra bakoitzak zerbitzatzen dituen AHZk gero eta hobeto zaintzeko eta babesteko.

### 2.4.2.2 Ezohiko ekintza guztietan kontuan izateko gaiak

Esan dugun bezala, obrako Arriskuen Mapa elementu garrantzitsua izan daiteke arrisku egoerak (abusuak eta praktika onik eza) identifikatzeko eta murrizteko edo kentzeko obra baten egunerokotik, guneetatik eta ohiko jardueretatik. Kontua ez da obrak jada indarrean dituen beste zaintza eta prozedura batzuk ordezkatzea, baizik eta osatzea eta aberastea.

Ezohiko jarduerek oso eraldatzen dituzte obran identifikatutako arrisku-egoerak eta horregatik gomendagarria da ezohiko jarduerak planifikatzean berariazko Arriskuen Mapa bat egitea jarduera horretarako, aurkeztutako metodologia eta matrizea erabiliz. Ondoriozko Arriskuen Mapa artxibatu egin ahal izango da ondoren, jarduerako gainerako agiriekin batera.

Ezohiko jardueretan kontuan izan beharreko gainerako alderdiei dagokienez, gomendatutako praktika onetan sartzen diren batzuk gogoraraziko ditugu:

Legezko arduradunen edo heziketaren arduradunen idatzizko baimena eta harremanetarakoa lortu eta heldua bada, interesatuarena lortu.

Jarduera egiterako, adingabeari edo pertsona zaurgarriari buruzko informazio guztia lortu, heziketaren arduradunek edo legezko arduradunek emango dute informazio hori eta bereziki garrantzitsua izango da AHZk behar bereziak dituenean (kontuan izateko zaintza bereziak, etengabeko harremanak, baimena, zaintza intimoetarako jarraibideak, etab.).

- Jarduerako partaideen zerrenda.
- Monitore kualifikatuak egon, behar bereziekiko AHZri lagun egiteko eta integratzeko.
- Garraioen antolaketa segurua.
- Igaro beharreko gauen antolaketa segurua.
- Partaide eta monitore guztientzako asegurua.



- Gidaliburu bat eta lehen sorospenetako botikin bat.
- Prozeduren gidaliburu bat eta larrialdietarako harremanak (bereziki instituzioko arduradunekin eta adingabearen edo pertsona zaurgarriaren legezko arduradunekin harremana).
- Istripuen txostena.

**Azterketa-maila[1]:**

**Jarduera-eremua/programa:**

| Arrisku-egoera | Azalpena[2] | Sailkapena | Hartu beharreko neurriak |
|---|---|---|---|
| | | Aukera Eragina | Xedea[3] Azalpena |
| | | Egiaz[4] Agian[5] Larritas[6] | |
| | | | |

1 Erakundea edo programa.
2 Non, noiz, nork, zein unetan…
3 Arriskua errotik kendu (erabateko prebentzioa); Arriskua minimizatu; Arriskua txikitu.
4 Oso sarri /sarri / gutxitan / oso gutxitan.
5 Oso gertagarria / gertagarria / gertatzeko aukera gutxi / gertaezina.
6 Oso larria / larria / larritasun txikikoa.





# ESKU HARTU

## 3. ESKU HARTU

Abusu egoerei aurrea hartzeko zer egin daitekeen ikusi ondoren, balizko babes-gabezia egoera bat egon daitekeela edo egiaz badagoela uste dugunean nola jokatu ere jakin behar dugu. Egoera hauetan egoki jokatzen jakitea funtsezkoa da, nahiz biktimaren eta bere ingurunearen segurtasunerako, nahiz egin beharreko prozesuaren eboluzio egokia bermatzeko gure jarduerek.

Argi dago alderdi asko izan behar direla kontuan, eta horien ondorioz neurri batzuk edo besteak hartuko direla. Kasu bakoitza desberdina da, faktoreen arabera: abusatzailea nor den (boluntarioa, langilea, jesuita edo inguruan zegoenen bat, obratik kanpoko norbait); egindako abusu mota eta biktimarentzat dituen ondorioak; biktimaren adina; etab. Era berean, garrantzitsua izango da nola, noiz eta zer bitartekoren bidez izan dugun balizko kasu baten berri.

Bi une edo prozesu mota bereiziko ditugu: batetik, abusu egoera zuzenean adierazi ez den egoerak izango ditugu kontuan, zantzuak edo susmoak **hauteman** eta **interpretatzeko** dugun gaitasuna erabili izango dugu horrelako gertaeren berri izateko; bestetik, biktimak berak edo lekuko batek edo gertaeren berri duen batek (adiskideren bat izan daiteke, familiakoaren bat edo salaketa bat egon daiteke edo prentsak eman dezake horren berri) jakinarazitako kasuak izango ditugu.

Kasu bietan funtsezkoa da biktimarengana gerturatzea eta **harrera egiten eta entzuten jakin** behar da, horrelako ekintzen biktima zarela aitortzea oso urrats zaila baita. Zentzu honetan, funtsezkoa da informazioa jaso eta erregistratzeko modua, prozesuaren joana eta sinesgarritasuna zehaztuko baititu. Eta jakina, funtsezkoa da nola aritu jakitea, honen berri nori eman eta nora bideratu jakitea, horrelako kasuetan zuzen eta eraginkortasunez jarduteko behar diren zuhurtzia eta diskrezioa mantentzeko.

Esku-hartzearen funtsezko alderdi hauetako batzuk aztertuko ditugu jarraian.

### 3.1. Hautematen eta interpretatzen jakin: zantzuak eta adierazleak

AHZren zantzu edo adierazle fisiko, jarrerazko eta emozional batzuk ezagutu eta interpretatu ditzakegu zenbaitetan, eta prozesu honi Hautematea esango diogu.

AHZekin harremanetan dauden langileek edo boluntarioek askotan beraiekin igarotzen dute egunaren zati handia eta oso egoera onean egoten dira haien arrisku-egoera hautemateko.

Balizko egoera hauek behar bezala hautemateko, sistematikoki ikusi behar dira une eta testuinguru desberdinetan:

- Jarduerak.
- Irteerak.
- Pertsona helduekin eta berdinekin dituen harremanak.
- Itxura (arropa, kolpeak eta zauriak, egoera fisiko orokorra, egoera emozionala...).
- Laguntza.
- Balizko arrisku edo babes-gabezia egoeren berri izan, haien oinarrizko beharrak aseta ez daudenean.
- AHZk komunikazioa zailtzen dion ezgaitasunen badu, funtsezkoa da ez-ahozko komunikazioari begiratzea eta haren jarreran egon ahal izan diren aldaerez ohartzea.

Funtsezkoa da gizarte-zerbitzuekin edo lurraldeko beste administrazioekin partekatzea laguntzaileak edo boluntarioak hautemandako egoera zaurgarriak, familian eta gizartean gertatzen diren ikusteko, goiz hautemateko eta ondorioz, prebentziozko esku-hartzea izateko.

Abusuaren adierazle batzuk ikusteak ez du esan nahi AHZ egoera hartan dagoenik; familiako egoera batzuek ere sintomatologia hori eragin dezakete AHZrengan. Gurasoekin, legezko tutoreekin edo “zaintzaileekin” harremanetan jartzearen beste xedeetako bat da hauek obra edo instituzio apostolikoekin lankidetzan aritzeko duten prestutasunaren berri izatea: kontzientzia maila, irtenbideak aurkitzeko duten inplikazioa, egoera aldatzeko motibazioa edo gaitasuna.

#### 3.1.1 Sexu-abusuaren ikurrak eta adierazleak

Sexu-abusua jasan duen AHZ batek hainbat motako ondorioak izan ditzake epe labur eta luzera. Hori dela eta, balizko adierazle batzuk azalduko ditugu, nahiz eta kontuan izan behar den “sintoma” hauetakoren bat izateak beti ez duela esan nahi abusua jasaten denik, beste zergati batzuk egon baitaitezke, hori dela eta, gure jarduerak oso kontuz egin behar ditugu horrelako zerbait hautematen dugunean. Dena dela, hiperzaintza edo susmo egoeran jarri gabe, adierazle hauek lagungarriak izan ditzakegu.

Bereziki adingabeetan hauteman daitezkeen adierazle batzuk daude 7. eranskinean .

Gainera, biktima batzuek jasaten dituzten ondorio psiko-sozial, emozional, jarrerazko edo fisikoak ere adierazkorrak izan daitezke, abusu egoeraren bat jasan izan ote den sumatu dezakegu eta gu adi jartzeko ikurrak egon daitezke.

### 3.1.1.1 Alderdi psiko-sozialak

Jasan daitezkeen ondorio psiko-sozialetako batzuk:

●Inpotentzia: Sexu-abusuak jasaten dituzten AHZek uste dute beraien borondatea eta duintasuna huskeriak direla abusugilearentzat. Objektu gisa tratatzen dituztela sentitzen dute, haren behar sexualak asetzeko daudela eta horretarako botere-abusua erabiltzen duela.

●Konfiantza galdu: AHZren konfiantza ahuldu egiten da, eta hutsaltasun eta errendizio sentimendua izaten du. Abusua jasaten duten pertsonek askotan uste izaten dute abusuaren aurka ez dutela behar beste borrokatu.

●Isiltasuna: Abusuaren ondorioz ezin izaten dute hitz egin abusua jasaten dutenek. Ez dute ulertzen gertatutakoa eta ezin izaten dute azaldu. Sentimendu anbibalenteak izaten dira eta abusugilearekiko leialtasuna egoten da.

●Erruduntasun sentimendua: Askotan abusuaren aurretik harremana izaten dute abusugileak eta biktimak. Harreman honen ezaugarriak afektua, konfiantza eta mendekotasuna izaten dira. Afektuak eta indarkeria sexualak bat egiten dutenez, nahasi egiten dira eta biktimek askotan abusu horren aurrean erreakzionatzeko zailtasunak izaten dituzte.

●Lotsa: Sexu-abusuak abusatuaren pribazitate zentzua erabat bortxatzeaz gain, abusugileak egindako ekintzak eta jasandako umiliazioa barneratu egiten ditu abusatuak eta bere irudian sartzen ditu.

●Desagertzeko nahia: Sexu-abusuak izan dituzten pertsonek “ikusezin” bihurtu nahi izaten dute edo “desagertu”, abusua eta sufrimendua besteentzako ikusezinak izan daitezen.

### 3.1.1.2 Abusu egoeraren ondorioz agertu daitezkeen sintoma fisikoak:

●Sexu-transmisiozko gaixotasunak.

●Lesioak genitaletan.

●Mina, zurbiltasuna, odola galdu edo sekrezioak genitaletan, uzkian edo ahoan.

●Etengabeko mina edo behin eta berrizkoa pixa egitean eta sabelusteetan.

●Ustekabeko enuresia edo gauetako gernu-ihesa, esfinterren kontrola ikastearekin (komunera joatea eskatu) zerikusirik ez duena.

●Min-koadro zehaztugabeak.

●Urdail-hesteetako gaixotasunak.

●Obesitatea.

● Bihotz-biriketako sintomak eta osasun-egoera kaxkarra.

### 3.1.1.3 Ondorio psikologikoak

Epe laburreko ondorio psikologikoak izan daitezke estresa, nahasmendua edo erreakzio



akutua (shocka). Askotan trauma ondorengo nahasmendua agertzen da epe ertain-luzean eta beste sintoma psikologiko batzuk agertzeko aukera handiagoa ere bai, esaterako:

●Depresioa.

●Bere buruaz beste egiteko pentsamenduak.

●Substantzia estupefaziente gehiegi hartu.

●Antsietate-nahasmendua.

●Trauma osteko estresaren nahasmendua.

●Loaren nahasmendua.

●Elikadura-nahasmendua.

●Sexu-nahasmendua.

### 3.1.1.4 Jarrerazko alderdiak

Sexu-eraso edo -abusu baten ondorioz gizartean izan ditzakeen jarrerazko alderdietako batzuk hauek dira:

●Isolamendua.

●Norbere burua edota besteak eraso.

●Droga edo alkohol abusua.

●Elikadura-nahasmenduak.

●Kontzentrazio-gabezia.

●Erregresioa.

●Jokabide sexualizatua.

### 3.1.1.5 Honen guztiaren aurrean: Nola hauteman dezakegu?

AHZri ikur deigarriak ikusi dizkiogulako, beraiei BEGIRATZEKO deiak izan daitezke:

● AHZren bat-bateko jokabide aldaketak edo anomaliak.

● Bat-bateko errendimendu baxua (akademikoa edo lanekoa) eta ikasteko zailtasunen edo trebezia gabeziaren ondorioz justifikatu ezin dena.

● Aldaketa fisikoak eta animo egoerako aldaketak.

● Jokabide sexual desegokia.

Atal honen hasieran adierazi dugun bezala, kontu handiz ibili behar dugu abusua jasan izanarekin bat datorren adierazleren bat **hauteman** dugula iruditzen gero. Hau da, ikur horiek egoki **interpretatu** behar ditugu, ezer puztu eta dramatizatu gabe, eta aldi berean, ezer txikitu edo ez ikusiarena egin gabe. Seguru ez bagaude, zuhurtziaz eta obsesionatu gabe begiratzen jarrai dezakegu, edo gure zentroko edo instituzioko Ingurune Seguruko koordinatzailearekin edo Ingurune Seguruaren Probintziako arduradunarekin kontsultatu dezakegu. Dena dela, kontu handiz ibili behar dugu informazioaren edo susmoaren berri ematean eta, jakina, pertsona arduradunarekin baino ez da aipatu behar, informazio hori babestuta baitago eta oso sentsiblea baita (Datuen babesari buruzko 8. eranskinean adieraziko denez), beraz, ez da inon partekatu behar modu irekian, ez erakunde barruan ez kanpoan.

Dena dela, komenigarria da horrelakoak errazago esateko baldintzak sortu beharra dago; horretarako, AHZei berariazko heziketa formala eman behar zaie adin goiztiarretatik, adin bakoitzera egokitutako forma eta metodoa erabiliz. Hala eginez gero, AHZk baldintza hobeetan egongo dira baimendu ezin dena ezagutzeko.

### 3.2 NOLA JOKATU JAKIN (HASIERAKO SUSMOTIK ESKU HARTZERA EMAN BEHARREKO URRATSAK)

Adierazle edo ikur batzuk ikusi ditugulako **susmoren** bat izanez gero, edo egiaztatu beharreko zerbait esan badigute, jarduera bat baino gehiago egin daitezke.

**3.2.1** Susmoren bat badugu, ingurune seguruko arduradunari/koordinatzaileari baino ez diogu emango horren berri, hautemandako adierazleak esango dizkiogu, zein urrats eman jakiteko (behaketa zehatzagoarekin hasi eta gaitasunarekiko norbaitek ikerketa hastera arte, zer eta nola ikertu jakiteko).

**3.2.2 Zeharka esan** badigute, aurreko ataleko urratsak eman behar dira, hirugarren baten susmoa delako. Hirugarren horrek esan badu **abusu-egoera baten lekukoa** izan dela, ingurune seguruko koordinatzaileari jakinaraziko zaio, obrako nagusiarekin, zuzendariarekin edo arduradunarekin batera erabaki dezan biktimarekin nork hitz egingo duen jasotako informazioa baieztatzeko eta zein baldintzatan egingo den (heldu arduradunari edo familiakoari jakinarazi, esaterako). Kontu handiko unea eta prozesua da, jarrera ona izateaz gain, "egiten jakin" behar da eta horretarako prest egon.

**3.2.3** Biktimak zuzenean eman badigu abusuaren berri (**zuzenean adierazi**), lasai egon behar gara eta gure beldurrak alde batera utzi, biktimak esaten diguna ENTZUN BESTERIK EZ dugu egin behar eta harrera egin behar diogu, bere hitzak sinetsi egin behar ditugu eta esaten duen hitz bakoitza buruan gordetzen saiatu behar gara, hitzez hitz gordetzeko ahal dela.

Hasteko, gomendio orokor batzuk izango ditugu kontuan.

### 3.3 SEXU-ABUSU EGOERA BATEN BERRI IZANDAKOAN JOKATZEKO GOMENDIOAK

Obra edo instituzio apostoliko batek modu batera edo bestera izan arren balizko abusu baten berri (aurrez esandako edozein modu izan daiteke edo biktimaren familiak esan edo prentsa bidez jakin), beharrezkoa da alderdi batzuk argi izatea, jarduera oro hasi aurretik.

#### 3.3.1. Jokatzeko irizpide orokorrak

● Lehenengo lasai egon behar da.

● AHZren interes gorena babesten saiatuz aritu behar da beti.

● AHZren garapen integrala eta ongizatea larri kaltetu dezaketen egoerei aurrea hartu behar zaie.

● Koordinatuta aritu behar da, elkarrekin partekatutako eta baliozkotzat onartutako jarraibideen arabera.

● AHZri dagozkion erabaki guztietan entzuna



izateko eskubidea bermatu behar zaio.

● Berehala eta bizkor eskaini behar da arreta, esku-hartzean atzerapenik gabe.

● Gutxieneko esku-hartzea izaten saiatu behar da, tratu txar instituzionala saihestu behar da jarduera errepikakorren edo baldintza ez oso egokietan praktikatzearen ondorioz (bir-biktimizazioa saihestu)

● Sexu-abusuaren biktimari balorazioa egin behar zaio, babesa eta esku-hartze terapeutikoa ahalbideratu behar zaio, babes-neurrien mende egon ala ez.

#### 3.3.1.2 HARRERA EGITEN jakin, informazioa BILTZEN jakin, JOKATZEN jakin: Entzun, Erregistratu, Aritu[3]

Datorren atal honetan elkarrizketa batean egin beharrekoei eta egin behar ez direnei buruzko jarraibide batzuk daude.

Egoera bakoitza bakarra da eta ez dago denentzako balio duen formularik. Adituek diote esperientziak asko balio duela eta beldurrik gabe eskatu behar dela laguntza.

Ona da lasai egotea, diskretua izatea eta ez adieraztea bataren edo bestearen aldeko joerarik (susmo eta salaketa batzuk ez baitira egiazkoak izango, nahiz eta asmo onarekin egindakoak izan). Dena dela, biktimaren ongizatea eta segurtasuna eta instituzioarena berarena (duen erantzukizun legalagatik) direla eta, susmo edo salaketa oro ikertu behar da.

Tratu txarrak eta sexu-abusuak dauden egoera guztietan irakasleak AHZri entzun behar dio eta ezin du zalantzan jarri kontakizunaren egiazkotasuna eta behar duen babes osoa eman behar dio. AHZk **harrera egin** diotela sentitu behar du.

Gertatuaren berri eman dion lehenengoak baliteke entzundako hori egia den ala ez ezagutzeko gaitasunik ez izatea. Bere betebeharra da entzutea eta txosten EZ-DIAGNOSTIKO bat egitea. **Jaso besterik ez.**

#### 3.3.1.1 Entzun

Nola egin elkarrizketak?

Kontuan izateko alderdiak:

● Elkarrizketa toki atsegin batean egin behar da, etenik egoteko aukerarik gabe.

● AHZren ondoan eseri behar da (L forman hobe, mahai baten aurrean edo atzean baino).

● Ahots tonu eta tinbre egokiak erabili behar dira.

● Harreman bisuala izan sarri, baina ez etengabe.

● Kontuz harreman fisikoarekin.

● Segurtasuna eta lasaitasuna eman.

3 Keep the Children Safe-n eskuliburuek **ACT** (ingeleseko siglak) printzipioa aipatzen dute: 1) Norbere kezken arabera JOKATU (**a**ct), zalantzak izanez gero beti aurrera egin; 2) AHZ (**c**hildren) izan beti erdigunean, adingabeak babestea baita asmorik garrantzitsuena; 3) DENBORA (**t**ime) garrantzitsua da, ona da erantzun eraginkorra, isilpekoa eta egokia ematea babesaren inguruko gaiei.

| EGITURATU GABEKO ELKARRIZKETAK | EGITURATUTAKO ELKARRIZKETAK |
|---|---|
| AHZk erreferentziazko pertsonari ematen dion bat-bateko informazioa da eta sinetsi egin behar diogu gertaeraren bere bizipena baita. | Balizko kasuen elkarrizketak dira. Abusuen susmoa argitzeko egiten diren galderak dira. |
| Lasai egon behar gara, ez diegu gure emozioei gaina hartzen utzi behar eta AHZ izan behar da gunea, ez dugu epaitu behar, ez dugu iritzirik eman behar edo ez dugu bataren edo bestearen alde jarri behar. | Kontu handia izan behar dugu galdera iradokitzailerik ez egiteko, AHZk bestea gustura uzteagatik entzutea nahiko lukeena esan baitezake eta elkarrizketatzaileak bere galderekin AHZri sinetsarazi dakioke gertakari batzuk gertatu direla. |
| AHZri tokia eman behar zaio bere aitorpena egiteko eta bere esperientzia azaltzeko asmoa babestu behar zaio. | Ez hartu gidari gisa aurrez hartutako erabakiak edo abusua gertatu den ustea edo aurreikuspena. |
| Ez atzeratu elkarrizketa. Berehala entzun. | Adi egon beste faktore edo estres egoerei, jokabide deigarrien azalpena horietan egon baitaiteke. |
| Entzute aktiboa egin. Ez egin galderarik, kontakizuna kutsatu ez dadin. | Azalpena behar duten jokabide deigarriak eta garapenaren edo nortasunaren berariazko berezitasunak bereizi beharra dago. |
| Arreta eta ulermena adierazi. | Presakako ondorioak saihestu. |
| Zer gertatu zen kontatzeko esan; ez eten kontakizuna galderekin. Hobe da galderak kontakizuna amaitutakoan egitea. | Ez interpretatu oker AHZren komentarioak. |
| Galderak erabilgarriak dira, baina irekiak izan behar dira (informazio gehiago eskaintzen dute). | Galdera itxiak egin daitezke (berariazko informazioa eskaintzen dute). |
| Elkarrizketan zintzoa izan. Ez egin promesa faltsurik, bete ezin denik (ez agindu inork ez duela jakingo). | Ez iradoki erantzunik gure galderekin. |
| Ez adierazi maila emozionalean oso erasan digunik. | Kontakizuneko kontraesanei adi egon. |



#### 3.3.1.2 Erregistratu

Ezinbestekoa eta garrantzitsua da susmoak, elkarrizketak eta aurkikuntzak ongi dokumentatzea. Hori dela eta, entzundakoa ahalik eta lasterren idatzi behar da eta idatzitako ohar horiek esandakoaren ahalik eta berdinenak izan behar dira (ahal bada, hitzez hitzekoak) eta "ez ahozko" jokabideen berri ere eman behar da (ahotsaren tonua, negarra, begirada iheskorra...), elkarrizketaren data eta ordua ere adierazi behar dira:

- Sinesgarritasuna emateko balizko zehapen prozeduretan, AHZen aitorpenak hein handi batean mantendu egiten baitira behin eta berriro egindako galdeketetan.
- AHZ ahalik eta gutxienetan elkarrizketatuko da horri esker eta ahalik eta pertsonarik gutxienek elkarrizketatuko dute.
- Zerikusia duten beste pertsona batzuk berriro elkarrizketatzea saihestu daiteke edo erasandako pertsonen estresa txikitu.
- Etorkizunean balizko psikoterapia batean sintomen garapenaz zehaztasunak eman ditzake eta aseguru-konpainientzako ebidentzia izan daiteke.
- Erabakirik erabilgarrienak eta erabilgarritasunik txikienekoak zein diren bereizteko.
- AHZk adierazitakoak profesionalek serio hartzen dituzten proba da.

#### 3.3.1.3 Jakinarazi

Edozein profesional edo boluntario helduk du ezagutzen dituen tratu txarren kasuetan zerbait egiteko betebehar sozial, etiko eta legala, sexu-abusu kasuetan ere bai, adingabeen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/96 Lege Organikoaren arabera.

Gertakariaren berri izaten duenaren betebeharra da Zentroko arduradunari jakinaraztea (zuzendaria izaten da arduraduna), prozedura eraginkorrak jar daitezen abian berehalako babesa bermatuko duen beharrezko laguntza eskaintzeko.

Hori dela eta, norbaitek gertatuaren berri emandakoan edo balizko abusu kasu bat egon dela jakitean, berehala jakinarazi behar diogu zentroko edo jarduera horretako arduradunari eta ingurune seguruko koordinatzaileari (balizko abusatzailea horietako inor ez bada) zer informazio jaso dugun, kasuaren arabera egoki iritzitako neurriak hartzeko eta hasierako prozedurarik egokiena erabakitzeko.

Neurri desberdinak hartu daitezke, batzuk aldi berean egingo diren arren: gaitasuna duen norbaitek ikerketa hasi, balizko abusatzailea apartatu, segurtasuna eta beharrezko lehenengo arretak eman biktimari (osasun arreta, poliziala...), gizarte-zerbitzuei edo dagokien administrazioei jakinarazi... **Edozein prozesu hasteko, Ingurune Seguruaren Sistema jarri behar da abian ezer baino lehen**. Sistema honek talde bat du zentro, instituzio edo obra bakoitzean eta Probintziako talde arduradunarekin koordinazioan baloratuko du kasu bakoitzean egiteko hoberena eta prozesua hasteko erabaki egokiak hartuko ditu.

#### 3.3.1.4 Babestu

AHZk zentroan jarraitzen duen bitartean beharrezkoa izango da arduraduna eta kasuan esku

hartzen ari diren zerbitzuetako profesionalak koordinatzea, haren egoeraren berri izateko eta haren jokabideak ulertu eta interpretatzeko; era berean, entzuteko eta euspen emozionalerako guneak eskainiko dira, behar izanez gero.

Hartu diren babes-neurrien ondorioz erasandako pertsona ezin bada zentrora edo instituziora joan, gomendagarria da haren taldekideei azalpenen bat ematea, adinera eta egoerara eta testuingurura egokituta.

Inguruari ere babesa eskainiko zaio, nahiz biktimaren inguruari nahiz ikertuarenari.

### 3.3.1.5 Prozesuaren dokumentazioa

Hasierako ebidentzia eta susmoekin batera segurtasun gabezia sentimendu handia izaten da. Gehienetan abusu baten ondorioz agertu daitezkeen sintomak ez dira berariazkoak izaten eta beste zergati batzuk erabili daitezke azaltzeko, aurrez esan dugun bezala.

Susmoak dokumentatzean, oso garrantzitsua da bereiztea eta banatuta erregistratzea maila faktikoa eta hausnarketako maila.

Kasuaren dokumentazio ona egiteko kontuan izan beharrekoak

Jarduerak amaitzean txosten bat egingo da eta Probintziako Ingurune Seguruaren arduradunari igorriko zaio DBLOren arabera Lagundiko edozein instituzio, zentro edo obratan aurkitutako egoera bakoitza erregistratuta gera dadin; nahiz abusugilearekin nahiz biktimarekin eta bere inguruarekin emandako urrats guztien ondorioak eta jarduerak ere erregistratuko dira, eta gertaerak gertatu diren zentroan emandakoak ere bai. Soilik orduan esango da kasua behar bezala itxi dela.

### 3.4.1 Prozesuaren hasiera

Susmo bat edo salaketa bat egonez gero, koordinatzaileak/arduradunak "hasierako ebaluazioa" egingo du zuzendariarekin batera, jasotako datuak oinarri hartuta (behar izanez gero, eta diskrezio osoz, ikerketa batzuk egingo ditu bere kabuz). Hasierako fase honetan bertan ikusiko da susmo edo salaketa batzuk

| MAILA FAKTIKOA<br>(gertakarien dokumentazio objektiboa) | HAUSNARKETAKO MAILA<br>(hausnarketa pertsonalen dokumentazio subjektiboa) |
|---|---|
| Nola sortu zen susmoa? | Zer erreakzio edo sentimendu eragiten dituzte nigan behaketa horiek? |
| Noiz egin nituen behaketak? | Bada ikusitakoarentzako beste azalpenik? |
| Zer informazio partekatu zuen AHZk nirekin, noiz eta nola? | Nire ustez zer gertatuko zaio AHZri esku-hartzerik ez badago? |
| Zer informazio partekatu zuen hirugarren batek nirekin, noiz eta nola? | Zein neurri hartu behar ditut? |



**KASUAREN DOKUMENTAZIO ONA EGITEKO**
kontuan izan beharrekoak




ez direla egiazkoak eta prozesua itxi egingo da.

Aldiz, kontua zehaztasun handiagoz ikertu eta jokatu beharra dagoela uste izanez gero, urrats hauek emango dira:

1. Delitua egon daitekeen egoera izanez gero, agintari judizialei jakinaraziko zaie (fiskaltza, polizia...) eta hauek hala iritziz gero, zigor arloko prozesua hasiko dute (barneko prozesuarekin aldi berean).
2. Ondorengo gaia da biktimak arrisku-egoeran jarraitzen al duen. Hala jarraitzen badu, obrak ebaluatu behar du egoera tratatzeko gaitasunik baduen. Ikastetxeak eta beste instituzio publiko

### 3.4 JARDUERA NAGUSIAK

## BALIZKO ABUSU KASUA

- hauteman delako
- susmoa dagoelako
- zeharka jakin delako
- zuzenean jakin delako
- posta bidez: proteccion@jesuitas.es

↓

ISSra igorri berehala (obrako zuzendaria edo koordinatzailea) eta sektoreko ordezkariari eta Probintziako Ingurune Seguruaren arduradunari jakinarazi




| HASIERA | EKINTZAK | JARDUERA | JARRAIPENA | ITXIERA |
|---|---|---|---|---|
| Hauteman<br><br>Zeharka esan<br><br>Zuzenean esan | **Biktima eta familiakoekin**: Larrialdiak (abusuaren zantzu nabarmenak): Ertzaintza, fiskaltza, etab.<br><br>Sintoma fisikoak: ospitalea.<br><br>Elkarrizketa AHZrekin. | **Balorazioa ISS taldeak**<br><br>Berehalako neurriak.<br><br>Eman beharreko urratsak kasuaren arabera<br><br>Informazioa inguruari eta erasandako pertsonei. | Babesa eskaini maila desberdinetan.<br><br>Babesa inguruari.<br><br>Justiziara bideratu, behar izanez gero. | Kasuari buruzko amaierako txostena (jarduerak eta ebazpena).<br><br>Dokumentazioa artxibatu (DBLO).<br><br>Etorkizunerako prebentzio-neurriak (ebaluazioa) |
| | **Balizko abusatzailearekin eta haren inguruarekin**:<br>- gure erakundeen barrukoa bada.<br><br>- gure erakundeetakoa ez bada. | Bere postutik eta funtzioetatik kendu prebentzioz.<br><br>Agintariei jakinarazi indarrean dagoen legediaren arabera (adingabeen kasuan). | Disposizioa irekitako prozesuetan. (ikerketa, prozesu zibila/penala edota kanonikoa)<br><br>Babesa inguruari.<br><br>Barne-komunikazioa. | Behar izanez gero, kanpo-komunikazioa. |

## SUSMOEN ETA SALAKETEN TRATAMENDUA



eta pribatuak "haur eta gazteen arloan eskumena duten erakundeak" izeneko multzoan daude eta horregatik "lehenengo maila" hartu behar dute adingabeekiko gorabeheren tratamenduan. Gauza bera heldu zaurgarriekin gertatutako gorabeheretan ere, kasu batzuetan.

a. Obra ez bada gai egoera tratatzeko, "bigarren mailako" instituzioei jakinarazi behar die (adingabeen fiskaltzari, gizarte zerbitzuei...). Horrelakoetan obra prest egongo da beharrezko guztian edo eskatzen zaion orotan lagun egiteko eta lankidetzan aritzeko.
b. Obrak beregain hartzen badu arrisku egoeraren tratamendua, ekintza-plan bat egin behar da (adibidez, familiarekin harremanetan jarri, egoera hobeto ezagutu). Maila goragoko erakundeetara jotzeko aukera irekita mantendu behar da, egoerak hala eskatuz gero.

3. Arrisku-egoera urruntzeaz bat, obrak biktimaren alde beste ezer egiterik ba ote duen dago, betiere familiarekin edo legezko tutoreekin edo interesatuarekin berarekin ados jarrita, heldu ez mendekoa bada. Beharrezko bitarteko guztiak aktibatu behar dira.

4. Ondorengo gaia da barneko ala kanpoko gorabehera den ikustea. Kanpoko gorabehera bada (praktikan obratik kanpoko abusu-egoera bada), obrak egin dezakeen prebentziozko ekintzarik baden ikusi behar da, antzeko egoera gertatzeko arriskua kentzeko edo txikitzeko (adibidez, biktimak trebatu beren buruak babesteko, gurasoei trebakuntza eskaini eta AHZren beste arduradunei ere bai, etab.). Eta prozesua horrela ixten da, kanpoko gorabehera erregistratuta.

5. Barneko gorabehera bada (obra barruan abusuak badaude langile edo boluntario baten bidez):

a. Pertsona hori langilea edo boluntarioa bada, zuzendariak erabaki behar du zehapen-prozesua hasi ala ez (obrako langilea bada), elkarrizketa bat izan edo kaleratu edo hutsaldu (boluntarioa edo zerbitzuak eskaintzen dituen banakoa bada) edo zerbitzuak eskaintzen dituen erakundearekin harremanetan jarri (erakunde horrek obrak duen kanpoko pertsona bat bada). Elementuak eta emandako azalpenak kontuan izan behar dira, falta aitortzea, gorabeheraren larritasuna eta berrerortzea. Prozesuaren amaieran kasua artxibatu egin daiteke edo pertsona hori kalera bota, kontratua eten, boluntarioa kaleratu edo zerbitzua eskaintzen duen erakundearen beste langile batez ordezkatzeko eskatu (edo erakunde horrekin kontratua eten). Legezko inplikazioak direla eta, beharrezkoa dirudi egoera hauetan guztietan (boluntarioarekin zerikusia dutenetan izan ezik) jurista baten laguntza izatea eta dagokion legedian aurreikusitako prozedura guztiak jarraitzea.

b. Era berean, ikusi egin beharko da gorabeheraren inguruan diziplinazko neurririk edo instituzionalik hartu behar ote den ere: diziplinazko neurriak egileak beste AHZ batzuk izan badira (egoerari ezar dakiokeen legediari jarraitu beharko zaio, halakorik badago); barneko edota kanpoko komunikazioa, etab.

c. Prozesua itxi aurretik beharrezkoa da galdetzea beste babes-neurririk jarri beharrik dagoen edo komenigarria den, antzeko gorabeherei aurrea hartu ahal izateko.



d. Eta prozesua horrela ixten da, barneko gorabehera erregistratuta.

#### 3.4.1.1 Akusatutako pertsonarekin jarduera

*Laikoa bada*

Ingurune Seguruko koordinatzaileak eta obrako zuzendariak edo nagusiak elkarrizketatuko dute, jasotako informazioaren berri emateko. Obrako zuzendariak jakinaraziko dio bere konfiantzazko norbaitek edo langileen ordezkariak lagun egiteko eskubidea duela elkarrizketa horretan.

*Elizgizona bada*

Ingurune Seguruko koordinatzaileak eta Aita Probintzialak izendatutako pertsona batek elkarrizketatuko dute, jasotako informazioaren berri emateko. Aita Pertsonalak jakinaraziko dio konfiantzazko norbaitekin etor daitekeela.

### 3.4.2 Kontuan izan beharreko beste elementuak

Gorabeheren tratamenduan kontuan izan beharreko beste elementu garrantzitsu batzuk ere badira ordea:

● Prozesuan zehar biktimaren segurtasuna eta ongizatea zaindu behar dira ezer baino lehen. Beharrezkoa izanez gero, obrako "konfiantzazko pertsona bat" jar daiteke prozesuan, biktimaren edota bere familiaren gertukoa. Era berean, akusatuak indarkeria eta "mendekua" erabiltzeko izan ditzakeen tentazioei adi egon beharra dago.

● Barneko gorabehera izan arren eta susmagarria langile edo boluntario bat izan, gorabehera erabat argitu arte "urruntze prebentiboa" egitea egokia ote litzakeen ebaluatu behar da.

● Aldi berean, gogoan izan behar da pertsona errugabea dela aurkakoa frogatu arte eta errugabetzat tratatu behar da.

● Akusatua jesuita izanez gero, ISSren probintziako arduradunari jakinarazi behar zaio, prozesu kanonikoa hastea egokia ote den aztertzeko Aita Probintzialarekin batera.

● Litekeena da akusatua bera izatea arduraduna edo zuzendaritzako pertsona. Horrelakoetan goragoko autoritate batengana jo behar da eta Probintziako arduradunarengana.

● Prozesu osoan mantendu behar den beste printzipioetako bat konfidentzialtasuna da. 9. eranskina DBLOren arabera kontuan izan beharreko arauei buruzkoa da eta sentsibilitate handiko informazio hau erabiltzerakoan kontuan hartzeko neurriak datoz.

Dena dela, obrako langileei azalpen soil batzuk eman beharra dago, zurrumurruak eta akusazioak saihesteko. Gutxi hitz egin behar da, datu objektiboak eman eta ondoriorik ez atera, gaia aztertzen ari dela besterik ez esan. Prentsarekin harremanetan jarri beharra izanez gero, probintziako komunikabideen taldearekin harremanetan jarri gabe ez da ezer esango (hau ere lagungarria izan daiteke barneko komunikaziorako, jakina).

● Aurrez esan bezala, prozesua ixteko, lortutako ikaskuntzak ere sartu beharko dira beti. Instituzioan praktikan jarri beharreko

hobekuntzarik baden galdetu behar da, arau edo prozedura berriak, esaterako.

● Susmagarria errugabea dela ondorioztatuz gero, beharrezko urrats guztiak eman behar dira honek jasan ahal izan dituen balizko ondorio negatibo denak konpontzeko.

### 3.4.3 Epeak

Egoera bakoitza aparta izaten den arren, ISS eskuliburuak epe batzuk aipatzen ditu susmoak edo salaketak tratatzeko. Ekintzak ikertzeari eta egoera konpontzeari lehentasuna ematen zaio eta lehentasun hori ere obrek eta Probintziak AHZ guztiak babesteko eta zaintzeko duten konpromisoaren adierazpena da.

Adierazitako epeak hauek dira:

● Delitua egoteko aukera badago edota biktima arrisku egoeran badago, gorabehera gehienez ere 24 orduan tratatuko da eta ahal dela, egun berean.
● Gainerako gorabehera guztiak gehienez ere hiru egunetan tratatuko dira.
● Zuzen eta bizkor ibili behar da, "arrastaka" (behar ez den luzapena) ibili gabe.
● Arlo juridikoan prozesua hasi bada (langile baten diziplina-prozesua, ikasle batena, boluntario batena, etab.) zorrotz bete behar dira legean aurreikusitako epeak.





# HEDAPENA

## 4. BARNEKO ETA KANPOKO HEDAPENA

Obretan Ingurune Seguruaren Sistema (ISS) abian jarri dela jakingo dute, batez ere, hasierako trebakuntza egin duten langileek eta boluntarioek, eskuliburua ezagutu dutenek eta ezagutzen dutela eta bat egiten dutela dioen konpromisoa sinatu dutenek. Garrantzitsua da "zirkulua" haziz joatea nahiz AHZentzat eta beste onuradunentzat (obrek eta horietan lana egiten duten langile eta boluntarioek kezka hau dutela jakin dezaten), nahiz kanpokoentzat (AHZk babestu eta zaintzeko kultura hazi eta hedatu dadin).

### 4.1. BARNE-HEDAPENA

Obren barnean Ingurune Seguruaren Sistema (ISS) honela ezagutaraztea aurreikusten da:

- Kartel soil batzuk jarri Ingurune Seguruaren Sistemari (ISS) buruzko oinarrizko informazioarekin eta ISSko koordinatzailearekin eta azpikoordinatzaileekin harremanetan jartzeko moduekin.
- Liburuxka soil batzuk egin onuradunei eta bazkideei eskaintzeko jardueretan izena ematerakoan, topaketetan, etab.

Susmoak eta salaketak jasotzeko moduei dagokienez:

- Obra bakoitzak bere instituzioko webgunean jarriko du Ingurune Seguruaren Sistemari (ISS) buruzko erreferentzia eta ISSko koordinatzailearen posta elektronikoa eta harremanetarako telefonoa. Online eskainiko da "arretarako postontzi anonimoa" ere: proteccion@jesuitas.es. Hau ere JLEPren webgunean azaldu behar da, ISSren probintziako arduradunari buruzko erreferentziarekin.
- Obra bakoitzak aztertu behar du susmoak eta salaketak "jasotzeko postontzia" izan ala ez. Baietz erabakiz gero, postontzi nagusira berbideratuko litzateke: proteccion@jesuitas.es, enpresa aholkulariak Datuen Babeserako Lege Organikoari buruz (DBLO) emandako aholkularitzaren arabera

### 4.2. KANPOKO HEDAPENA

Obrek eta JLEPk Sistemaren "kanpoko" hedapena egingo dute honela:

- Obra bakoitzaren webgunean Ingurune Seguruaren Sistemari (ISS) buruzko erreferentzia egongo da JLEPko ISSrako estekarekin;
- JLEPko webgunean eskura izango da ISS eskuliburua, deskargatu egin ahal izango da eta partekatu ere bai askatasun osoz;
- Instituzio bakoitzak abian jarrita duen Ingurune Seguruaren Sistemari (ISS) buruzko erreferentzia bat eta ebaluazio labur bat jarriko ditu urteko txostenean edo memorialean;
- JLEPk urtero aurkeztuko du obren memoria "atxiki" bat.




# EBALUAZIOA

## 5. EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

ISSn zuzenketak eta ikasitakoak sartu nahi dira denborak aurrera egin ahala, kontsulten esperientzietatik eta gorabeheren tratamendutik ateratakoak.

### 5.1 Obra bakoitzean

Obra bakoitzak ebaluaziorako eta hobekuntza jarraiturako mekanismo hauek izango ditu:

- Urtero egingo da taldeko ebaluazio-saio bat ebaluazioak, kritikak eta iradokizunak jasotzeko ISSren koordinatzaileak koordinatuta.

- Koordinatzailearen zeregina da urtero Arriskuen mapa hobetzea ere, esperientzia, hausnarketa eta egon diren gorabeherak oinarri hartuta, eta obrari beste babes-neurri batzuk proposatu ahal izango dizkio;

- ISS abian jartzean, hasieran ezin izan da instituzioetako onuradunen lankidetza aktiborik egon, hori dela eta, parte hartze hau sustatzeko moduak aurreikusi behar dira datozen urteetako ebaluazioetan.

### 5.2 Jesusen Lagundiaren Espainiako Probintzian

Probintziak ebaluaziorako eta hobekuntza jarraiturako mekanismo hauek izango ditu:

- Obretako kontsulta eta gorabehera kopurua eta ezaugarriak jaso urtero, Probintziaren “ikuspegi globala” lortu ahal izateko;

- ISSko koordinatzaileekin ebaluazio presentziala egingo da urtero, sistema hobetzeko iradokizunak eta esperientziak jasotzeko;

- Ebaluazioak eta jasotako iradokizunak oinarri hartu eta prestakuntza berriak programatuko dira;

- ISS argitaratu eta gehienez ere hiru urteko epean berraztertu eta hobetuko da.




# ANEXO 1. SOBRE MITOS Y REALIDADES

| MITOA | ERREALITATEA |
|---|---|
| Sexu-delinkuenteak nazkagarriak edo itxura arrarokoak dira. | Sexu-delinkuenteak normaltasun handiz ibiltzen dira. Gehienak lanera joango dira eta komunitateko bizitzan parte hartuko dute, inolako arretarik deitu gabe. |
| Sexu-delinkuenteak 'agure gordinak' dira. | Sexu-delinkuente gehienek nerabezaroan egiten dute lehenengo delitua eta harrapatzen diren arte jarraitzen dute. Gehienak gizonezkoak diren arren, ez da zuzena 'agureak' direla uste izatea. |
| Ezezagunak dira adingabeentzako edo pertsona zaurgarrientzako mehatxurik handiena. | "Ezezaguna" pederasta edo abusatzailea den irudia dugun arren, ez da hala. |
| Abusatzaileak haurtzaroan sexu-abusuak jasan zituen. | Haurrei sexu-abusuak egiten dizkieten batzuek haurtzaroan sexu-abusuak jasan zituzten. Dena dela, sexu-abusuak jasandako gehienak EZ dira sexu-delinkuente bihurtzen. Azkenaldiko ikerketen arabera, sexu-delinkuenteek abusu fisikoa eta emozionala jasan izan dute bizitzan zehar.<br>Badirudi sexu-abusuzko jokabideen faktore bat dela hau. |
| Emakumeek inoiz ez diete sexu-abusurik egiten adingabeei edo pertsona zaurgarriei. | Sexu-delinkuente gehienak gizonezkoak diren arren, emakumeak ere izan daitezke abusatzaileak. |
| Abusua behin bakarrik gertatzen da eta ez dute errepikatzen. | Arraroa da sexu-delitu bat behin bakarrik gertatzea. Sexu-delinkuenteek konpromiso mugatua dute aldaketarekin, delitua egiteko lege, gizarte eta etika arloko funtsezko mugak gainditu baitituzte. Sexu-delinkuente helduekin egin den tratamendua garrantzitsua den arren, berriro ere gauza bera egitea prebenitzeko arrakasta mugatua duela ikusi da orain arte. Baina sexu-delinkuente nerabeekin emaitza positiboagoak ditu tratamenduak. |

| MITOA | ERREALITATEA |
|---|---|
| Sexu-abusuen eragina neurriz gainekoa da eta gehiago da sentsazionalismo periodistikoa. | Sexu-abusuen historia gehienak ez dira argitaratzen. Sexu-delinkuenteen %95ek ez du zigor-kondenarik delitu hauengatik. Uste da delinkuenteen %10 inguru baino ez dela prozesatzen eta horien erdiak baino ez dira kondenatzen. |



# 2. eranskina
# TRATU ONERAKO PRAKTIKA ONAK

### 1. HELBURUA: SEXU-ABUSUARI AURRE HARTU GURE ERAKUNDEAN

**1.2. PREBENTZIORAKO PRAKTIKA ONAK EZARRI.** Hau da, ezarriko den jokamoldeak ingurune segurua eskaini behar du eta langileen edo boluntarioen babesa ere bai. Adingabeekin harremanetan sarri ibiltzen den heldu orok ongi jakin behar du bere zeregina, zein den bere lana eta modu profesionalean ibili behar da:

1. Afektua adierazteko keinu fisikoetan zona "seguruak" ukitu behar dira, hala nola sorbalda, bizkarra, burua, besoak... Gure testuinguru kulturalean ohikoa da maisuek eta monitoreek adin txikiko haurrak besarkatzea, besoetan hartzea eta musu ematea, eta haur handiagoak eta nerabeak besarkatzea eta musu ematea. Afektuzko adierazpen hauen mugak sozialki onartuta daude: musuak matrailan ematen dira (edo haur txikiak min hartu duen tokian), ez da besarkada indartsurik ematen eta luzeegirik ere ez, eta inoiz ez dira zona intimoak edo erogenoak ukitzen (izterrak, ipurdi-masailak, bularrak, genitalak).

2. Haurraren integritate fisikoa errespetatu; gure afektuzko adierazpenei uko egiten utzi, baita asmo onarekin adierazitakoak badira ere.

3. Ez geratu bakarrik haur batekin.

4. Gaixo edo zaurituta dauden haurrak beste heldu baten aurrean aztertu.

5. Haur batekin pribatuan hitz egin behar izanez gero, besteek ikusteko moduko toki batean hitz egin. Kristalezko atea edo hormak dituzten gelatxoak oso egokiak dira horretarako.

6. Kristalezko aterik edo hormarik ez duen gela edo bulegoa bada, atea irekita utzi haurrarekin hitz egiterakoan. Edo haurrarekin kanpoan hitz egingo dugu, beste heldu batzuek ikusteko moduko tokian. Edo gurasoei jakinaraziko diegu haurrarekin bakarka egongo garela edo jada egon garela eta adierazi egingo dugu noiz izango dugun edo izan dugun harreman fisiko garrantzitsua (oin batean masajea eman, mina zuelako, esaterako). AHZk artatzen diren eraikinean ahalik eta ikusgarritasun handiena izateko estrategia erabili dezake erakundeak: ateetan leihoak jarri edo kristalezko ateak jarri, ongi argiztatu eremu guztiak, "atea inoiz ere ez itxita" politika, etab.

7. Erabat galarazi dago biluztu, musukatu edo konnotazio sexuala izan dezaketen beste jokabideren bat duten jolasak, bromak edo zigorrak jartzea.

8. Zigor fisikoa galarazita dagoenez, ezin da kontaktu fisikoa arrazoi horregatik justifikatu.

9. Nobatadak galarazita daude.

10. Gurasoei aurrez esan gaua kanpoan igarotzeko irteeraren bat egin behar bada, behar adinako kide kopurua ziurtatu eta haurrek gaua egoki igarotzeko behar den guztia antolatu. Ezin da hoteleko logelarik edo kanpin-dendarik partekatu nerabeekin edo haurrekin, argi eta garbi justifikatuta ez badago.

11. Kiroletako edo kanpalekuetako irakasleak eta monitoreak ezin dira aldageletan, komunetan eta dutxetan sartu adingabeak bertan direla eta hezkuntzako arrazoiengatik edo kontrolagatik sartu beharra badute, bi heldu sartuko dira ahal dela eta bertan dauden adingabeen sexu berekoak. Zerbait egitea ezinbestekoa ez bada, aldatzen edo dutxatzen ari diren adingabeetatik distantzia batera mantenduko dira.

12. Ezin da ikasleekin topaketarik egin edo komunikaziorik izan ikastetxetik, kiroletik... kanpo, ez presentzialak ez zentroko edo taldeko bulegoetatik kanpoko posta elektroniko edo mugikor edo sare sozialen bidezkoak.

13. Berehala kaleratuko da heldua, adingabeko ikasleren batekin, jokalariren batekin... harreman sentimentala izanez gero.

14. Irakasleei edo monitoreei afektua adierazten diete adingabeek edo nerabeek edo maitemindu egiten dira, baina heldua idolotzat hartzen dutelako gertatzen da hori askotan. Pertsona helduak (entrenatzaileak, irakasleak, monitoreak, trebatzaileak, etab.) bere erantzukizunaren berri izan behar du nerabeak bere maitemin-adierazpenak egiten dizkionean. Helduak ez die mota horretako afektuei erantzun behar, baizik eta buruz eta modu onean ezarri behar ditu jokatzeko eta harremanetarako mugak.

15. Adingabeen irudiak zentroko bitartekoekin hartuko dira (argazki-kamerekin, bideoekin...) eta inoiz ere ez langilearen material pertsonalarekin. Irudi hauek artxibo bakar batean gordeko dira eta zentroa edo elkartea izango da artxibo horren arduraduna.

Zentroko edo zerbitzuko zuzendaritzak edo gainbegiratzeko funtzioa duenak neurriak hartu behar ditu irakasleek/monitoreek/boluntarioek protokoloko praktika on prebentiboak betetzen ez dituzten bakoitzean. Zuzendaritzaren neurri horiek ohartarazpenetik edo hobetzeko iradokizunetik eta arreta deitzetik beste muturrera artekoak izan daitezke, hau da, ohartarazpen serioa egitea edo zuzenean espediente bat irekitzea edo kaleratzea.

*Adingabeen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren azken aldaketek hau dio (13.5 art.): Adingabeekin ohiko harremana duten lanbide, ofizio eta jardueretan sartu eta aritzeko ezinbesteko baldintza izango da sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik epai irmo bidez kondetatuta ez egotea, sexu-erasoa eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeen hustelkeria barne, ezta gizakien salerosketagatik ere. Hori dela eta, lanbide, ofizio edo jarduera horiek egin nahi dituenak ziurtatu egin beharko du hori horrela dela sexu-delinkuenteen Erregistro Zentraleko ezezko ziurtagiri baten bidez. Erregistro hori abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak arautzen du, Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala arautzen duenak.*



# 3. ERANSKINA. IRUDIEN ERABILERA ETA IKT

Taldearen eta onuradunen arteko komunikazioari eta irudien erabilerari (argazkiak eta bideoak) buruzko politikak jada definituta dituzte obra batzuek. Berriro diogu ISSko eskuliburuak ez dituela horiek ordezkatu nahi, etengabe eboluzionatzen eta eraldatzen ari baitira legislazio arloan eta praktika ontzat hartzen denaren arloan. Denok jarraitu beharreko printzipio multzo bat nahi dugu, legezko betebehar batzuk jasotzen dituena eta zerbitzatu nahi diren AHZen zaintza eta errespetua sustatuko dutena.

## 3.1 IRUDIEN ERABILERA

### 3.1.1 Obrentzako jarraibideak

Kontuan izan beharreko lege-printzipioa hau da: ezin da irudietan agertzen den pertsonen baimenik gabe edo haien ordezkari legalen baimenik gabe irudirik lortu, biltegiratu, erabili eta hedatu.

Obraren zerbitzura ekitaldi publikoetan eta instituzioaren guneetan hartutako irudien gaia ere hor dago. Adostutako praktikaren arabera, irudi horiek urrutitik hartuko dira, atzetik edo albo batetik edo pixelatu egingo dira, pertsonak ezin identifikatu ahal izateko (pribazitatean irudien eskubidea izatea besteen eta obraren interesen gainetik baitago). Ekitaldietara argazkilari profesionalak ekartzea iradokitzen da eta hauek ere ongi ezagutzea arau hauek, behar bezala kreditatuta egoteaz gain. Dena dela, baldintza horiek betetzen ez dituzten irudietan AHZren familiari/legezko ordezkariei eskatu behar zaio baimena.

### 3.1.2 Laguntzaileentzako, boluntarioentzako, AHZnntzako eta besteentzako jarraibideak.

Laguntzaileek eta boluntarioek ezin dute obrako pertsonen, guneen eta jardueren irudirik grabatu, baimenik gabe. Eta baimena lortutakoan, obrak adierazitako jarraibideak bete beharko dituzte.

AHZei eta obrako gainerako erabiltzaileei dagokienez (batez ere hauen familiakoei/legezko arduradunei dagokienez), hemen adierazitako

printzipio eta arauak hartu eta betetzen lagundu behar zaie. Gero eta gai garrantzitsuagoa da hau, gaur egun eskuko telefonoek eta grabatzeko beste tresnek dituzten gaitasun teknologikoen ondorioz.

### 3.1.3 Sustatu beharreko praktikak

Hartutako irudiek ikuspegi positiboa eskaini behar dute (legez eskatutako baldintzetan beti), erakundearen jarduera adierazi behar dute eta ez dute elikatu/indartu behar estereotiporik edo aurreiritzirik.

Ez da grabatu behar lotsagarria izan daitekeen irudi eta egoerarik edo obrako erabiltzaileen ohiturak adierazten dituenik (haien segurtasuna zalantzan jar ez dadin).

## 3.2 IKTEN ERABILERA

### 3.2.1 Obrentzako jarraibideak: Datuen babesari buruz egungo kodeetan ezarritako legezko arauak bete

Laguntzaileen, boluntarioen eta onuradunen datu pertsonal guztien konfidentzialtasuna da bete beharreko legezko printzipioa (datu biografikoak, helbidea eta harremanetarako datuak ez ezik, eskolako notak, proba medikoak, zereginen ebaluazioak... ere bai).

Ekipo informatikoek, datuen babesari buruzko legearen arabera, sarbideak abestuta izan behar dituzte eta erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin identifikatuta. Legez kanpoko tokietara edo eduki desegokia dutenetara (pornografia, legez kanpok deskargak...) sarbidea blokeatzeko software iragazkiak erabiltzea ere gomendatzen da.

### 3.2.2 Laguntzaileentzako, boluntarioentzako, AHZentzako eta besteentzako jarraibideak

Ezin dira instituzioko azpiegitura informatikoak erabili (bertako ordenagailuen edo kable edo wifi bidezko sareen bidez) legez kanpoko erabileretarako (legez kanpoko guneetan sartzeko, autore-eskubideak errespetatzen ez dituztenetan sartzeko, etab.).

Laguntzaile/boluntario eta gainerakoen artean erabiltzen den "zuhurtzia printzipio" bera erabili behar da komunikazio digitaletarako ere. AHZkin egin beharreko komunikazioak haien legezko arduradunen eta instituzioaren bide ofizialak erabiliz egin behar dira (adibidez, instituzioko posta elektronikoa). Komunikazio horietako asko orokorrean/taldearentzat egin daitezke eta ez banaka. Inguruabar batzuetan zuzeneko komunikazioa egon daiteke eta harremanetarako bide pertsonalak trukatu (emaila edota telefonoa). Dena dela, kontuz erabili behar dira eta justifikatutako arrazoiekin.

Laguntzaileak ezin dira sare sozialetan AHZen "adiskide" izan, beraien arteko harremana arlo profesionalekoa delako. Jarduera informaletan edo boluntariozkoetan gertatuz gero "adiskide" izate hori, antolakuntza arrazoiengatik (eta beti instituzioak dakiela) taldeen batean (chat) egon behar delako eta talde horietan helduak eta AHZk egon, kontuan izan behar da anbiguetatea sor dezaketen egoerak ez sortzeko erantzukizuna dagoela.



### 3.2.3 Sustatu beharreko praktikak

Bizi garen mundu globalizatu digitalean, dena monitorizatu eta dena betiko erregistratuta geratzen den mundu honetan, funtsezkoa da zuhurtziaz eta kontuz ibiltzea. Horregatik gomendatzen zaie denei beraien buruei buruzko informazio gehiegi ez dezatela eman (ohiturak eta sarri joaten diren tokiak, geolokalizazioa erabili, argazki intimoak edo probokatzaileak erakutsi, etab.) eta ezezagunetatik ere babestu daitezela (adiskide izateko eskaerak, pribatutasunaren iragazkiak).

Gaur egun adingabeek hainbat arrisku dituzte Interneten: *cyberbullyingaz* gain, *sextinga* ere hedatu da (eduki erotiko/sexualeko trukeak) edo *groominga* (heldu batek adingabeko baten konfiantza bereganatzen du xede sexualekin) edo datu-pertsonalak lapurtzen dira (konpromisozko irudiak eta finantza-datuak barne) eta ondorioz estortsioa egiten da online.

Amaitzeko, bitarteko digitalen errespetuzko erabilera gomendatzen da, jokabide desegokiak edo legez kanpokoak saihestuz (besteen eskubideekiko errespetu falta, datu faltsuak hedatu, hizkera diskriminatzailea edo iraingarria erabili, egile-eskubideak urratu, legez kanpoko guneetan sartu...). Hasi langileekin eta AHZkin ibiltzen diren boluntarioetara arte, denak dira instituzioaren ordezkariak modu batera edo bestera.

Irudiak eta IKTak erabiltzeko jarraibideak betetzen ez badituzte langileek eta boluntarioek, "barneko gorabehera" prozesua has daiteke. Ez betetze larriek zehapen prozesua irekitzea justifika dezakete.

# 5. ERANSKINA
# EDUSCI SEKTOREARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Prebentzioa ezarpen alorrean. Jardueretako arrisku-egoeren kudeaketa, adin tartearen arabera_

Tratu txarrei aurrea hartzeko, eta batez ere AHZen sexu-abusuei aurrea hartzeko oinarriak ezarri ondoren tratu onak sustatzearen bidez, jarraitu beharreko jokabidea definitu eta prebentzio maila desberdinetako esku-hartzeak zehaztu ondoren, horiei aurrea hartzeko gure ezarpen-eremua aztertuko dugu[4].

Horretarako, ikastetxeetan egiten diren jardueretan arriskua minimizatzeko neurriak

4 Eskuliburuaren lehenengo edizio honetan, heziketa formaleko ikastetxeei buruzkoak dira adibideak (HH, LH, DBH, DBHO eta Lanbide Heziketa).

dauden koadro bat dago adin-tartearen arabera eta ondoren, arrisku-mapak egiteko gida, zentro bakoitzean diseinatu beharko baitira.

Jarraian adin-tartearen arabera daude koadroak jarrita; koadro horietan ohiko jarduerak eta egon daitezkeen balizko arriskuak daude, arrisku horiei aurrea hartzeko balizko ekintzak ere bai. Egia esan, aurreko atalean adierazi diren sustatu, saihestu eta galarazi beharreko jokabideak zehazteko modua da.

| PROIEKTUA: 0-3 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Zaintzarako gunea/"goiztiarrak" programa. | Argazkiak, AHZren batekiko lehentasuna, ukitu desegokiak. | Argazkiak egitea galarazi, AHZren batekiko lehentasuna adieraztea galarazi. Opariak edo mesedeak egitea galarazi. Beti erreferentziazko / zaintzako pertsona bat izan eskolan, gorabeheraren bat egonez gero laguntza eskatzeko. |
| WC, pixoihala edo arropa aldatu behar. | AHZri WCra lagundu, AHZrekin bakarrik geratu, argazkiak, ukituak. Taldeko pertsona bakarrak egindako jarduera. | Heldua ez da komunean AHZrekin atea itxita egongo. Ateak irekita utzi. Gainerako helduak adi egongo dira, ekintza hori amaitu arte. |
| Lo egiteko / atseden hartzeko tartea eguerdian | Ikasleengana desegoki gerturatu daiteke. Nolabaiteko intimitatea eta iluntasuna egoten diren une honetan ukituak egon daitezke. | Ikasleek koltxonetetan egiten dute lo edo atseden hartzen dute. Bi heldu egotea gomendatzen da. |
| Irteerak eta jarduerak | Irteerak eta jarduerak erabili ikasleekin harreman informal desegokia izateko. | Heldu laguntzaileak familiaren zain egon behar izanez gero ikaslea jasotzera berandu datozelako, eskolako dependentzien barruan egongo dira beti edo gune publiko batean, itzuleran haurrak ez baldin baziren eskolan jaso behar. |



| PROIEKTUA: 0-3 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Jolas-denborak | Gerturatze edota harreman fisiko desegokia toki ezkutuetan, komunean, etab. | Zaintzan heldu bat baino gehiago egongo dira beti. Kontuz ibili tokirik ezkutuenetako zaintza lanetan. Gomendagarria da gune horiek eboluzioko une desberdinetan dauden ikasleek ez partekatzea. |
| Ikasleak min hartzen badu | Zaurgarritasuna ukitu desegokiak egiteagatik. | Ahal dela, erizaintzara lagundu. Behar izanez gero, gune publikoan sendatuko da zauria eta kideren baten aurrean. |
| Eskola barruko joan-etorriak | Topaketa desegokiak helduekin edo ikasle zaharragoekin. | Ikasleak adin bereko AHZ batekin joango dira beti. |

| PROIEKTUA: 3-7 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Zaintzako gunea | Argazkiak, AHZren batekiko lehentasuna, ukitu desegokiak. | Argazkiak egitea galarazi, AHZren batekiko lehentasuna galarazi. Opariak edo mesedeak egitea galarazi. Beti erreferentziazko pertsona bat izan eskolan, gorabeheraren bat egonez gero laguntza eskatzeko. |
| WC, arropa aldatu behar | AHZri WCra lagundu, AHZrekin bakarrik geratu, argazkiak, ukituak. Taldeko pertsona bakarrak egindako jarduera. | Heldua ez da komunean AHZrekin atea itxita egongo. Ateak irekita utzi. Gainerako helduak adi egongo dira, ekintza hori amaitu arte. |

| PROIEKTUA: 3-7 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Posta bidezko mezuak | AHZren posta erabili mezu desegokiak bidaltzeko. | Gurasoak edo legezko arduradunak ikaslearen postara sartu daitezke. |
| Eguerdian lo egiteko tartea | Ikasleengana desegoki gerturatu daiteke.<br>Nolabaiteko intimitatea eta iluntasuna egoten diren une honetan ukituak egon daitezke. | Ikasleek hamaketan egiten dute lo.<br>Bi heldu egotea gomendatzen da. |
| Lo egiteko tartea elkarbizitzak edo eskolako beste irteerak daudelako | Ikasleengana desegoki gerturatu daiteke.<br>Nolabaiteko intimitatea eta iluntasuna egoten diren une honetan ukituak egon daitezke. | Laguntzaileetako inork ezin du logela batean AHZ batekin bakarrik lo egin.<br>AHZk berariazko zaintzak behar izanez gero, gainerako helduen bistan egingo da. |
| Irteerak eta jarduerak | Irteerak eta jarduerak erabili ikasleekin harreman informala edo desegokia izateko. | Heldu laguntzaileak familiaren zain egon behar izanez gero ikaslea jasotzera berandu datozelako, eskolako dependentzien barruan egongo dira beti edo gune publiko batean, itzuleran haurrak ez baldin baziren eskolan jaso behar. |
| Jolas-denborak | Gerturatze edota harreman fisiko desegokia toki ezkutuetan, komunean, etab. | Zaintzan heldu bat baino gehiago egongo dira beti.<br>Kontuz ibili tokirik ezkutuenetako zaintza lanetan.<br>Gomendagarria da gune horiek eboluzioko une desberdinetan dauden ikasleek ez partekatzea. |
| Ikasleak min hartzen badu | Zaurgarritasuna ukitu desegokiak egiteagatik. | Ahal dela, erizaintzara lagundu.<br>Behar izanez gero, gune publikoan sendatuko da zauria eta kideren baten aurrean. |



| PROIEKTUA: 3-7 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Arropa aldatu | Zaurgarritasuna ukitu desegokiak egiteagatik. | Taldearen aurrean egingo da beti, gelan edo baterako toki batean. |
| Irteera, mantenu erdiko ordutegian | AHZrengana desegoki gerturatu daiteke. | Helduak ikasgelara lagunduko dio gauzak jaso ditzan, kideren batekin batera.<br>Heldua jolastokira ahalik eta lasterren itzuliko da. |
| Eskola barruko joan-etorriak | Topaketa desegokiak helduekin edo ikasle zaharragoekin. | Ikasleak adin bereko AHZ batekin joango dira beti. |

| PROIEKTUA: 8-12 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Ordutegi aurreko eta ondorengo guneak. | Desegoki gerturatu AHZri.<br>Ikasleren batekiko lehentasuna agertu edo norbaitekin gehiegi intimatu.<br>Adin desberdinetako ikasle-taldeak, beldurtu... | Pertsona heldu bat baino gehiago taldea kontrolatzen.<br>Adinaren arabera banatuta egin jarduerak. |
| Lababoaren erabilera | Isekak, bromak... egiteko aukera.<br>Jarduera batzuk egiteko hertsadura.<br>Komunera bakarrik joaten dira.<br>Adin desberdineko ikasleek erabiltzen dute. | Adinaren araberako komunak izan.<br>Adin oso desberdinetakoak gune berean ibiltzea saihestu.<br>Jolastokiko komunen ingurua zaindu.<br>Helduek beraientzako komunak erabili behar dituzte, ez ikasleenak.<br>Zerbait kontrolatzera sartu behar izanez gero, ez sartu, baizik eta denak igarotzen diren toki batera atera eta han artatu. |

| PROIEKTUA: 8-12 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Tutoretza banakoa | Banako harremaneko eta harreman intimoko egoera, informazioa atera eta harreman desegokia hasteko erabili daiteke.<br>Gaizki interpretatu daitezkeen egoerak. | Beharrezkoa da beste norbaitek ere topaketa horren berri izatea (ahoz edo agenda bidez).<br>Ahal bada eta egoki iritziz gero, gune publikoetan egin esku hartzeak.<br>Banakakoa eta gune itxi batean egin beharrekoa bada, atean beira egon dadila. |
| Irteerak eta ikustaldiak | Harreman informal edota desegokirako unea.<br>Eskolakoak ez diren pertsonek hartzen dute parte edo ikasleekin horrenbeste harreman ez dutenek.<br>Argazki eta bideoen arriskua. | Taldean hasi eta amaitu beti.<br>Beti taldean joan.<br>Kanpoko pertsonek protokoloa irakurri eta sinatu behar dute. |
| Etxetik kanpo lo egin | AHZengana desegoki gerturatu daiteke.<br>Nolabaiteko intimitatea eta iluntasuna egoten diren une honetan ukituak egon daitezke.<br>Arropa aldatu, pixoihalak...<br>Argazki eta bideoen arriskua.<br>Gaixotasun arriskua, behar afektiboa...<br>Eskolakoak ez diren pertsonek hartzen dute parte edo ikasleekin horrenbeste harreman ez dutenek. | Behar bereziren bat baldin badago (pixoihala...) familiarekin hitz egin behar da.<br>Idatziz utzi behar da gurasoen informazioa eta baimena, egon daitezkeen egoerei buruzko oharrekin.<br>Laguntzaileetako inork ezin du logela batean AHZ edo neskato batekin bakarrik lo egin.<br>AHZk edo neskato batek berariazko zaintzak behar izanez gero, gainerako helduen bistan egingo da. |





| PROIEKTUA: 8-12 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Jolasa, aisia | Ikasle batzuk gustukoago.<br>Helduaren eta AHZren arteko harreman desegokia jolasean.<br>AHZ batzuek afektua, gertutasuna eskatu.<br>Eskolakoak ez diren pertsonek hartzen dute parte edo ikasleekin horrenbeste harreman ez dutenek.<br>Komunen erabilera. | AHZ bakoitzaren gune pertsonaleko mugak errespetatu. |
| Datu pertsonalak | Erabilera desegokia | Inoiz ez eman telefonorik, emailik edo helbide pertsonalik ikasleei. |
| Opariak | Ikasle batzuk gustukoago. | Ez egin ikasleei opari indibidualik, faboritismoa adierazten badu horrek. |
| Erizaindegia | Ikasleekin harreman fisikoa. | Ikaslea artatzean atea irekita izan. |
| Behar bereziekiko haurrak | Zaurgarritasun eta indefentsio handiagoa dago.<br>Ikaslearen komunikazio gabezia.<br>Helduen jardun gehiago behar dute. | Zaintzailea erabili ahal den egoera guztietan.<br>Jardueren prestakuntza egin behar dute zaintzaileek, protokoloa irakurri eta sinatu.<br>Haurra pertsona heldu batekin bakarrik geratzea saihestu ahal dela, heldu hori haurraren zaintzaile arduraduna ez bada. |

| PROIEKTUA: 12-16 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Banako tutoretza (tutoreak, koordinatzaileak, konsiliarioak, orientatzaileak) | Banako harremaneko eta harreman intimoko egoera, informazioa atera eta egoera desegokia izateko erabili daiteke. | Beira ateetan. Ateak irekita. Aurreikusitako toki eta ordutegietan egin. |
| Banako arreta akademikoa (kontsultak, ikerketa-lanak...) | Banako harremaneko eta harreman intimoko egoera, informazioa atera eta egoera desegokia izateko erabili daiteke. | Bilera gelan eta atea irekita. Departamentuen aretoan egin bilera edo beste irakasleekin areto batean. |
| Aldagelak | Intimitatea urratu pertsona heldu baten aurrean. | Heziketa fisikoko edo aldageletako laguntzaileak, bi sexuetakoak. Aldageletan ez sartu ahal dela, egoera larriren bat ez bada. Ikasle bat izendatu aldageletako arduradun, irakasleari esateko berdinen arteko arrisku egoera dagoenean. |
| WC | Intimitatea urratu pertsona heldu baten aurrean. | Irakasleentzako komunak egokitu. Irakasleentzako komunak erabili, horrelakorik badago. |
| Jangela eguerdia | Erabateko konfiantza begiraleen eta ikasleen artean. | Begiraleak kontratatu. Ohar argiak begiraleei: ez eman telefono partikularrik, ez geratu irteteko eskolatik kanpo... |



| PROIEKTUA: 12-16 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Ibilaldiak | Ikasleekin harreman desegokiko uneak. Harreman desegokiak begiraleen eta ikasleen artean. | Jarduera guztiak "ikusgarriak" izan behar lirateke eta talde osoarenak. Jarduerak programara egokituko dira, aurrez familiei jakinarazitakora. Laguntzaileetako inork ezin du logela batean AHZ batekin bakarrik lo egin. AHZk berariazko zaintzak behar izanez gero, gainerako helduen bistan egingo da. |
| Argazkiak eta grabazioak | Irakasleen argazkien erabilera desegokia edota pribatua. | Irudi-eskubideen arloan indarrean dagoen araudira mugatu. Taldeko argazkiak edo programatutako jarduerenak egin, batez ere. |
| Ordutegi aurreko eta ondorengo joan-etorriak. | Banako harreman intimo desegokia. | Kasu jakinetan eta gurasoen idatzizko baimena dagoenean izan ezik, saihestu egin behar dira. |

| PROIEKTUA: 16-18 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Banako tutoretza (tutoreak, koordinatzaileak, kontsilarioak, orientatzaileak) | Banako harremaneko eta harreman intimoko egoera, informazioa atera eta egoera desegokia izateko erabili daiteke. | Beira ateetan.<br>Ateak irekita.<br>Aurreikusitako toki eta ordutegietan egin. |
| Banako arreta akademikoa (kontsultak, ikerketa-lanak...) | Banako harremaneko eta harreman intimoko egoera, informazioa atera eta egoera desegokia izateko erabili daiteke. | Bilera gelan eta atea irekita.<br>Departamentuen aretoan egin bilera edo beste irakasleekin areto batean. |
| Aldagelak | Intimitatea urratu pertsona heldu baten aurrean. | Heziketa fisikoko edo aldageletako laguntzaileak, bi sexuetakoak.<br>Aldageletan ez sartu ahal dela, egoera larriren bat ez bada.<br>Ikasle bat izendatu aldageletako arduradun, irakasleari esateko berdinen arteko arrisku egoera dagoenean. |
| WC | Intimitatea urratu pertsona heldu baten aurrean. | Irakasleentzako komunak egokitu.<br>Irakasleentzako komunak erabili, horrelakorik badago. |
| Jangela eguerdia | Erabateko konfiantza begiraleen eta ikasleen artean. | Begiraleak kontratatu.<br>Ohar argiak begiraleei: ez eman telefono partikularrik, ez geratu irteteko eskolatik kanpo... |
| Sare sozialak eta posta | Postako mezuen interpretazio okerrak.<br>Irakasleen eta ikasleen bizitza pribatuan sartu. | Erakundeetako posta-helbideak erabili beti.<br>Facebookeko kontuak edo beste sare sozialetakoak soilik instituzioarenak izan daitezela, eskolak horren berri jakin dezala eta ez dadila administratzaile bakarra egon.<br>Kontuz ibili mezuetan idazten denarekin, ezkutuko kopiak bidali edo saihestu idatzizko erantzunak eta pertsonalki egin. |





| PROIEKTUA: 16-18 URTE | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Balizko arrisku-egoera** | **Prebentziozko ekintzak** |
| Ibilaldiak / irteerak / egonaldiak | Ikasleekin harreman desegokiko uneak | Jarduera guztiak "ikusgarriak" izan behar lirateke eta talde osoarenak.<br>Jarduerak programara egokituko dira, aurrez familiei jakinarazitakora.<br>Laguntzaileetako inork ezin du logela batean AHZ batekin bakarrik lo egin.<br>Norbaitek berariazko zaintzak behar izanez gero, gainerako helduen bistan egingo da. |
| Ordutegi aurreko eta ondorengo joan-etorriak | Banako harreman intimo desegokia. | Kasu jakinetan eta gurasoen idatzizko baimena dagoenean izan ezik, saihestu egin behar dira. |
| Behar bereziekiko mutikoak | Zaurgarritasun eta indefentsio handiagoa dago.<br>Ikaslearen komunikazio gabezia.<br>Helduen jardun gehiago behar dute. | Zaintzailea erabili ahal den egoera guztietan.<br>Jardueren prestakuntza egin behar dute zaintzaileek, protokoloa irakurri eta sinatu.<br>Pertsona heldu batekin bakarrik geratzea saihestu ahal dela, heldu hori haurraren zaintzaile arduraduna ez bada. |

# 6. ERANSKINA. NOLA EGIN ARRISKUAREN MAPAK

Balizko metodologia bat:

a) Hasteko, identifikatutako arrisku-egoera batzuk izan daitezke kontuan eta obran gertatzeko aukera dutenak adierazi. Obra konplexuagoetan, dimentsio bakoitzerako mapa tipo desberdina egin daiteke (HH, LH, nerabeak, adintsuak...). Edo gune edo jarduera mota bat (gela normalak, curriculumaz kanpoko jarduerak, irteerak, etab.) balizko arrisku-egoera guztiak "kenduz", ondorengo tipora igaro aurretik. Jarraian prozesu hau berretsi egin daiteke eta horretarako gorabeheren edo istripuen (utzikeriagatik edo zaintza gabeziagatik) historiko bat

egin daiteke edo laguntzaileek edo boluntarioek adierazitako kezkak erabili daitezke historiko hori egiteko. Amaitzeko, mapan beste egoera batzuk ere sartu daitezke, hau da, arriskuzko egoerak ez izan arren "praktika txarrak" izan daitezkeenak eta obran hauteman direnak (kalitatezko zerbitzua eskaintzeko beharra betetzen ez delako gertatzen dira horrelakoak praktikan).

b) Identifikatutako arrisku-egoera bakoitzerako, Arriskuen Maparen lerroa egin den data erregistratzen da eta gertatu daitezkeen moduen azalpen osoa ematen da:

a. Zein **lokaletan**? Instituzioaren guneetan gerta daiteke (aretoetan, bulegoetan, jolastokietan...), kanpoan (kanpoko jardueretan, kanpalekuetan, ibilaldietan, logeletan, kalean...), etxe partikularretan (boluntarioak familien etxeetan klase partikularrak emateko, berreraikitzeko, garbitzeko...) etab.

b. Zein **unetan**? Zaintzarekiko edo gabeko jarduera antolatuetan gertatu daiteke, atseden-uneetan, gaueko atsedenean, etab.

c. Zein dira **balizko biktimak**? AHZk haur txikiak edo eskolaurrekoak izan daitezke, eskolara joaten diren haurrak, nerabeak, heldu zaurgarriak (gizartetik kanpo dauden pertsonak, ezgaitasun fisikoa dutenak, etorkinak, adintsuak), mendeko pertsonak (ezgaitasun psikikoa, adineko erdi-kontzienteak edo inkontzienteak).

d. Zein dira balizko **eragile erasotzaileak**? Eragileak beste AHZ batzuk izan daitezke, laguntzaileak edo boluntarioak, bisitan datozenak (AHZen familiakoak edo legezko arduradunak barne). Egoera batzuetan arriskua ez da eragileek eragindakoa izango, baizik eta guneen edo jardueren planifikazio txarraren ondorioa izango da (adibidez, AHZk zaintzarik gabe) edo ezusteko egoerengatik.

c) Egoeraren ezaugarriak bildutakoan, **gertatzeko aukera** (handia/ertaina/txikia) eta **larritasuna** (handia/ertaina/txikia) sailkatzen dira[5]. Aukera edo larritasuna zenbat eta handiagoa izan, are gehiago zaindu behar dira abian jarri beharreko babes-neurriak.

d) Amaitzeko, beharrezko **babes-neurriak** egiten dira edo *ad hoc* neurriak ere izan daitezke, obra batean praktika onak babesteko jokabidea eta kultura sustatzeko (adibidez, AHZn adinaren araberako prestakuntza eman indarkeriari eta kudeaketa emozionalari buruz). Tratatzeko edo abian jartzeko data finkatu behar da beti, behaketarako alor bat ere utzi behar da, ondorengo erregistro osagarriak egiteko eta neurria baloratzeko edo neurri hori erabilgarria izan daitekeela zerk adieraziko ligukeen jakiteko.

5 "Aukera" eta "larritasunaren" sailkapenak (biktimaren ondorio fisikoak, emozionalak eta jarrerazkoak kontuan hartuta egiten da sailkapen hau) subjektibotasun puntu bat izango dute beti, obraren eta ebaluatzen duenaren sentsibilitatearen arabera. Instituzioen artean partekatutako esperientzia lagungarria izango da ikuspegiak eta irizpideak argituz joateko.



***Ikastetxeko ARRISKUEN MAPAREN adibidea (LH etapa)***

| JARDUE-RAK EGOERAK | BALIZKO ARRISKUEN AZALPENA | AUKERA: Handia (AH) / Ertaina (AE) / Txikia (AT) LARRITASUNA: Handia (LH) / Ertaina (LE) / Txikia (LT) | XEDEA: ZER NAHI DA NEURRIEKIN | HARTU BEHARREKO NEURRIAK | HARTUTAKO NEURRIEN BALDINTZAK | EBALUAZIOA Neurriaren eraginkortasuna baloratzeko hartutako adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Banako tutoretzak*** | Banako harremaneko eta harreman intimoko egoera, informazioa atera eta harreman desegokia hasteko erabili daiteke. | AE, LH | Arriskua txikiagotu | Tutoretza bakoitza erregistratu behar da dokumentuan eta zein egoeretan egin den ere bai. | Egin eta tutoreei eman, erabili dezaten. | Banako tutoretza bakoitza erregistratzeko erabili dela agiria egiaztatu. |
| | | | Arriskua txikiagotu | Beharrezkoa da beste norbaitek ere topaketa horren berri izatea (ahoz edo agenda bidez). | Planifikatu eta adostu nori esango diogun ikaslearekin tutoretza bat izan behar dugula. | Noiz eta nor informatu dugun erregistratu. |
| | | | Arriskua txikiagotu | Ahal bada eta egoki iritziz gero, gune publikoetan egin esku hartzeak. | Definitu eta adostu tutoretza egiteko gune publikorik badugun, eraginkortasun eta konfidentzialtasun bermeak dituena. | Tutoretza egingo den tokiaren erregistroa. |
| | | | Arriskua txikiagotu | Gune pribatu eta itxian eginez gero, atean beira egon dadila. Hobe gunearen diseinuaren ondorioz beiratik uneoro heldua ikusteko modua izatea, ez adingabea. | Ateetan beira jarri, ez badago.<br><br>Altzarien kokapena diseinatu, heldua uneoro bistan izateko. | Guneak egiaztatu.<br><br>Tutoretza egingo den tokiaren erregistroa. |
| | | | Arriskua txikiagotu | Atean beirarik ez badago, irekita utzi. Gunea diseinatu, batez ere atetik uneoro heldua ikusteko modua egon dadin, ez adingabea. | Adingabe batekin gauden guneko atea irekita uzteko beharrari buruzko araudi argia. | Guneak egiaztatu.<br><br>Gorabeherak erregistratu, lehen adierazitako agirian. |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Irteerak/ ikustaldiak*** | Harreman informala edota desegokia egon daitekeen unea | AE, LE | Arriskua txikiagotu | Jarduerak taldeak ikusi ahal izango ditu, programatuta egongo dira eta zentroko arduradun batek baino gehiagok izango dute jardueren berri.<br>Beti taldean joan beharko da eta zaindu egingo da hala joan daitezela. | Arduradunek inor ez dela taldetik atzera geratzen zaindu beharko dute. | *JLren Jokabide Arauetan* jasoa. Erregistro eta sinadura. |
| | Eskolakoak ez diren pertsonek hartzen dute parte edo ikasleekin horrenbeste harreman ez dutenek. | AE, LE | Arriskua txikiagotu | Kanpoko pertsonek araudia irakurri eta sinatu behar dute. | Araudia beti eskura izango da, irakurri eta sinatzeko. | Irakurri dela egiaztatzeko sinatu eta araudia beteko dela hitza eman. Data eta jardeura zehaztu. |
| | Argazki eta bideoen arriskua. | AE, LE | Arriskua txikiagotu | Ez egin mugikor edo kamera pertsonalekin argazkirik, baizik eta eskolakoekin. | Adingabeek mugikorrak badaramatzate, etxera deitzeko bakarrik erabili dezaketela esan. | Zentroko araudietan adierazi irteeretan ikasleek finkatutako uneetan baino ezingo dutela mugikorra erabili, etxera deitzeko. |
| | Salbuespen egoerak, adibidez, adingabe bat osasun-zentrora eraman behar. | AT, LT | Arriskua txikiagotu | Ahal dela, ez bidaiatu bakarrik heldu batek eta adingabeak.<br>Ezin bada, beste heldu arduradun batzuei jakinarazi (JLren adingabeekiko harremanen Jokabide Arauak *agiriko adierazpen orokorren f letran* jasota dago hau) | Agiria egin, adingabeekin egiten diren irteeretan egon daitezkeen balizko gorabeherak erregistratzeko. | Erregistroak gainbegiratu. |





| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Aldagelen erabilera*** | Ikasleen irudiak grabatu aldageletan | AE, LE | Arriskua kendu | Hezitzailea ez da aldageletara sartuko irudiak grabatu ditzakeen ezerekin. | Horri buruzko arauak ezarri | Irakasgaiaren memorian jaso egoerak |
| | | | | Aldageletara sartu beharra badago, programazioan arrazoitu | Programazioan islatu | |
| | | | | Hezitzailea aldageletan dagoenean, atea erdi-irekita utziko da. | | |
| ***Lababoen erabilera*** | | | | | | |
| ***Jolasak/jarduera ludikoak*** | | | | | | |
| ***Erizaindegia*** | | | | | | |
| ***Argazkiak eta bideoak*** | | | | | | |

*Ikastetxeko ARRISKUEN MAPAREN adibidea (DBH/DBHO etapa)*

| JARDUERAK EGOERAK | BALIZKO ARRISKUEN AZALPENA | AUKERA: Handia (AH) / Ertaina (AM) / Txikia (AT) LARRITASUNA: Handia (LH) / Ertaina (LM) / Txikia (LT) | XEDEA: ZER NAHI DA NEURRIEKIN | HARTU BEHARREKO NEURRIAK | HARTUTAKO NEURRIEN BALDINTZAK | EBALUAZIOA Neurriaren eraginkortasuna baloratzeko hartutako adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Aldagelen erabilera*** | Ikasleen irudiak grabatu aldageletan | AE, LE | Arriskua kendu | Hezitzailea ez da aldageletara sartuko irudiak grabatu ditzakeen ezerekin. | Horri buruzko arauak ezarri | Irakasgaiaren memorian jaso egoerak |
| | | | | Aldageletara sartu beharra badago, programazioan arrazoitu | Programazioan islatu | |
| | | | | Hezitzailea aldageletan dagoenean, atea erdi-irekita utziko da. | | |
| ***Harremanak sare sozialetan*** | Intimitate eta adiskidantza harremanak izan hezitzailearekin | AE / LE | Arriskua kendu | Hezitzaileek ez dute sare sozialik erabiliko zentroko ikasleekin harremanetan jartzeko | Jesusen Lagundiko Espainiako Jokabide Kodea bete, 46.3 art. | Araudia erregistratu eta sinatu |

Arrisku-mapak egiteko, kontuan izan:
- Jardueren arabera arriskuei aurrea hartzeko taulak heziketa zentroentzako.
- JLren agiria "Adingabeekiko harremanetako jokabidea"

| | **Jarduera-eremua/programa:** | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Arrisku-egoera** | **Azalpena (2)** | **Sailkapena** | | | **Hartu beharreko neurriak** | | |
| | | | **Aukera** | | **Eragina** | **Helburua (3)** | **Azalpena** | **Adierazlea** |
| | | | **Egiazkoa (4)** | **Balizkoa (5)** | **Larritasuna (6)** | | | **Nola jakingo dugu neurria eraginkorra dela?** |
| | Konfidentzialtasuna | Adingabeei buruzko jakinarazpenek ez dute adingabearen datu pertsonalen konfidentzialtasunerako eskubidea bete | | | | | Datuen babesari buruzko informazioa, sentsibilizazioa (guneak, denborak eta kategoria profesionalak markatu datuen tratamendurako) | Intimitatea eta datuen babesari buruzko jarrera insentsiblerik ikusten ez denean. Datuak babesteko auditorien txostenetan gorabeherak. |
| | | Agirien tratamendua profesionalen artean (galdu, informazioa galdu, etab.) | Sarri | | Oso larria | Arriskua errotik kendu | Agiriak kudeatzeko protokolo bat dago eta datu horiek tratatzeko babes-neurriekiko guneak (ateak, giltzak) | Galdu ez badira. Datuak babesteko auditorien txostenetan gorabeherak. |
| | | Adingabearen informazioari buruzko elkarrizketa informaletan edota kanpokoetan datu pertsonalak edo intimoak eman | Sarri | | Oso larria | Arriskua errotik kendu | Espedienteetako informazio teknikoa eskualdatzeko egokitutako guneak eta denborak daude. | Intimitatea eta datuen babesari buruzko jarrera insentsiblerik ikusten ez denean. Datuak babesteko auditorien txostenetan gorabeherak. |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | FAX bidez jasotako agirien zaintza denborari buruzko gabezia (ohikoa) | Oso sarri | | Larria | Arriskua errotik kendu | Gaur egun faxa bulegoen eremuan dago (sarbide mugatuko gunean), baina informazio horren hartzaileak ez direnek eskuratu dezakete informazio hori. Aplikazio bat ezarri nahi da faxa zuzenean dagokion hezkuntza-taldeetara iritsi dadin. | Fax orokorrera egindako informazio mota honen bidalketa kopurua desagertu |
| | | Informazioa galdu eta esku-hartzea hobeto egokitu ez dokumentatzeagatik, adingabeek eta familiek egindako kexak eta erreklamazioak sartu | Ez da ohikoa | | Ez da larria | Arriskua minimizatu | Kexak eta gorabeherak jasotzeko protokoloa eta asebetetze inkestak egin adingabeei eta familiei oharrentzako atal orokor batekin. Diziplina anitzeko taldeak daude, gainbegiratzen direnak, eta errazagoa da egoera hauek hautematea eta zuzentzea. | Kontseilaritzatik eta Fiskaltzatik eta erakundetik bertatik egiten diren ebaluazio eta gainbegiratzeetan gorabeherarik ez. |

ingurune segurua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hezitzaileek adingabeekin lotura desegokiak (egoera eta larritasun txikiagoetan erreta egoteko eragin negatiboa dute, artatu gabe...) | Ez da ohikoa | | Larria | Arriskua minimizatu | Taldekideak haurren traumaterapian trebatuta daude eta diziplina anitzeko taldeak direnez eta gainbegiratuta daudenez, errazagoa da egoera hauek hautematea eta zuzentzea. | Kontseilaritzatik eta Fiskaltzatik eta erakundetik bertatik egiten diren ebaluazio eta gainbegiratzeetan gorabeherarik ez. |
| | | Sexu-abusuak adingabe batek | | Ez da ohikoa | Oso larria | Arriskua errotik kendu | Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa eskatzen da. Jokabide-kode bat sinatzen da. Profesional guztiek jaso dute gida hau ezagutu eta erabiltzeko: "Adingabeen zentroetako profesionalek sexu-abusu egoeretan jokatzeko jarraibideak". Adingabeekin isolatuta geratzea saihestu. Eraikinaren etorkizuneko berrikuntzetan gune gardenak sortu baterako guneetarako edo erabilera | Kontseilaritzatik eta Fiskaltzatik eta erakundetik bertatik egiten diren ebaluazio eta gainbegiratzeetan gorabeherarik ez. Adingabeen eta gazteen gorabeherarik eta salaketarik ez. |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hezitzaileek adingabeekin lotura desegokiak (egoera eta larritasun txikiagoetan erreta egoteko eragin negatiboa dute, artatu gabe...) | Ez da ohikoa | | Larria | Arriskua minimizatu | Taldekideak haurren traumaterapian trebatuta daude eta diziplina anitzeko taldeak direnez eta gainbegiratuta daudenez, errazagoa da egoera hauek hautematea eta zuzentzea. | Kontseilaritzatik eta Fiskaltzatik eta erakundetik bertatik egiten diren ebaluazio eta gainbegiratzeetan gorabeherarik ez. |
| | | Sexu-abusuak adingabe batek | | Ez da ohikoa | Oso larria | Arriskua errotik kendu | Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa eskatzen da. Jokabide-kode bat sinatzen da. Profesional guztiek jaso dute gida hau ezagutu eta erabiltzeko: "Adingabeen zentroetako profesionalek sexu-abusu egoeretan jokatzeko jarraibideak". Adingabeekin isolatuta geratzea saihestu. Eraikinaren etorkizuneko berrikuntzetan gune gardenak sortu baterako guneetarako edo erabilera | Kontseilaritzatik eta Fiskaltzatik eta erakundetik bertatik egiten diren ebaluazio eta gainbegiratzeetan gorabeherarik ez. Adingabeen eta gazteen gorabeherarik eta salaketarik ez. |

ingurune segurua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | orokorrekoetarako. Hainbat kidetako diziplina anitzeko taldea egon, gainbegiratu. | |
| | | Adingabe bati osasunean kalte egin, erakundeko langileren baten jokabide oldarkorraren ondorioz | | Gertatzeko aukera txikia dago | Oso larria | Arriskua errotik kendu | Diziplina anitzeko taldeak daude, trebakuntzarekin eta gainbegiratzearekin errazagoa da egoera hauek hautematea eta zuzentzea. Kexa eta erreklamazioen prozedura bat dago eta asebetetze-inkestak ere bai. Zuzendaria etengabe adingabeen esku dagoen bitartekaria da. | Adingabeen salaketarik ez, kontseilaritzatik eta Fiskaltzatik eta erakundetik bertatik egiten diren ebaluazio eta gainbegiratzeetan gorabeherak. Txosten medikoak. |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Langileen desmotibazioa, egoera profesoinalagatik kezka handiegia izateagatik (ezegonkortasuna akordio markoko baldintzengatik, soldata izoztu, txanden ordutegia egokitu...) | | Gertatzeko aukera dago | Oso larria | Arriskua minimizatu | Langileei elkarrizketa pertsonalak eta idatzizkoak. Informazio gardena. Heziketa taldeen ebaluazio-jardunaldia. Langileen eskariei arreta. Iradokizunei eta gatazkaren zergatiei heldu. | Kontseilaritzatik eta Fiskaltzatik eta erakundetik bertatik egiten diren ebaluazio eta gainbegiratzeetan gorabeherarik ez. |
| | | | | | | | | Esku-hartze medikoak. Osasun agintaritzako txostenetan jasotako gorabeherak, analitikak eta auditoriak. |
| | | | | | | | | Esku-hartze medikoak. Osasun agintaritzako txostenetan jasotako gorabeherak, analitikak eta auditoriak. |
| | Adingabeen arreta urria | Lanpostuen funtzioen definizio argirik ez | Sarri | | Ez da larria | Arriskua minimizatu | Lanpostuak birdiseinatu. (Plan estrategikoa) | Gainbegiraleak ebaluatu. Gorabeherak postua ez ezagutzeagatik. |

ingurune segurua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Argitasunik ez agintaritza-koadroan (jarraibideak eta jakinarazpenak) | Sarri | | Ez da larria | Arriskua minimizatu | Komunikazioko bideak berdiseinatu, organigrama eta aginte-koadroa. (Plan estrategikoa) | Gainbegiraleak ebaluatu. Gorabeherak postua ez ezagutzeagatik. |
| | | Koherentzia gabezia egiazko beharren, klausulen pleguen, legediaren artean (adibidez, ezarritako ratioa edo profil profesionalak interpretatzeko zehaztapenik ez) | Oso sarri | | Oso larria | Arriskua minimizatu | Ratioa eta profil profesionalen trebakuntza igo | Langileak/adingabeak ratioa. Trebakuntzetako kategoriak eta eskatutako titulazioak. |
| | | Finantzazio gabeziak eragina izan dezake baliabideak eskura ez izatean, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak izan arren | | Gertatzeko aukera handia | Oso larria | Arriskua minimizatu | Administrazioarekin jarduerak, administrazioek finantzazio, gainbegiratzen eta kontrol politikak egin ahal izateko | Erakundean defizita Kanpoko finantzazioa. |
| | [1] Erakundea edo programa. | | | | | | | |
| | [2] Non, noiz, nork, zein unetan... | | | | | | | |
| | [3] Arriskua errotik kendu (erabateko prebentzioa); Arriskura minimizatu; Arriskua murriztu. | | | | | | | |
| | [4] Oso sarri / sarri / gutxitan / ez da ohikoa. | | | | | | | |
| | [5] Oso gertagarria / Gertagarria / Gertatzeko aukera gutxi / Gertaezina. | | | | | | | |
| | [6] Oso larria / larria / larritasun txikikoa. | | | | | | | |

# 6. ERANSKINA. ADINGABEEI EGITEN ZAIZKIEN BALIZKO ABUSU-EGOERAK HAUTEMATEN LAGUNTZEKO ADIERAZLEAK

**ADIERAZLE ESANGURATSUAK ADINAREN ARABERA**

**A. 0tik 12 urterako adierazleak:**

●Negar sarri.
●Arretarako gaitasun txikia.
●Baginan edo uzkian objektuak sartu.
●Jateko gogoa aldatu edo galdu.
●Loarekin zerikusia duten jokabide aldaketak ditu (oheratzeko errutinak, amesgaiztoak sarri, loaren nahasmendua, etab.).
●Etxeari edo toki jakin bati beldurra. Gizonei edo emakumeei beldur handiegia. Familiako batekin edo ezagun batekin bakarrik geratzeko beldur irrazionala.
●Adinaren arabera desegokiak diren jolas sexualak objektuekin, norbere buruarekin edo besteekin.
●Marrazki edota azalpen sexualki esplizituak, adinaren arabera desegokiak.
●Sexu-ezaguera arraroa, aurreratua edo ezohikoa.
●Norbere burua gutxi zaindu.
●Arropa urratuta, zikinduta edo orbanduta du, eta bere azalpenak ez dira oso sinesgarriak.
●Enuresia du berriro, esfinterren kontrola bazuen arren.
●Jokabide sexualizatuegia du.
●Genitalen edo uzkiaren inguruan mina, hazgura edo zauriak ditu.
●Jokabidean atzera egin du eta jarrera oso infantilak ditu berriro.
●Beti pertsona helduen babesa nahi izaten du.
●Bere animo-egoeran, harremanetan... aldaketa emozional garrantzitsuak izaten ditu.
●Eskolako errendimenduan atzerakada nabarmena izan du.
●Autolesioak.

**B. 12 urtetik 18rako adierazleak.**

●Arropa urratuta, zikinduta edo orbanduta du, eta bere azalpenak ez dira oso sinesgarriak.
●Genitalen edo uzkiaren inguruan mina, hazgura edo zauriak ditu.
●Eduki sexualeko gaiak tratatzea erabat baztertzen du.
●Familiako batekin edo ezagun batekin bakarrik geratzea saihesten du.
●Jokabidean atzera egin du eta jarrera oso infantilak ditu berriro.
●Bere animo-egoeran, harremanetan... aldaketa emozional garrantzitsuak izaten ditu.
●Bere gorputza ezkutatzeko moduen bila ibiltzen da edo ez du erakutsi nahi (arropak aldatzean, dutxan, igerilekuan, hondartzan, etab.).
●Azterketa medikoa saihesteko aitzakien bila ibiltzen da.
●Loarekin zerikusia duten jokabide aldaketak ditu (oheratzeko errutinak, amesgaiztoak sarri, etab.).
●Haurdun dago eta aitatasunari buruz ematen dituen azalpenak ez dira argiak.
●Autolesioak.
●Adiskideekiko edo jarduerekiko interesik ez bat-batean.
●Beldurrezko eta harridurazko erreakzioa.
●Sexu-jarduerei buruzko interes handia.
●Agintaritza figurekiko etsaitasun handia.
●Beti norbaiten konpainia behar.
●Komunikazioan atzerako eskemak.
●Zailtasun akademikoak edo eskolako errendimenduan bat-bateko beherakada.
●Etxetik ihes egin.
●Hainbat geruza jantzi, orbanak estaltzeko.
●Besteengan konfiantzarik ez.
●Higiene pertsonal txarra.

# 7. ERANSKINA. AHZekin IZANDAKO ELKARRIZKETETAN KONTUAN IZATEKO ORIENTAZIOAK

**HAU EGITEN SAIATU BEHAR DA**

> Pertsonak kontatzen duena zalantzan jarri gabe sinesten saiatu behar da, nahiz eta egiazkotasunaz zalantzak izan, gure zeregina ez baita baloratzea.

> Abusu egoeraz hitz egin dezan animatu behar da, presionatu eta eragin gabe.

> Bere konfidentzialtasun beharra errespetatzen saiatu behar da, egoera bukatzen lagun dezakeenarekin hitz egiteko aukera eman behar zaio.

> Behar izanez gero, "sekretu positiboen" eta "sekretu negatiboen" arteko aldea azaldu behar zaio.

> Ez da epaitu behar, entzun besterik ez.

> Kontatzean egindako ahalegina eta ausardia baloratu behar dira.

> Dituen erreakzioak normalak direla jakinarazi behar zaio, horrela sentitu daitekeela.

> Bakarrik ez dagoela jakinarazi behar zaio.

> Gertatutakoa ez dela bere errua jakinarazi

behar zaio, ez dela abusuaren erantzulea. Indarkeria ez da inoiz justifikatzen.

> Biktimari behar duen denbora utzi behar zaio bere erabakiak hartzeko. Ez zaio babesa kendu behar erabakitzeko denbora asko behar duelako.

> Behar izanez gero, zerrenda bat emango zaio komunitateko baliabiderik garrantzitsuenekin.

**HAU EZ EGITEN SAIATU BEHAR DA**

> Ez da erabili behar beldurtu dezakeen hitzik (delitua, polizia...).

> Ez da zalantzan jarri behar kontatzen ari zaiguna, argi ez egon arren.

> Ez zaie inoiz esan behar zer egin behar duten. Inoiz ez da erabakirik hartu behar aurrez baimenik lortu gabe. Hartutako erabakiak errespetatu egin behar dira.

> Ez da komeni egiazkoa ez den segurtasuna eskaintzea. Ez da arazoa txikitu behar.

> Ez da esku-hartze goiztiarrik egin behar.

> Ez da bere izenean mendekuzko jokabiderik erabili behar.

> Ez da gehiegi babesteko jarrerarik izan behar.

> Erasoaren zehaztasunei buruz interes handiegirik ez da erakutsi behar, pertsonak une horretan aipatu nahi ez baditu.

> Inoiz ez da umore desegokia erabili behar.

> Kontsolamendua edo aholkuak ez dira desegoki erabili behar inoiz.

> Ez da informazio gehiegirekin itsutu behar.

> Ez zaio bete ezin dugun zerbait agindu behar.

# 8. ERANSKINA. DATUEN BABESAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ETA KONTUAN IZAN BEHAR DIREN ALDERDIAK

Gomendio/betebehar hauen xedea da bermatzea ekintza ikertzen ari den bitartean eta ondoren esku hartzen duten aldeek eskura duten informazio guztia erabateko konfidentzialtasunarekin tratatuko dutela eta beharrezko neurri guztiak hartuko direla edukia hirugarrenengana iritsi ez dadin.

Informazio konfidentziala esatean hau esan nahi da: ahoz, idatziz edo beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ukiezin erabiliz esan daitekeen informazio oro, nahiz orain ezaguna nahiz etorkizunean asmatua.

Konfidentzialtasunerako beharra indarrean egongo da ikerketa osoan eta amaitzean ere bai, eta jarduera profesionala amaitutakoan ere bai, eta legez aurreikusitako kasuetan baino ezin da esan.



**NOLA JOKATU DATU HAUEN KONFIDENTZIALTASUNA GORDETZEKO.**

● Lagundiaren ingurune segurutik kanpoko inori ez eman ikerketa-prozesuaren ondoren eskura izandako datu pertsonalak, ezarri daitezkeen legeen edo arauen ondorioz behean sinatu duenaren edo erakundearen betebeharrak betetzeko ezinbestekoa ez bada edo Zuzenbidearen arabera eskumena duen agintaritzak hala agindu duelako ez bada.

● Ahal den ardura guztiarekin gorde behar da ikerketaren ondorioz eskura eduki ahal izan den informazioaren konfidentzialtasuna.

● Informazio konfidentziala soilik jaso den berariazko xedeetarako erabiliko da.

● Ez kopiatu, erreproduzitu edo erabili informazio konfidentziala ikerketa-prozesuaren ondoriozko betebeharrak betetzeko eta hari zuzenean lotutako beste gai batzuk betetzeko ez bada.

● Datuak tratatzerakoan, datu pertsonalen segurtasun egokia bermatuko da, baita baimendu gabeko edo zilegitasunik gabeko tratamenduari aurka egiteko eta ez galtzeko, suntsitzeko edo nahi gabe kalte egiteko babesa ere; horretarako, neurri tekniko eta antolakuntza mailako egokiak ezarriko dira.

# 9. ERANSKINA. BIGARREN MAILAKO BIKTIMEI BURUZKO HAUSNARKETAK

Eranskin honek bigarren mailako biktimak ere jaso eta kontuan izan nahi ditu. Estatu Batuetan egin diren jarduera batzuk datoz jarraian, emaitza ona eman dutela baitirudi. Beharbada neurri horietako batzuk planteatu ditzakegu.

“Bigarren mailako biktimak” esaten dugunean, abusurik jasan ez baina haren eraginez kaltetu direnez ari gara. Familia eta elizbarrutia dira abusuaren “bigarren mailako biktima” nagusiak.

**Abusuak jasandako adingabeen familiak osatu.**

Egia jakiten bada familiarentzat ona izango dela uste izaten da, baina errealitatea konplexuagoa da askotan.

Familian erasan handia izan dezake kideetako batek abusuak jasan dituela jakiteak. Munduko elizbarruti desberdinetan izandako esperientziaren arabera, egia jakitea lagungarria izan zen familia batzuk osatzen hasteko, baina gatazkak izan ziren beste batzuetan.

Bizirauleak horretaz ohartzen dira eta zalantzak izan ditzakete denbora luzez familiari eta elizako agintariei abusuaren berri eman aurretik.

Elizako agintariak presente egon behar dira familiarentzat eta bizirauleentzat eta haien beharrei adi ere bai.

Haurtzaroko abusua suizidiorako arrisku-faktorea da. Elizako agintariak gai izan behar dira familia hauen haserrea eta suntsipena aitortzeko eta erantzun egokia eman behar dute.

Familietan erru sentimendu handia ere agertu daiteke, Elizako bizitzan oso sartuta zeudenez seme-alabak han parte hartzera bultzatu zituztelako eta gero apaiza abusatzailea izan. Bizirik iraun duten asko gurasoak hil arte egoten dira abusuaren berri emateko, "jakinez gero hil egingo baitziren".

**Elizaren erantzuna**

Elizaren erantzunak azkarra izan behar du. Adingabeak babesteko elizbarrutiaren zerbitzuko langileak harremanetan jarri behar dira bizirauleareki n eta familiarekin, haien historia entzun eta babesa eskaini.

Babes profesionala (terapiak, zerbitzu psikologikoak eta sanitarioak) eta babes espirituala, prestatutako laguntzaileekin. Nahiz familiarentzat nahiz biziraulearentzat.

Familiek nahi izaten dute beraien historia elizbarrutiko edo kongregazioko norbaiti kontatzeko aukera izatea. Estatu Batuetako elizbarruti batzuek bizirauleen, haien familien eta bigarren mailako beste biktimen beharrei osoko erantzuna emateko berariazko programa dute.

Abusatutakoaren familiak jakin beharra dauka bizirauleak abusua aitortu dion eliza-agintaritza horrek aitortzen duela familiako kide maiteak behar terapeutikoak eta pastoralak artatzeko premia duela. Gutxienez orientazioa edo terapia eskaini zaiela jakin beharra dute, eta gotzainarekin edo elizako beste ordezkariren batekin elkartzeko aukera izan dutela ere bai, jasandako abusua aitortu dezan eta barkamena eska diezaioten.

Bizirauleek eta familiek ez dituzte beharrak berdin ulertzen beti. Elizak erantzun egokia eta ulerkorra egin behar du nahiz biziraun duenarentzat nahiz familiarentzat.

Justizia zibilak kasua prozesatzen duen bitartean, elizbarruti batzuetan kanpoko aholkulariak egoten dira laguntza zerbitzua eskainiz, beste elizbarruti batzuetan elkarrekin egiten dira eta babes legala eta espirituala eskaintzen da prozesuan.

**Erasandako parrokiak osatu**

Traumaren eragina. Akusazio bat egonez gero, eliztarrei gertatuaren txosten soil eta egiatia eskain dakieke, azpimarratu egin behar da apaiza zereginetatik kendu egin dela ikerketa errazteko eta horrek ez duela esan nahi erruduna denik.

Gai hauetan garrantzitsuena adingabea babestea da. Ez da egokia elizako agintariek eliztar laikoei egia ezkutatzea. Elizarenganako konfiantzari min handiagoa ematen zaio zehaztasunik gabeko eta gezurrezko informazioa ematen bada, hau arazoa izan daiteke gainerako apaizentzat eta akusatuaren ordezkoarentzat.

Horrelako egoeretan hobe da komunitatea ezagutzen eta komunitateaz kezkatzen den norbaitek albisteak bidaltzea eta mezua helaraztea, parrokian izango duen balizko eragina kontuan izanda. Egoera manejatzeko modu pastoralagoa eta sentsibleagoa da, eliztarrek tokiko edo nazioko komunikabideetan entzutea baino.

Igorri beharreko mezu giltzarriak: damua, abusatuekiko kezka eta babesa eskaintzeko prestutasuna.



Informatzeko beharra ez da amaitzen apaiza ministeriotik kentzen denean, garrantzitsua da elizako gainerako apaizek prozesuaren garapenaren berri ongi jakitea, jendearen galderei erantzun ahal izateko.

Elizgizon batek abusuak egin baditu, oso lagungarria da elizako komunitateari informazioa emango dion maila handiagoko elizgizon bat egotea.

Garrantzitsua da bigarren mailako biktimak beraien beharrak adierazteko gai izatea eta entzuten zaiela jakitea.

**Osatze-prozesua**

Entzuteko bilerak elizbarrutiko ordezkariarekin, pertsonaren kezkak eta zauriak entzuten dira eta elizbarrutiko ordezkariak ahal den informazio guztiaren berri ematen du gardena izateko, baita salaketaren eta salatutako apaizaren egoerarena ere.

Estatu Batuetan zirkulu konpontzaileak daude. Eliza katolikoaren abusu infantilengatik sufritu dutenak biltzen ditu, familiak eta beste pertsonak, baita neurriak hartzeko agintaritza postuetan zeudenen zabarkeriagatik zauritu direnak ere. Profesional kualifikatuek zuzentzen dituzte osatzeko zirkulu hauek eta partaideek beraien esperientziez hitz egin dezakete etenik gabe edo inork ezer esan gabe eta beste partaideen ekarpenak entzuten dituzte.

Ez da terapiaren edo zehapen prozesuen edo prozesu zibilen ordezkoa, baizik eta fedean sendatzeko eta lehengoratzeko aukera da.

Elizgizonek adingabeei egindako sexu-abusuak egiten duen kaltea areagotu egin da elizako agintariek neurri egokiak hartzerakoan huts egin dutelako. Hutsa bikoitza izan da: abusuaren berri eman zutenei modu pastoral egokian erantzutean egon da hutsa eta abusatzaileek abusuekin jarraitzea ekiditeko neurri eraginkorragoak hartzean ere bai.

Hitzak eta ekintzak bat etorri behar dira.

# 10. ERANSKINA. GLOSARIOA

**ABUSUA ZAINTZAN**: Haztapenaren antzekoa. Haur bat zaintzeko aitzakiarekin (garbitzean, pixoihalak aldatzean...) justifikatu gabeko denbora batez haurraren gune intimoren bat ukitzen duenean gertatzen da. Bereizi egin behar da haur baten genital zikinak garbitzea eta kitzikatzeko estimulatzea.

**ABUSU-EKINTZA**: Gizabanako batek egindako abusuzko ekintza bat, pertsona baten beharrezko baimenik gabe, pertsona horren adinagatik edo ezgaitasun fisiko edo psikikoagatik, behar adinako heldutasunik ez duelako edo zaurgarria delako. Abusu hitza latinetik dator: *ab*, harago esan nahi du, gurutzatu, gainditu; eta *us*, gizarte jakin batek onartutako ohitura.

**SEXU-ERASOTZAILEA**: Legezko termino bat da eta sexu-krimen bat egin duen pertsona definitzen du, abusua dena delakoa izan arren. Adingabeei egindako sexu-abusuari dagokionez, azpimarratu beharra dago haurren abusatzaile guztiak ez direla pedofiloak. Batzuk haurrengana zaurgarritasunagatik joaten dira, ez erakarpenagatik. Pedofilia nahasmenduak dituzten asko ez dira sexu-abusatzaileak, adibidez, ez badute haur batez abusatu edo ez badute haur-pornografia erabili, horiek biak delituak baitira. Dena dela, fantasia pedofiloak behin eta berriro erabiltzea desbideraketatzat jotzen da, baina ez abusutzat, delitua egoteko ekintza egon behar baitu, pentsatzea ez da delitua. Hau da, horrelakoek arreta klinikoa behar dute ahalik eta lasterren.

**ANNILINGUS**: Haurraren, abusatzailearen edo beste pertsona edo biktima baten uzki ingurua ahoarekin estimulatzea.

**AUTORITATEA:** Pertsonak hainbat banakorekiko duen boterea da, zuzenbide naturalak legitimatua (aitatasuna, esaterako) edo gizarteak boterea eman diolako (eskumenak, ordenazioa, kargu...). Duintasuna eta errespetua ematen dizkio aginduak emateko, besteen gidari izateko eta soilik bere funtzioari dagozkion ekintza eta erritual batzuk egiteko.

**BAIMEN INFORMATUA**: Pertsona batek beste batekin adosten du askatasunez zerbait egitea eta bere baimena ematen dio horretarako. Legezkoa eta balio duena izateko, baimenak legezko baldintza batzuk bete behar ditu, adibidez, haur batek heldu batekin sexu-harremanak izateko baimena ematea ez da legezkoa eta baliozkoa.

**CUNNILINGUS**: Kanpoko genital femeninoak edo abusatzailearen genitalak edo beste pertsona edo biktima batenak ahoarekin estimulatzea da.

**DESAHALDUNTZEA**: Abusuaren bidez pertsona batek izan dezakeen ezgaitasun zentzua da. Bere buruarengan eta gainerakoengan konfiantza galtzen da erabat, ez du uste babesa eta segurtasuna eskainiko diotenik.

**DIMENTSIO SISTEMIKOA**: Errealitate baten dimentsio soziala da. Adingabeen sexu-abusuan dimentsio sistemikoa bi modutara hartu daiteke kontuan: abusuaren dimentsio sozio-kulturala eta familiaren enfokea. Bi hauetan elementu talde bat dago (sistema bat) eta elementu talde horrek abusuzko eskema sustatu, erraztu eta mantendu dezake.

**DISTORTSIO KOGNITIBOA**: Pertsona batek egiazkoak direla uste izan, baina errealitatearekin bat ez datozen pentsamenduak. Munduaren, pertsonen arteko harremanen eta gauzen ikuspegi distortsionatuak dira. Adingabeen abusua ahalbidetzen duen munduaren ikuspegia eragin dezake eta abusuzko ekintza bat justifikatzeko edo minimizatzeko balio dezake.

**EFEBOFILIA**: Nerabeekiko erakarpen sexuala.

**AHALDUNTZEA:** Prozesu honen bidez pertsona batek singularitatearen eta segurtasunaren zentzua lortzen du berriro. Biktimologiako helburu terapeutiko nagusia da.

**PREBALENTZIA-AZTERKETAK:** Populazio jakin batean fenomeno partikular batek duen prebalentzia ardatz duten azterketak dira. Galdera honi erantzuten saiatzen dira: Zenbat pertsonak egiten du hau ala bestea populazio honetan edo bestean? Epidemiolgia izeneko diziplina zientifiko baten zati dira.

**EXHIBIZIONISMOA**: Norbaiten genitalak beste pertsona bati erakustea.

**PORNOGRAFIA ERAKUTSI**: Haur bati pornografia erakustea (aldizkariak, Internet, bideoak, audioak, argazkiak...). zuzeneko harremanik egon ez arren, haur bati eduki pornografikoak erakusteak esan nahi du material hori ekoiztean egondako abusuari ekarpena egiten diozula, eta erakusten zaion haurraren perbertsioari ere bai.

**FELAZIOA:** Abusugileak biktima derrigortu egiten du ahoarekin bere zakila estimulatzera edo biktimarena estimulatzen du edo beste pertsona edo biktima batena. Ahoko sarketa mota bat da. Ahoko sarketa eskuekin, mihiarekin edo objektuekin ere egin daiteke eta ez du zertan organo genital maskulinoa izan behar abusutzat jotzeko.

**FETITXISMOA**: Haurren baten gauzaren batekin kitzikatzen denean pertsona bat, edo haur batek ukitu duen zerbaitekin, soineko batekin, jostailu batekin... Haurraren gorputzeko zatiaren batean fijatzean sortzen den fantasia multzo desordenatua ere izan daiteke.

**INDARTZEA:** Prozesu honen bidez pertsonak gaitasuna du harmonia eta segurtasuna berreskuratzeko. Biktimaren lanean xede terapeutiko nagusia da.

**FROTISMOA EDO FROTEURISMOA**: Pertsona bat ukitzea edo igurztea bere baimenik gabe, kitzikapena lortzeko.

**INTZESTUA**: Familiako kide batek (aita, ama, senidea, osaba, izeba, aita-ordea, ama-ordea edo adopzioko gurasoak) beste bati egiten dion sexu-abusua da. Batzuentzat apaiz, gidari espiritual edo aitaponteko batek egindako abusua "intzestu espirituala" izan daiteke, gidari espiritual gisa duten pisuaren ondorioz.

**MUGAK**: Norbaitek bere integritatea edo osotasuna babesteko dituen trabak dira. Traba ikusezinak dira, bere burua fisikoki, psikologikoki eta espiritualki defendatzeko ezartzen dituenak.

Pertsona baten alteritatearen eta dibertsitatearen adierazpenak dira eta pertsona hori babestu egiten dute. Ohiko jokabide sozialen bidez, arauen bidez edo tabuen bidez ikusgarri bihur daitezke.

**TRATU TXARRA:** Termino orokorra da eta negligentzia eta abusu fisiko, psikologiko, emozional eta espiritual mota oro hartzen du bere baitan. Negligentziak eta abusuak egiten zaizkio zaintzeko beharra duen norbaiti (adibidez, gurasoek seme-alabei). Baina zaintza bereziak behar dituzten pertsona zaurgarri denak hartzen ditu bere baitan (adineko bat edo ospitaleko paziente bat tratu txarren biktima izan daiteke).

**ABUSUZKO MASTURBAZIOA**: Haur baten genitalak eskuz estimulatzea edo haurrak zu zeu estimulatzea, haur baten gorputzaren gainean zeure burua estimulatzea eiakulazioarekin edo gabe.

**EREDU PATRIARKALA:** Gizarteko eredu egituratua da, gizakien eta aitatasunezko irudien nagusia eta autoritatea azpimarratzen ditu emakume eta haurrekiko.

**HAURRA:** Haurren eskubideak babesteko NBEren Konbentzioaren 1. artikuluaren arabera, haurra da "*hemezortzi urtez azpiko gizaki oro, non eta ezar dakiokeen legearen arabera adin-nagusitasuna lehenago lortu ez duen*". Baina garrantzitsua da haurra eta adingabea bereiztea. Haurra, garapenaren terminoetan, zero urtetik pubertarora arteko (13-14 urte) pertsona bat da. Hortik aurrera nerabea da. *"Adingabea"* legezko termino bat da eta hemezortzi urtez azpiko pertsona esan nahi du.

**HAZTAPENA:** Haurraren gorputzeko zati jakin bat kitzikatzeko unitzea da. Arroparen gainetik edo azpitik egin daiteke. Dena dela, gehienetan gorputzeko atal sexualetara mugatzen den arren, abusatzailearentzako edozein gune izan daiteke kitzikagarria.

**PEDOFILIA**: buruko nahasmendua da eta pubertate aurreko haurrekiko erakarpen sexuala izaten da. Pedofilo guztiak ez dira abusatzaileak. Pedofilo batzuek inoiz ez dute abusatuko, baina pentsamendu horiek izango dituzte.

**SARKETA SEXUALA:** Zakila, behatza edo objektu bat genital femeninoetan sartzea da edo haur bat emakume abusatzaileari sarketa egitera derrigortzea, edo beste pertsona edo biktima bati.

**HAUR- ETA GAZTE-PORNOGRAFIA:** Pornografia mota bat da (argazkia, bideoa, aldizkariak, audioa...) eta haurrak edo nerabeak abusatzen dira, jarduera sexualak egiten dituzte edo jarrera sexualetan egoten dira. Esan beharra dago Kanada bezalako herrialde batzuetan adinez nagusia den aktore porno bat adingabearena egiten ari bada, haur-pornografiatzat hartzen dela, adingabe batekin izaten diren sexu-harremanak adieraztea baita horren xedea. Era berean, adingabeen pornografia ekoiztea, argazkiak edota bideoak egitea, adingabeen material sexual argi eta garbia banatzea ere adingabeen sexu-abusua da eta delituzko ekintza ondorio guztietarako.

**HAUR-PROSTITUZIOA:** Haur bat sexualki esplotatzea hirugarrenekin prostituzioan aritzeko, dirua edo onurak lortzearen truke.

**SADOMASOKISMOA**: Pertsona batzuek indarkeria erabiltzen dute kitzikatzeko eta, ondorioz, haur batez abusatzen duten bitartean indarkeria fisikoa eta psikologikoa erabiltzen dituzte haurrarekin. Nahasmendu parafiliko honetan biktimaren sufrimenduaren bidez lortzen da kitzikapena.

**SODOMIA:** Haur bati uzkiko sarketa egitea da edo abusatzailearen edo beste pertsona edo biktima baten uzkian sarketa egitera derrigortzea zakila, behatza edo objektu bat.





**BIZIRAULEA:** Egoera traumatikoa gainditzeko borrokan dabilen biktima da.

**TRABESTISMOA:** Rol jokoak erabiltzea edo trabestitzea, haurrarekin kitzikapena lortzeko.

**BIKTIMA:** Tratu txarrak, negligentzia, abusua edo egoera traumatikoa jasan duen pertsona da, horrek eragina izan du eta bere osotasun fisikoa, psikologikoa, soziala eta espirituala kolokan jarri dut, ongizatea jartzeaz gain.

**VOYEURISMOA**: Beste pertsona bati begira egotea kitzikatzeko, hark honen berri izan gabe.

# 11. ERANSKINA INGURUNE SEGURUAREN SISTEMA EZAGUTZEKO ETA BAT EGITEKO KONPROMISOA

- Baieztatzen du irakurri dudala, ezagutzen dudala eta bat egiten dudala Jesusen Lagundiko Espainiako Probintziako eta instituzio honetako, ............................................................................ ........................................................... , "Ingurune Seguruaren Sistema" prozedurako printzipioekin. Prestakuntzak eta aurkeztu zaidan ISS Eskuliburuan daude printzipio horiek eta Jokabide Kodearekin bat datoz.

- Berresten du instituzio honetan indarrean dagoen Ingurune Seguruko Sistema ezartzen eta hobetzen laguntzeko prest nagoela eta arlo honetan proposatutako zaizkidan gaikuntzetan parte hartzeko ere bai. Eta hitza ematen dut Jesusen Lagundiko ISSn ezarritakoaren arabera jokatuko dudala eta bertako edukia onartzen dudala.

- Adierazten dut badakidala instituzio honetako ISSren arduraduna ........................................... ............................................................................................. dela eta berarengana zuzenduko naizela kontsulta orokorren bat badut edo berariazko gertakariren baten berri badut edo susmoa badut, instituzio honek artatutako adingabeen eta heldu zaurgarrien babesari eta zaintzari dagokionean.

Izena: ..........................................................................................................................

Herria: ..........................................................................................................................

Data: ..........................................................................................................................

Sinadura

(Bi ale sinatuko dira eta kopia bat koordinatzaileak edo ISSko tokiko arduradunak gordeko du eta bestea Probintziako ISSko arduradunak).

# 12. ERANSKINA. AHZekin jarduerak dituzten EPJL bertako edo atxikitako obrak

## IKASTETXEAK: ELKARTUTAKO EDUCSI

ALCALÁ. San Ignacio
ALACANT. Inmaculada
BADAJOZ. Virgen Guadalupe
BILBO. Begoñako Ama.
BILBO. Eskola Kim./Elekt.
BURGOS. La Merced eta San Francisco Javier
A CORUÑA. Sta. Mª del Mar
DURANGO. San Jose
GANDÍA. Borja
GIJÓN. Inmaculada
GIJÓN. Revillagigedo
LEÓN. Sagrado Corazón
LOGROÑO. Sdo. Corazón
MADRIL Ntra.Sra.Recuerdo
MADRIL Padre Piquer
OVIEDO. San Ignacio
PALMA. Nª Sª de Montesión
IRUÑA. San Ignacio
SALAMANCA. San Estanislao de Kostka
DONOSTIA. S. Ignazio
SANTANDER. Kostka
TUTERA. San Fco. Javier
VALENTZIA. Esc. San Jose
VALLADOLID. I.P. Cristo Rey
VALLADOLID. San José
VIGO. Apóstol Santiago
VILLAFRANCA. San José

**ZERIKUSIA DUTEN EDUCSI**
SAFA fundazioa
Fundació Jesuïtes Educació
Loyola fundazioa Andaluzia
Radio ECCA fundazioa
Escuelas de Cristo Rey fundazioa Valladolid
Loyola fundazioa Asturias
Loyola fundazioa Erdialdea
Loyola fundazioa Galizia
Fundación Social Ayuda Educación (FSAE)
Pedro Arrupe fundazioa (Valentzia)
*Cardener fundazioa
Diocesanas – Jesús Obrero fundazioa (Vitoria – Gasteiz)
Fundació Sant Ignasi Sarriá
Fundació Amics del Claver Lleida
Fundació Sant Pere Claver Clot Bartzelona
Recuerdo kultura eta kirol fundazioa Madril
Pastrana fundazioa Madril
Montesión fundazioa Palma
San José fundazioa Villafranca
Jesús María el Salvador fundazioa Zaragoza

## UNIBERTSITATEAK:

**ELKARTUTAKO UNIJES:**
BARTZELONA. ITF
BILBO. Deustuko Unibertsitatea.
GRANADA. Teologiako Fakultatea.
MADRIL Universidad Pontificia de Comillas



VALLADOLID. INEA
BILBO. Deustuko ikasle-egoitza nagusia
MADRIL Comillas ikasle-egoitza nagusia
MADRIL Loyola ikasle-egoitza nagusia
SANTIAGO. San Agustín ikasle-egoitza nagusia
VALLADOLID. Menendez Pelayo ikasle-egoitza nagusia

**ZERIKUSIA DUTEN UNIJES:**
BARTZELONA. IQS
BARTZELONA. ESADE
BARTZELONA. Xavier fundazioa (Turismo-eskola)
KORDOBA. ETEA-DECO fundazioa
BILBO. Deusto fundazioa
MADRIL Comillas unibertsitate-fundazioa
SEVILLA. ULA fundazioa
ÚBEDA. SAFA UNIVERSIDAD irakasle-zentroa (SAFA fundazioarena)

**SOZIAL ALINEATUAK:**
ALACANT. Nazaret ( P. Fontova SJ fundazioa barne)
MADRIL "Santo P. Rubio" migranteen zentroa

**ZERIKUSIA DUTEN SOZIALAK:**
BILBO. Alboan
MADRIL Entreculturas
SJM Espainia
BADAJOZ. Asociación para la Libertad
BADALONA. Fundació Privada la Salut Alta
BARTZELONA. Arrels Fundació
BARTZELONA. Fundació Carles Blanch
BARTZELONA. Fundació Lluis Espinal (Cristianisme i Justicia)
BARTZELONA. Fundació Migra Studium
BARCELONA, Fundació La Vinya
BILBO. Ellacuría Fundazioa
BURGOS. Atalaya Intercultural elkartea
DURANGO. Jesuiten Etxea elkartea
GIJÓN. Hogar de San José fundazioa
LLEIDA. Fundació Sant Ignasi- Arrels
MADRIL Amoverse fundazioa
MADRIL San Juan del Castillo fundazioa
PALMA. Padre Montalvo fundazioa
DONOSTIA. Loiolaetxea elkartea
SEVILLA. "Loyola-Torreblanca" elkarte kultural eta soziala
SEVILLA. Claver boluntarioen elkartea
TUTERA. San Fco. Javier fundazioa - Lasa zentroa
VALENTZIA. Pedro Claver harrera-pisua
VALLADOLID. Red Íncola fundazioa

## PASTORALA

**FEDE-KULTURA-JUSTIZIA ZENTROAK:**
A CORUÑA. Fonseca zentroa
ALACANT. Loyola zentroa
ALMERIA. Indalo Loyola zentroa
BARTZELONA. Cristianisme i Justicia (Fundació Lluís Espinal)
BILBO. Loiola zentroa (Bilbo, Iruña, Donostia, Gasteiz)
BURGOS. La Merced pastoral-zentroa
KORDOBA. San Hipólito zentro kulturala
ELX. Loyola zentroa
GRANADA. Fco. Suárez zentroa (Fco. Suárez fundazioa)
HUELVA. Javier zentroa
LAS PALMAS. KANARIAK. Loyola zentroa (Fco. Suárez fundazioa)
LOIOLA. Loiola Zentroa
MADRIL Arrupe zentroa, unibertsitate-pastorala
MADRIL Entreparéntesis zentroa
MÁLAGA. Pedro Arrupe pastoral-zentroa (Fco. Suárez fundazioa)

MURTZIA. Loyola pastoral-zentroa
DONOSTIA. Loiola zentroa:
Arrupe-Etxea fundazioa
SANTANDER. Loyola zentroa
SEVILLA. P. Arrupe zentroa
(Fco. Suárez fundazioa)
VALENTZIA. Arrupe zentroa
VALLADOLID. Fe y Desarrollo institutua
ZARAGOZA. Pignatelli zentroa:

**ESPIRITUALITATEA ETA GOGOJARDUNAK:**
ALAQUÁS. La Purísima gogartetxea
ALCALÁ. S. Ignacio otoitz-etxea
BARTZELONA. Sarrià gogartetxea
CELORIO. San Ignacio gogartetxea
DOS HERMANAS. San Pablo gogartetxea
XABIER. NAFARROA. Espiritualitate zentroa
EL PUERTO. STA. MARÍA, CÁDIZ
La inmaculada gogartetxea
LAS PALMAS. KANARIA HANDIA.
Los Lagares gogartetxea
LOIOLA. Loiolako gogartetxea
MADRIL Espiritualitateko institutua
MANRESA. Cova Sant Ignasi
PALMA. San Alonso Rodríguez gogartetxea
PEDREÑA. CANTABRIA
San Ignacio gogartetxea
RAIMAT. Casal Claver
SALAMANCA. San Ignacio gogartetxea
TENERIFE. Manresa gogartetxea
VILLAGARCÍA. VALLADOLID.
San Luis gogartetxea
ZARAGOZA. Quinta Julieta gogartetxea

## UNIBERTSITATEKO PASTORALA ETA GAZTE HELDUENA:

BADAJOZ. Loyola zentroa
BARTZELONA. Centre Casal Loiola
BARTZELONA. Com.Crist.S.PereClaver del Clot
GIJÓN. Loyola gazte-zentroa
MADRIL. Arrupe zentroa
MADRIL. Grup.Catól.Loyola
(Unib. eta gazte helduak)
OVIEDO. Loyola zentroa
SALAMANCA. Milago gazte-zentroa
SANTIAGO. S.Francisco Javier zentroa
SEVILLA. Arrupe zentroa
VALENTZIA. Arrupe zentroa
VALLADOLID.
VIGO. Loyola gazte-zentroa
ZARAGOZA. Pignatelli zentroa

**BESTEAK:**
MADRIL Otoitz-apostolutza
(Aita Santuaren otoitzeko mundu sarea)
BARTZELONA Inaziotar bidea
obra apostolikoa Erromesaren bulegoa.

**ZERIKUSIA DUTEN PASTORALAK:**
BARTZELONA. Fundació Joan Martí Tusquets
(Casal Loiola)
BILBO. Arrupe Etxea fundazioa
GRANADA. Francisco Suárez fundazioa.
Centro Arrupe-Fundación Francisco Suárez
de Sevilla bezala agertzen da.
MANRESA. Fundació Cova Manresa
ZARAGOZA. Bakerako ikerketa
fundazio-mintegia

**PARROKIAK:**
ALMERIA. San Ignacio parrokia
ALMERIA. Ntra. Sra. Araceli parrokia
ALMERIA. Buen Pastor parrokia
BADAJOZ. Santísima Trinidad parrokia
EL PUERTO DE STA. MARÍA.
San Francisco parrokia
GIJÓN. San Esteban del Mar parrokia
HOSPITALET. Mare de Deu



de Bellvitge parrokia
XABIER. Anunciación parrokia
LLEIDA. Sant Ignasi parrokia
LOGROÑO. San Ignacio parrokia
MADRIL San Francisco Javier y S. Luis Gonzaga parrokia
MADRIL San Francisco de Borja parrokia
PALMA. San Juan de Avila parrokia
RAIMAT. Sagrat Cor parrokia
SALAMANCA. Milagro de San José parrokia
SEVILLA. San Antonio de Padua parrokia
SEVILLA. Inmaculado Corazón de María parrokia
TUTERA. Ntra. Sra. Lourdes parrokia
VIGO. San Francisco Javier parrokia

**ELIZAK:**
A Coruña Sagrado Corazón
Bartzelona. N. S. de la Victoria
Bartzelona. Sagrat Cor
Bilbo. Bihotz Santua
Bilbo. Begoñako Ama
Burgos. La Merced
Kordoba. San Hipólito
Gandía. Sagrado Corazón
Gijón. La Inmaculada
Granada. Sagrado Corazón de Jesús
Huelva. San Francisco Javier
Huesca. San Vicente Mártir
Xabier. San Francisco Javier
Las Palmas. San Francisco de Borja
Loiola. Loiolako San Ignazio
Málaga. Sagrado Corazón de Jesús
Manresa. Cova sant Ignasi
Murtzia. Santo Domingo
Oviedo. Sagrado Corazón
Palma Mallorcakoa. N. S. de Monti-sion
Iruña. Inmaculada
Donostia. Bihotz Santua
San Cugat. Centre Borja
Santander. Sagrado Corazón
Santiago. San Agustín
Sevilla. Portaceli
Sevilla. Sagrado Corazón de Jesús
Valladolid. Sagrado Corazón de Jesús
Vigo. Los Apóstoles
Zaragoza. San José Pignatelli

**BESTEAK:**
BILBO. Ugasko elkartea
BILBO. Loiola komunikazio-taldea.
BARTZELONA. Fundació Institut
Borja de Bioética
GANDÍA. Fundació Palau Ducal Gandía
MADRIL Elosúa Rojo fundazioa
MADRIL Instituto Interacción y Dinámica
Personal
SEVILLA. Hermida de la Chica fundazioa
SEVILLA. San Rafael fundazioa

## KOMUNITATEAK:
Alcalá de Henares. S. Ignacio egoitza
Alacant. Inmaculada ikastetxea
Almería. .S.José Mª Rubio komunitatea
Badajoz. V. de Guadalupe eskola
Bartzelona. Comunitat El Clot
Badalona. Comunitat La Salut Alta, Badalona
Bartzelona. Comunitat Xavier
Bartzelona. Comunitat N.Sra.Victòria
Bartzelona. Comunitat Sagrat Cor
Bilbo. Begoña ikastetxea.
Bilbo. Deustuko Unib. komunitatea
Bilbo. Arrupe Etxea
Burgos. La Merced egoitza, Burgos
Córdoba. San Hipólito komunitatea.
Durango (Bizkaia). S. Jose ikastetxea
El Puerto de Sta María.
S. Luis Gonzaga komunitatea

Esplugues .Comunitat Pubilla Cases, Esplugues
Gandía. S. Fco Borja egoitza
Girona. Comunitat Pere Favre
Gijón. Natahoyo komunitatea
Granada. Cartuja komunitatea
Granada. Sdo. Corazón Jesús komunitatea
Huelva. S. Fco. Javier komunitatea
Javier. Sant. S.Fco Javier
A Coruña. Sdo. Corazón egoitza
Las Palmas Kanaria
H. S. Ignacio komunitatea
L'Hospitalet de Llobr.. Comunitat Bellvitge
Lleida. Comunitat Sant Ignasi
Logroño. Sdo. Corazón heziketa-zentroa
Loiola-Azpeitia. Loiolako santutegia
Madril.  Profesores ikastetxea
Madril. Profesores
UP Comillas ikastetxe egoitza
Madril. UPCO ikastetxe nagusia, Madril
Madril. Nuestra Señora del Recuerdo ikastetxea
Madril. Sagrado Corazón y S. Fco. Borja egoitza
Madril.  San Pedro Fabro egoitza
Madril. Piquer ikastetxea (ORAIN Ventilla 103)
Madril. Probintziako Curia
Madril. NN. Sagrado Corazón ikastetxea
Madril. NN. Francisco de Villanueva ikastetxea
Málaga. Sdo. Corazón Jesús komunitatea
Málaga. S. Estanislao komunitatea
Manresa (Barna).Comunitat Cova S. Ignasi
Murtzia. Sto Domingo egoitza
Oviedo. S. Ignacio egoitza
Palma. Montesión ikastetxea
Iruña. S. Ignacio ikastetxea
Raimat. Comunitat Claver
Salamanca. S. Estanislao ikastetxea
Donostia. Loiolaetxea komunitatea
Donostia.  Bihotz Santua egoitza
Donostia. Nobiziatua
Sant Cugat. Centre Borja
Santander. SJ egoitza
Santiago.  SJ egoitza
Sevilla. Portaceli komunitatea
Sevilla. Sdo. Corazón Jesús komunitatea
Sevilla. S. Pedro Claver komunitatea
Tutera (Nafarroa). S.Fco Javier komunitatea
Valentzia. San José eskolak
Valentzia. San Ignacio egoitza
Valladolid. San José eskola
Valladolid. Corazón de Jesús egoitza
Vigo. Apóstol Santiago ikastetxea
Villafranca. S. José ikastetxea
Villagarcía.  S. Luis egoitza
Zaragoza. Del Salvador ikastetxea
Zaragoza. Pignatelli zentroa



# 13. ERANSKINA Erreferentziazko araudia

a. Haurren eskubideei buruzko konbentzioa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua 1989ko azaroaren 20an .

b. Haurren eskubideei buruzko konbentzioaren protokolo fakultatiboa, haurren salmentari, haur-prostituzioari eta haurrak pornografian erabiltzeari buruz, New Yorken egina 2000ko maiatzaren 25ean .

c. Haurren eskubideei buruzko konbentzioaren protokolo fakultatiboa komunikazioen prozedura bati buruz, New Yorken egina 2011ko abenduaren 19an .

d. Haurren eskubideei buruzko Europako Hitzarmena, Estrasburgen egina 1996eko urtarrilaren 25ean .

e. Haurrak sexu-esplotazio eta -abusutik babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Lanzaroten egina 2007ko urriaren 25ean.

f. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/92/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, adingabeen sexu-abusuei eta sexu-esplotazioari eta haur-pornografiari aurka egitekoa, Kontseiluaren 2004/68/JAI Erabaki markoa ordezkatzen duena .

g. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/649/EB Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa datu pertsonalen tratamenduan eta datu hauen zirkulazio librean eta 95/46/EC Zuzentaraua (datuen babeserako erregelamendu orokorra) indargabetzen duena .

h. Espainiako Konstituzioa: Zenbait artikulutan, besteak beste:  10.1 ; 14 ; 18;  9.2 art.

Era berean, autonomia-erkidego bakoitzean gai honetan agertuko diren lege, protokolo, plan eta gainerako neurrien eguneratzeak onartu beharko dituzte. Era berean, JLEPko langile guztiek bat egin beharko dute bertako Jokabide Kodearekin.

# 15. ERANSKINA. INTERESEKO BIBLIOGRAFIA, AGIRIAK ETA MATERIALAK

**AGIRIAK ETA ERREFERENTZIAK ELKARTEEN WEBGUNEETAN:**

Vos Estis Lux Mundi. Frantzisko aita santua 2019. https://es.zenit.org/articles/motu-proprio-del-papa-francisco-vos-estis-lux-mundi/

www.jesuitas.es **webgunean** agiri hauek daude:

- Jesusen Lagundiaren Espainiako Probintziako jokabide-kodea

- Pastoral ministerioa betetzeko jarraibideak

- Adingabeekin jokatzeko moduak, jarrera desegokiak saihesteko. Adingabeen eta pertsona zaurgarrien abusu kasuetan esku-hartzeko protokoloa.

(Agiri hauek esteka honetan kontsultatu eta deskargatu daitezke: https://jesuitas.es/es/cultura-de-la-proteccion-prevencion-de-abusos).

**Espainiako gotzainen batzarra** (2010). Protocolo de actuación según la legislación del estado. Protocolo 9/10, Secretaría General. Espainiako gotzainen batzarra. 2016an kontsultatua hemen: http://laicismo.org/wp-content/uploads/2015/02/Protocolo-Civil-ConferenciaEpiscopal-2010.pdf

**OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA** (2014) Protocolo básico de intervención contra el maltrato infantil en el ámbito familiar. Colección Informes, Estudios e Investigación, Madrid. 2015ean kontsultatua hemen: http://www.observatoriodelainfancia.msssi.gob.es/productos/pdf/MaltratoInfantil_accesible.pdf

Guía para la elaboración de protocolos de prevención y actuación frente al abuso sexual infantil en centros educativos y otros servicios que atienden a niños y adolescentes

Carmela Guerrero Acosta Antonio M. Fernández Barba. 2016ko ekaina.

UNICEF-Hezkuntza Ministerioa (2009) Programa Mi Sol. 2015ean kontsultatua hemen http://www.unicef.cl/centrodoc/ficha.php?id=326

Hainbat egile (2001) Abuso sexual infantil: manual de formación para profesionales. Ed. Save the Children. 2015ean kontsultatua hemen https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/manual_abuso_sexual.pdf

Sal Terrae Aldizkaria. 2017ko uztaila: *El Abuso sexual a menores. Prevención, actuaciones y acompañamiento.*

**DECÁLOGO DE ESCUELAS CATÓLICAS:**

Pereda N. (2016). ¿Uno de cada cinco? La victimización sexual infantil en España. Papeles del Psicólogo, 2016. 37(2) alea, 3-13. or. 2016an kontsultatua hemen: http://www.bienestaryproteccioninfantil.es/fuentes1.asp?sec=2&subs=47&cod=2290&page=

https://www.youtube.com/watch?time_continue=16&v=nVBOUdZ4o7s

http://www.elmundodelosasi.org/

http://www.fapmi.es/

http://www.fundacionrana.org/es/

http://www.fbernadet.org/es/

https://migueladame.blogspot.com.es/

https://www.savethechildren.es/conoce-tus-derechos/ayuda

**LIBURUAK:**

¡Soy testigo! Mª Rosaura González Casas, STJ

Padre, le perdono. Daniel Pittet

Víctimas de la Iglesia: relato de un camino de sanación

Hágase la luz. Iglesia católica y abuso sexual a menores. Miguel Campo Ibañez, Sal Terrae, 2016

Dios mío, ¿por qué me has abandonado? Hans Zollner, 2017

Robert, J. (2007). ¡Qué no se pasen contigo! Los abusos explicados a los niños. Octaedro.

Echeburúa, E. eta Guerricaechevarría, C. (2000). Abuso sexual en la infancia: víctimas y agresores. Bartzelona: Ariel.

Echeburúa, E. eta Guerricaechevarría, C. (2006). Concepto, factores de riesgo y efectos psicopatológicos del abuso sexual infantil. In J. Sanmartín (Ed.), Violencia contra los niños. Bartzelona: Ariel.

Mebes, M. eta Sandrock, L. (2002). Ni un besito a la fuerza. Bilbo: Maite Canal. Dirección General del la Mujer, Comunidad de Madrid.

Vázquez, B. (1995). Agresión sexual. Evaluación y tratamiento en menores. Madril: Siglo XXI.

**IRADOKITAKO FILMAK ETA DOKUMENTALAK:**

"Examen de conciencia" "Gracias a Dios", "Spotlight", "Obediencia perfecta", "No tengas miedo"

**INSTITUZIO PUBLIKOEN JARDUTEKO PROTOKOLOAK ERKIDEGOEN ARABERA:**

**ANDALUZIA**:

https://www.juntadeandalucia.es/temas/familias-igualdad/infancia/maltrato.html

**KATALUNIA:**

Procedimientos de la Generalitat i Ajuntament de Barcelona

https://ajuntament.barcelona.cat/drets-socials/sites/default/files/arxius-documents/guia_prevencio_abusos_sexuals_activitats.pdf

http://xtec.gencat.cat/ca/centres/projeducatiu/convivencia/protocols/assetjament-ciberassetjament-entre-iguals/index.html

http://xtec.gencat.cat/ca/centres/projeducatiu/convivencia/

**MADRIL:**

http://www.comunidad.madrid/servicios/asuntos-sociales/maltrato-infantil

**ERKIDEGO GUZTIETARAKO**

**Guardia Zibila**

http://www.guardiacivil.es/es/servicios/violenciadegeneroyabusoamenores/index.html

Helbide honetan kalkulu-orri bat deskargatu daiteke autonomia-erkidego guztietako Guardia Zibilaren Emakume eta Adingabeentzako arreta eta ikerketa taldeen (EMUME) helbide eta telefonoekin.

http://www.guardiacivil.es/documentos/contenidos_reutilizables/direcciones_equipos_mujer_menor_guardia_civil.csv

# INGURUNE SEGURUAREN ALDE




Ingurune Seguruaren Sistema (ISS) honen helburua Espainia Probintziako Jesusen Lagundiaren beraren edo EPJLrekin zerikusia duten obra edo instituzio guztietan, **gune** seguruak, **jarduera** seguruak eta **harreman** seguruak sortzea eta sustatzea da.

## HORI DELA ETA, EKINTZA HAUEK BULTZATZERA GONBIDATZEN ZAITUGU:

- giro atseginak, errespetuzkoak eta seguruak sortzera
- egoera zaurgarrian dagoen adingabe edo pertsona (ZAP) oro artatzera, babestera eta zaintzera
- zure inguruko guztien artean Tratu Ona sustatzera
- gehiegikeriei aurrea hartzeko ahal den guztia ikastera eta sust atzera
- egiten ari garen praktika on guztiak hedatu eta etengabe hobetzera
- ikusten duzun praktika desegoki oro edo ezagutzen duzun gehiegikeria oro salatzera

**Sistema honen bidez INGURUNE SEGURUA lortzea da gure ametsa, baina egia bihurtzeko ZU BEHAR ZAITUGU. Gurekin bat egingo duzu?**

Instituzio/zentro/obra/talde honetan ezarriko den Ingurune Seguruaren Sistema hobeto ezagutzeko; edozein iradokizun edo aipamen eskaintzeko; susmo batez hitz egiteko; edo kexa bat jartzeko **www.jesuitas.es/ses** webgunea erabili daiteke.

Nahiago izanez gero, zure iradokizuna/susmoa/salaketa modu anonimoan bidali dezakezu gaiari edo egoerari erantzuteko lagungarriak izango zaizkigun datu objektibo guztiekin batera helbide elektroniko honetara: **proteccion@jesuitas.es**

ISSren arduraduna: **esp.entornoseguro@jesuitas.es**

entorno seguro

jesuitas